



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 31

117. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituena Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (13. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (29. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak (46. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak (49. or.).
- Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak (50. or.).

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna. Zuzenketak aurkezteko epea (63. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituena Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaiola eta Patxi Leuza García jaunek foru lege proposamen hau aurkeztu dute: "Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituena Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituena Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.

ZIOEN AZALPENA

Enpresen zorra birfinantzatu eta birmoldatzeko presako neurriak hartzeko martxoaren 7ko 4/2014 Errege Lege-dekretuak Konkurtsoari buruzko Legearen alderdi garrantzitsu batzuk aldatu ditu, besteak beste, hauek: konkurtso aurreko fasea; auzibidez homologatutako birfinantzatzeko akordioak –zorraren gerorapenak ez ezik kitak eta zorra kapitalizatze formulak ere jaso daitezke bertan–; eta ordainketarako auzibidez kanpoko akordioak.

Tributu zama oztupo izan ez dadin birfinantzatzeko eragiketarako eta ordainketarako auzibidez kanpoko akordioetarako, aipatutako errege lege-dekretuak zerga arloko zenbait neurri ezartzen ditu, eta beharrezkoa da orain horiek ekartzea Foru Komunitateko tributuen antolamendura, Nafarroako enpresak pareka daitezen, zerga-tratamenduari dagokionez, araubide arrunteko lurraldean daudenekin.

Bestalde, eta berrikiago, nahiz eta tributuen arloan eragin txikiagoa duen, irailaren 5eko 11/2014 Errege Dekretu Legea eman da, konkurtsoen arloko neurri urgenteei buruzkoa. Arau horrek haren oinarri ziren premisak garatu eta zabaltzen ditu; honakoak dira neurri horiek, labur esanda:

a) Ekonomikoki bideragarriak diren enpresen jarraitutasuna onuragarria da ekonomia orokorreko ez ezik, enprezentzat beraientzat zein enplegua mantentzeko ere.

b) Konkurtso-prozesuaren pribilegioak egokitzea azpian den ekonomiaren errealitateari, zeren eta askotan funts ekonomikorik ez duten pribilegioak oztopo nagusia baitziren konkurtso-aurreko akordioetara iristeko.

c) Azkenik, berme errealak errespetatzea, baina, aurrekoaren ildotik, haiek errealitate ekonomikoei egokituta. Adibidez, gaur posiblea da merkatuan 1.000ko balioa duen ondasun baten gainean bost hipoteka edukitzea, eta horrekin halako absurdo batera iristen da non 5.000ko pasibo pribilegiatua baitago, bermatutako ondasunaren balioa 1000koa denean.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, Testu Bategineko 35.1.B) artikulua 21. zenbakia aldatu da, zenbaki horretan aurreikusten den salbuespenaren esparrua handitzeko xedeaz. Egungo testuan, kapital handitzeak salbuetsirik daude hartzekodunen konkurtsoan dauden pertsona juridikoek eginak badira, kredituak kapital bihurtzeko, Konkurtsoari buruzko Legeari jarraikiz auzibidez onetsitako hitzarmen batean ezarritakoa betetzeko. Horri dagokionez, bada garaia Europako eta Estatuko araudia betetzeko sozietate-eragiketen gaineko zergari dagokionez. Zerga horrek, izan ere, zergapeko egintza gisa jasotzen ditu sozietatearen eta bazkidearen arteko eskualdaketak, hau da, kapital soziala gutxitzeko eragiketak eta sozietateak desegitekoak, kapitalen kontzentrazioa zergapetzen duten zeharkako zergei buruzko Kontseiluaren otsailaren 12ko 2008/7/CE zuzentarauan eta abenduaren 23ko 14/2010 Lege-dekretuan ezarritakoa betetzeko, nahiz eta horrek ez dion erabateko konponbidea ematen arazoari. Hitzarmen Ekonomikoko 38.2 artikulua arabera Nafarroako Foru Komunitateak zerga honetan lurralde komuneko araudia aplikatu behar duenez, jo dugu ez dela beharrezkoa zergapeko egintzari buruzko arauaren erreforma sustatzea eta, korrelazioz, salbuespenak kentzea.

Proposatzen den erreforma da salbuespen bat gehitzea, egintza juridiko dokumentatuen gaineko

zergan eragiten duena, zordunaren maileguen, kredituen eta gainerako betebeharren kitak edo gutxitzeak jasotzen dituzten eskrituren kasuan, betiere birfinantzatze akordioen barruan edo Konkurtsoari buruzko Legean ordainketarako aurreikusitako auzibidez kanpoko akordioen barruan gertatzen badira, eta zergaren subjektu pasiboa konkurtso aurreko egoeran edo konkurtso egoeran dagoen zorduna bada.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu-arau-bidea arautzen duen ekainaren 2ko 10/1996 Foru Legean egindako aldaketak, berriz, beste izaera batekoak dira, eta gai hauei buruzkoak: errentak edo diru-sarrerak fundazioen xedeetarako erabiltzea; 11. artikuluan fundazioei kontabilitatearen, auditoriaren eta aurrekontuen arloan, ezartzen zaizkien betebeharrak, aurkeztu beharreko agiriak erraztu eta berrantolatu egin baitira, fundazioko eta patronatuetako kideek aurrerantzean etekinak lortu ahal baitituzte fundazioarentzat egindako lan edo lanbide harremanengatik; arauan ezarritako betekizunak entitateak ez betetzeak dakartzan ondorioak, ez-betetze horietako bakoitzaren ondorioak argi zehaztuta eta araubidea galtzeko aukera ezarrita ez-betetzea sistematikoa den kasurako; lortutako errentak salbuetsirik daudela deklaratzeko bete behar dituzten baldintzak; zenbait errentaren atxikipena ez egiteko eman beharreko ziurtagiria, haren edukia aldatu eta balioa urtebetera mugatu baita; eta Nafarroako fundazioen parekoak diren entitateei 10/1996 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzeko beharra ezartzea, artikulua horren edukia argiago azalduta.

Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeak ere aldaketa batzuk izan ditu; izan ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legea aldatzeko gure lege proposamenean aldaketa orokor batzuk eginen dira, eta, horren ondorioz, kooperatiben zerga araubide berezi hori sozietateen gaineko zergaren aldaketa orokor horietara egokitu behar da, zehazki, arlo hauetan: kooperatiben emaitzen karga-tasa, ehuneko 18koa izatetik 17koa izatera pasako baita; galeren konpentsazioa, konpentsazio epea hamar urtera mugatu baita; zerga onurak, amortizaziorako askatasuna desagertu baita; eta kreditu kooperatibentzako karga-tasa, non tasa bikoitzari eutsiko zaion, emaitzen kooperatiba izaeraren edo kooperatibaz besteko izaeraren arabera: lehenengoa, izan ere, gutxitu eginen da sozietateen gaineko zerga aldatzeko gure foru lege proposamenaren ildotik.

Bestalde, 9/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat erantsi zaio, Sozietateen gaineko Zerga-

ren araubide orokorrean aurreikusten den gutxieneko zerga-tasa (24/1996 Foru Legearen 51. artikulua) entitate horiei aplikatuko zaiela ezartzeko. Komenigarri da gogoan edukitzea ezen, sozietateen gaineko zerga aldatzeko foru lege proposamen bat aurkeztu denez, haren 72.8 artikuluari buruzko aipamena egin beharra dagoela, barne koherentzia dela eta.

Lehenengo artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bateginaren aldaketa.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako xedapenen testu bategineko 35.1.B) artikulua 21. zenbakia honela idatzita geldituko da:

“21. Kredituak kapital bihurtzeko konkurtsopekotzat deklaraturako pertsona juridikoek egindako kapital-gehitzeak, baldin eta hura Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera epaitegian onartutako hitzarmen batekoa bada.

Halaber, “egintza juridiko dokumentatuen” modalitateetik salbuestia egonen dira zordunaren maileguen, kredituen eta gainerako betebeharren kitak edo gutxitzeak jasotzen dituzten eskriturak, birfinantzate akordioen barruan edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtsoari buruzko Legean ordainketarako aurreikusitako auzibidez kanpoko akordioen barruan sartuta daudenean, eta, betiere, kasu guztietan zorduna bada zergaren subjektu pasiboa.”

Bigarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 9.1 artikulua aldatzen da. Hona testua:

9 artikulua.

“1. Fundazioaren helburuetarako erabili behar den diru-gutxienez, fundazioak lortutako errenta eta diru-sarrera garbien ehuneko 70. Errenta horien kalkuluan ez dira sartuko ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketen lortutakoak, entitateak bere helburua edo xedeari dagokion jardueran higiezin horietan aritzen bada; eskualdaketa horren zenbatekoa, betiere, berriz inbertituko da ezaugarri hori betetzen duten ondasun eta eskubi-

deetan. Ondareko zuzkidura gisa egiten diren ekarpenak, dela eraketa unean dela geroago, ez dira kontatuko zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako.”

Bj. 11 artikulua aldatzen da. Hona testua:

“11. artikulua. Kontabilitatea eta auditoria.

1. Foru lege honetako tributu araubideari atxikitzen zaizkion fundazioei derrigorrez aplikatuko zaizkie Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak.

Sozietateen gaineko zergan salbuetsi gabe dauden ustiategietatik errentak lortzen dituzten fundazioek Merkataritza Kodean eta zerga horren arau erregulatzailuetan aurreikusitako kontabilitate-betebeharrak izanen dituzte. Entitate horien kontabilitatea halako moduan eramanen da non aukera emanen baitu ustiapen ekonomiko salbuestiei eta salbuetsi gabekoei dagozkien diru-sarrerak eta gastuak identifikatzeko.

2. Urtero, fundazioaren patronatuak egoeraren balantzea eta emaitzen kontua egiten ditu, zeinetan argiro azalduko baita fundazioaren diru, finantza eta ondare egoera zein den, eta memoria bat ere prestatuko du, fundazioaren jarduerak eta haren kudeaketa ekonomikoa zein izan diren adierazteko, eta fundazioaren helburuak zehazki zenbateraino bete diren ere adierazteko. Memorian diru-sarrerak eta gastuak zehaztuko dira, proiektuen eta kategorien arabera sailkatuta, bai eta honakoak ere: inbentarioa, diru-sarreraren helburuaren gaineko jarraipena, 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, merkataritzako entitateetan duten partaidetzaren portzentajea, eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkari organoetan izan dituzten aldaketak.

3. 2. idatz-zatian aipatzen diren agiriak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epean. Egoeraren balantzea eta emaitzen kontua zerga horren autolikidazioarekin batera aurkeztuko dira.

4. Fundazioetako kontuei kanpoko auditoria egiten zaie, ekitaldia ixten den egunean, bi urtez jarraian, hurrengo alderdietako bat gertatzen bada:

a) Aktiboko kontu-sailek, guztira, 2.000.000 euro baino gehiago egiten badute.

b) Haien diru-sarreraren urteko zifraren zenbateko garbia 2.000.000 eurotik gorakoa bada.

c) Ekitaldian izan duten langileen batez besteko kopurua hogeita bostetik gorakoa bada.

Auditoriako txostenak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira 3. zenbakian finkatutako epean.

5. Aurreko 2. eta 4. zenbakietan aipatzen diren dokumentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak ezartzen duen moduan eta tokian aurkeztuko dira, eta hark erabakiko du haien gutxieneko edukia eta zer baldintzatan aurkeztuko diren, baita baliabide informatiko edo telematiko bitartez aurkeztu behar diren edo ez.

6. Artikulu honetan ezarritako betebeharen ez betetzea zergen arloko arau-hauste soil gisa tipifikatuko da, eta Fundazioa izanen da haren subjektu aktiboa. Bestalde, betebeharen ez-betetzea onartu duten edo hartan lagundu edo parte hartu duten Fundazioko patronatuko kideek erantzule subsidiariotzat hartuko dira.”

Hiru. 14. artikuluan testua aldatzen da. Honek la gelditzen da idatzita:

“14. artikulua. Ordainsaria.

Aurreko artikuluan xedatutakoa ezertan ukatu gabe, patronatuko kideek entitatearen ordainsariak jaso ditzakete lan edo lanbide harreman baten ondorioz zerbitzuak emateagatik. Edozein kasutan ere, ordaindutako zerbitzu horiek ez dira izanen patronatuko kide karguari dagozkion zeregin eta egingizun berberak.

Lan edo lanbide harremana arautzeko, soilik lan- edo merkataritza-kontratu bat dokumentatu beharko da, zein zeregin ordainduko diren argi zehaztuko duena.

Patronatuko kide batekin formalizatutako kontratuen zenbatekoak muga hauetako txikiena baino txikiagoa izan beharko du: 60.000 euro urtean edo patronatuak onartutako azken ekitaldi itxian fundazioak izandako diru-sarreraren ehuneko 5.

Ez patronatuko kide ez den fundazioko kideak, ez haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ezin izanen dute inoiz ordainsaririk jaso zerbitzuak emateagatik; debeku hori patronatuko kideen ezkontideei eta izatezko bikotekideei ere zabalduko zaie.”

Lau. 17 artikuluko testua aldatzen da. Hona testu berria:

“17. artikulua. Baldintzen ez-betetzeak egiaztatzea eta haien ondorioak.

1. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak araubide berezi horretaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta, hala behar denean, fundazioaren

tributu egoeraren ondoriozko erregularizazioa egingen du.

2. Foru lege honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, entitatea beharturik egonen da oso-osorik pagatzera honako zerga hauen kuotak, tributuen gaineko arauekin bat: sozietateen gaineko zerga, toki-tributuak eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Halaber, berandutza-interesak eta, bidezko izanez gero, zehapenak ere ordaindu beharko ditu, artikulu honetan ezarritako moduan.

Lege honetako 11. artikuluan ezarritako formazko betekizunak betetzen ez badira, artikulu horretako 6. idatz-zatian ezarritakoari begiratuko zaio.

3. Aurreko lerrokadako betebeharen hori gaizki aplikatutako emaitzak eta diru-sarrerak lortu ziren ekitaldiko kuotei dagokie, baldin eta foru lege honen 9. artikuluan ezarritako eginbeharra bada. Legearen 12. artikuluan agindutakoa izanez gero, berriz, ez-betetzea egin den ekitaldia eta aurreko laurak hartuko dira kontuan; hori hala ere, ez da eragozpen izanen bidezko izan daitezkeen zehapenak ezartzeko.

11. artikuluan aipatzen den dokumentazioa, aurkezpen epea amaitua duen ekitaldiari buruzkoa, zergaren sortzapenaren egunean osorik aurkeztu ez duten entitateek ez dituzte izanen foru lege honen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako salbuespenak, ez eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150. 1. d) eta e) eta 173.2. c) artikuluetan ezartzen direnak ere. Betebeharen hauek betetzeari edo ez betetzeari buruzko informazioa kasuan kasuko udalari jakinaraziko dio Nafarroako Zerga Ogasunak, automatikoki.

Aurreko zenbakietan aurreikusirik ez dauden gainerako kasuetan, 2. zenbakian aipatzen den ez-betetzeak hura gertatzen den ekitaldiko kuotak ordaintzeko betebeharen ekarriko du, eta bidezko diren zehapenen berandutza- eta inposizio-interesak exijituko dira, kasua bada.

4. Araubideaz baliatzeko baldintzak modu sistematikoan betetzen ez badira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua kasuko espedienteak ireki beharko du araubidea galdu dela deklaratzeko, betiere Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoak proposatuta. Ondorio horietarako, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da entitateak bost urteko epean hiru ekitalditan betetzen ez dituztenean zerga araubide honen baldintzak. Halaber, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da 11. artikuluan aipatzen diren agiriak hiru ekitalditan jarraian aurkeztu ez direnean. Irizpide hori bera aplikatuko da begi bistakoa denean

aurkeztutako agiriak ez direla aski egiaztatzeko zerga araubide honen baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, entitate interesdunari entzun ondoren, ebazpena emanen da, eta ukitutako udalei ere igorriko zaie.

Araubidea galdu dela deklaritzen duen ebazpena jakinarazi eta urtebete iragan ondoren –betiere, ebazpen hori bide administratiboan edo judizialean irmoa denean–, entitateak araubidea berreskuratzeko eskaera egin dezake, baina Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuan frogatu beharko du beharrezkoak diren neurriak hartu dituela galera eragin zuten ez-betezakeak errepika ez daitezzen; kasu horretan 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.”

Bost. 18.1 artikulua aldatzen da. Hona testua:

“18. artikulua. Errenta salbuetsiak.

1. Fundazioek erdietsitako errentak salbuetsita egonen dira kasu hauetan:

a) Fundazioaren xede soziala edo haren berriazko helburua osatzen duten ohiko jardueretatik ateratakoak badira, ustiapen ekonomiko baten bidez edo bestela.

b) Ondasunen edo eskubideen erosketen edo eskualdaketen ondorio direnean, edozein tituluren bidez, entitatearen desegitea edo likidazioa dela eta lortutakoak barne. Nolanahi ere, batzuk zein besteak berriazko xedea edo helburua betetzean egin beharko dira.

Administrazio publikotik eta beste erakunde edo ente publikoetatik eskuratutako diru-laguntzak salbuetsitako errentak izanen dira, betiere entitatearen xedeak gauzatzeko erabiltzen badira eta salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoak finantzatzeko erabiltzen ez badira.

Ondasunen edo eskubideen irabazizko eskuratzeeen kasuan, fundazioaren xedeak gauzatzeko erabili beharko dira, edo eskuratu ziren egunetik bi urteko epean besterendu. Epe hori luzatu ahal izanen da baldin eta ondasun edo eskubide horien xedea Fundazioak egin eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak onartutako plan baten arabera bada.

Kostu bidezko eskualdaketen kasuan, lortutako kontraprestazioa entitatearen berriazko xede edo helburua gauzatzeko erabili beharko da.

c) Hirugarrenei lagatako ondare-elementuen ondoriozkoak, konparazio batera, sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak”

Sei. 22 artikulua aldatzen da. Hona testua:

“22. artikulua. Likidazio oinarri negatiboaren konpentsazioa.

“Likidazio oinarri negatiboak konpentsatu ahaliko dira, ondoz-ondoko hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboekin. Aurretik, bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek”

Zazpi. 25.3 artikulua aldatzen da. Hona testua:

25 artikulua.

“3. Ez da atxikipenik ez konturako diru-sarrerarik ere eginen foru lege honen ondorioz salbuetsita dauden errentengatik, ezta hirugarrenei lagatzen zaizkien ondare elementuen ondoriozkoengatik ere, zeinen artean sartzen baitira sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak, ez eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketen ondoriozko ondare-gehikuntzengatik ere.

Errenta horien atxikipenik ez egiteko, 11. artikuluan ezarritako betebeharrak eta egitekoak eguneko eduki behar dira, aurkezpen epea amaitua duen azken ekitaldiari dagokionez; baldintza hori Nafarroako Zerga Ogasunak urtebeterako balioarekin emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da”

Zortzi. Bigarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatia aldatzen da.

“2. Tributu araubide hau aplikatzeko, Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean frogatu beharko da kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen direla, aurreko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, eta zenbaki horretan aipatzen diren entitateek 11. artikuluan fundazioei ezartzen zaizkien eskakizunak bete beharko dituzte.

Eragin horietarako, 11. artikuluan ezarritako betebeharrak eta egitekoak bete direla ulertuko da, baldin eta urtero Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoak emandako ziurtagiria lortzen bada.

Hirugarren artikulua. Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 20.1.lehena artikulua aldatzen da. Hona testua:

20 artikulua.

“1. Zerga kontuetarako babesturiko kooperatibei tasa hauek ezarriko zaizkie:

Lehena. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 17ko tasa aplikatuko zaio. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagozkien zergak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1. artikuluan ezarritako tasaren arabera ordainduko dira.

Bi. 21.1 artikulua aldatzen da. Hona testua:

21 artikulua.

“1. Aurreko artikuluan aipatzen den batura negatiboa bada, zenbatekoa konpentsatu ahal izanen da ondoko hamar urteetan, jarraian, amaitutako zergaldietako kuota positibo osoekin. Kuota negatiboei beharko dute izan egin beharreko likidazio edo autolikidazioaren ondorioa. Konpentsazioa egiten bada, kuota negatiboen zergaldiak preskribitu gabeak izanen dira, dagokion konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzearan ondorioetarako soilik”

Hiru. 27. artikuluko 2. idatz-zatia kentzen da, eta 3. idatz-zatia 2. idatz-zati berria izanen da.

Lau. 37 artikulua aldatzen da. Hona testua:

“37. artikulua. Karga-tasa.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kreditu kooperatiba babestuei, Sozietateen gaineko Zergari dagokionean, ondoko karga-tasak aplikagarri izanen zaizkie:

1. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 23ko tasa aplikatuko zaio. Horren ondorioetarako, kooperatibaren emaitzat hartuko dira, Foru Lege honetako II. tituluaren I. kapituluko 3. atalean ezarritakoez gain, 36. artikuluan 2. zenbakiko b) letraren bigarren lerroaldean adierazi eragiketen ondoriozkoak.

2. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien zerga-oinarriari, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1 artikuluan adierazitako tasa aplikatuko zaio. Emaitza horiek bereizita kontabilizatu beharko dira.

Bost. Hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 72.8. artikuluan ezarritako gutxieneko zerga-tasaren aplikazioa.

Foru lege honen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ukatu gabe, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 72.8. artikulua aplikatuko zaie foru lege honen arabera babes berezia duten kooperatibei, bai eta babes berezia duten nekazaritzako kooperatibak diren lehentasunezko elkarkidetzako ustiategi ere. Era berean, laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kooperatibei aplikatuko zaie”

Sei. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hirugarren xedapen iragankorra. 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkien kuota negatiboak.

21.1 artikuluan aipatzen den batura negatiboak, 2015eko urtarrilaren 1ean konpentsatu gabe dagoenak eta 2015eko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldia baino lehenago sortutakoak, aldaketa honek indarra hartzen duenetik aurrera jarraian kontatutako ondoko hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien kuota positibo osoak gutxitu ahal izanen ditu.

Halere, ez dira konpentsatuko aurreko lerrokadan aipatzen den datan ordaindu gabe dauden zenbatekoak, betiere, bertan aipatzen den hamar urteko epea iragan aurretik, hamabost urte baino gehiago iragan badira sortu ziren egunetik.

Foru lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ukatu gabe, bai kasu hauetan bai aurreko urteetan ordaindu ez den kuota osoaren kenkariak aplikatzen diren kasuetan, kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru legearen 51. artikuluan ezarritakoa”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaiola eta Patxi Leuza García jaunek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

1977ko ekainaren 15etik sortutako gorte demokratikoei onetsi zuten lehenengo legea azaroaren 14ko 40/1977 Legea izan zen, non, besteak beste, Estatuan pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga berezia ezarri baitzen. Zerga hori, izan ere, mugarririk izan zen sistemaren gehikortasuna hobetzeari begira, eta PFEZa baino are lehenagoa izan zen, azken hori 1978an ezarri baitzen. Berehala, zerga hori Nafarroan ezarri zen, Foru Diputazioaren 1977ko abenduaren 28ko erabakiaren bitartez.

Arau horretan, zergaren arkitektura nagusia ezarri zen, zeina, ezbairik gabe, gaur egun zerga hori arautzen duen azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamen honetan

laburbil dezakegun –behin zerga hori ondarearen gaineko zerga bihurtuta– “berezia” izenondoa kenduta, zeren eta jada zentzurik ez baitu, gure zerga-sisteman finkatuta dagoen zerga bat izaki, behin betiko izaera duena.

Foru Ogasuna eta zerga-informaziorako daukan sistemak 1992tik asko hobetu badira ere, orain aztergai dugun zergak ezin ditu alde batera utzi bi kontu: batetik, kontrol-zerga edo kurrikazerga bat dela (Alemaniako doktrinari eta jurisprudentziari jarraituz), zeren eta haren xedea ez baita soilik dirua biltzea; izan ere, horretaz gainera, balio behar du –funtsean, baina ez esklusiboki– zerga-garrantzia duten datuak lortzeko, beste zerga batzuen kudeaketari begira –bereziki, PFEZaren eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren kudeaketari begira–. Alde batetik, bizirik dago oraindik gure zerga-sisteman zergen balorazioari buruzko foru legerik ez egotea, halako molde non, salbuespen batzuekin –araura berariaz jota– estankotasun fiskalaren printzipioa nahierara baitabil gure sisteman, zergadunen segurtasun juridikoaren kaltetan eta Nafarroako Zerga Ogasunaren kontrolerako zailtasunak sortuz.

Hala eta guztiz ere, aurkeztu dugun foru lege proposamenak ez du bilatzen bigarren arazo horri konponbidea ematea. Izan ere, bi bidetatik lor liteke hori: batetik, balorazioei buruzko foru lege bat eginez, zeinak balioko bailuke ondare-elementuen balioa zehatu beharra dagoen zerga guztietarako; bestetik, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea haren aurrekoaren ordezkotzat bihurtuz; bigarren aukera horrek berarekin ekarriko luke hainbat zerga arautzen dituzten foru legeak aldatzea, bai eta, kasu bada, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea ere.

Ondarearen gaineko zergaren izaera nagusia ahaztu gabe, kontuan hartu beharra daukagu zerga-sistema, bere osotasunean –ez zergak banaka hartuta–, oinarritu beharra dagoela gehikortasunaren eta gaitasun ekonomikoaren printzipioetan, besteak beste. Eta horri dagokionez, ondarearen gaineko zergak, PFEZarekin eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarekin batera (azken hori, baina, zer edo zer motelduta Nafarroako kasuan), funtsezko eginkizuna eduki behar du printzipio horiek betetzean. Inork ez du zalantzan jartzen ezen, errenta berdinak izanda, ondarea daukanak duela gaitasun ekonomiko handiagoa, eta gaitasuneko plus hori zergapean jarri beharra dago. Hala eta guztiz ere, ondarearen gai-

neko zerga ezin da izan zama bat ondare ertaintzat, eta ezin da iritsi, ezta ere, konfiskazio-eraginak izan litzaketen karga-tasetara ere, zeren eta bigarren kasu horretan nahigabeko eraginak izanen bailituzkete helbide fiskala Nafarroako Foru Komunitatean daukaten pertsona fisikoen zat, eta eragin horiek Ogasunean bertan ondorioak izanen bailituzkete.

Argi dago ezen, nahiz eta zerga-sistema berekia eduki eta zerga honetan eskumen osoak izan, 1990eko Hitzarmenaren arabera ezin garela isolatu lurralde komunean edo Euskal Autonomia Erki-degoko lurralde historikoetan gertatzen denetik, funtsean hurbiltasun geografikoko arrazoiengatik eta esparru juridikoak Estatuko lurraldean helbidea hautatzeko askatasuna bermatzen duelako, eta hautamen hori ezin delako indargabetu edo oztopatu arrazoi fiskalak tarteko. Eta hori horrela da Hitzarmen indarduneko 43.2 artikulua xedatuak gora-behera, zeren eta zalantzazko gertatzen baita haiek bateragarriak izatea helbide-askatasunaren printzipioarekin. Alderdi horrek askogatik gaintzen ditu foru lege proposamen honen arrazoi zehatzak, zeinak Hitzarmena aldatuz konpondu beharko bailirateke. Hori, agerikoa denez, bateragarria da Foru Ogasunak gezurrezko helbide-aldaketak jazarzearekin eta konprobaketa lanak egitearekin.

Gure garaiko errealitate ekonomikoak zaharkituta utzi ditu 1992ko foru legeko azken xedapenak, zeren eta, geroko aldaketak gorabehera, gai batzuk ebatzi behar baitira, ez ondarearen gaineko zergan gehiago biltzeko asmoarekin, baizik eta hobeki biltzeko eta modu ekitatiboagoan banatzeko. Aipatutako foru legeko zioen azalpenak iragartzen bazuen ere asmoa zegoela ("babesgarri fiskala" deitutakoa ezartzerakoan) ondare handia izanda ere PFEZean likidazio oinarri txikiak dituzten pertsona fisikoek ondarearen gaineko zerga ordaintzetik kanpo uzteko, uste dugu asmo hori ez dela lortu, zerga honetako zergadunen kopuruak eta babesgarri horren onura hartzen dutenen likidazio oinarrien bolumenak demostratzen duten bezala. Egiaztatzen da babesgarri horrek garrantzi kuantitatibo handia duela –zergaren diru-bilketa efektiboaren ia bi halako egiten du–, eta argi dago onura egiten diela, funtsean, ondare handiak dituzten pertsona fisikoei.

Eta araua sinpleagoa izan dadin, beren izaera edo xedea direla-eta errenta sortzerik ez duten ondare-elementuen aipamena kentzen da, zeren eta jotzen baita horrekin behar gabe zailtzen dela zergaren kudeaketa eta, gainera, alde batera uzten dela jabetza pribatuaren eginkizun soziala, zeina, halaber, gure antolamenduaren printzipio

bat baita. Aipamen hori kentzeak teknikoki neutrala izan beharko luke, zeren eta errenta sortzerik ez duen ondare-elementu batek inguruabar hori bere balioan islatuko baitu, bai eta ondarearen gaineko zergaren zerga-oinarrian ere. Xedeari dagokionez, aldaketa honekin (hari buruzko aipamena kentzea) ez da interferentziarik egiten ondasunen jabearen askatasunean; izan ere, jabeak nahi duen xedera-ko erabili ahalko ditu, jakinda ezen beren borondatearengatik errentarik sortzen ez badute, horrek ez duela eraginik izanen ondarearen gaineko zerga- zerga-oinarrian.

Bestalde, gutxieneko pertsonala (zerga-oinarri-ko murrizketa baten modukoa) eta zergadunaren ohiko etxebizitzaren salbuespena birplanteatu behar dira; izan ere, foru lege proposamen honetan igo egiten dira. Bigarren kasuan, ez da bidezkotzat jo salbuespenaren zenbatekoa igotzea, kontuan hartuta higiezin merkatuaren bilakaera, katastro-balioak eta baterako tributazioa bideratzen ez duen zerga bat dela –horrek, izan ere, onura egiten die, ondare-elementuen atxikipen-irizpideen arabera, konkisten araubidean ezkonduetako zergadunei–; lehenengo kasuan, ordea, garrantziko igoera bat egiten da, 550.000 euroan jartzerainokoa.

Zergaren tarifari dagokionez, beste zerga-sistema batzuekiko harmonizazio gabetzea ez dute zuzenean sortu foru legegilearen jarduketek, baizik eta haren jarduketa-ezak. Izan ere, likidazio oinarrien eskala ez da deflaktatu inflazioaren bilakaeraren arabera, eta horrek eragin du nominalki tarifa handiagoa izatea lurralde komunean edo beste foru lurralde batzuetan dagoena baino. Horri dagokionez, foru lege proposamenak egiteko bikoitza dauka: batetik, tasak arintzea ondare garbi guztietarako (ohiko etxebizitzarengatik salbuespenaren eta zerga-oinarrian murrizketa orokorra aplikatu ondoren), zehazkiago 1.000.000 euroko kopurua gaintzen ez dutenen kasuan; eta, bestetik, eskalak doitzera ondare garbi handien kasuan (nominalki, kuota txikiagoa izanen dute tarifaren deflaktazioaren ondorioz, zeren eta, gainera, PFEZaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoen baturaren portzentajea ehuneko 50era jaisten baita, lehenengoaren zerga-oinarriari dagokionez). Horrekin batera –hau garrantziko apustua da–, ehuneko 80tik ehuneko 50era jaisten da ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren murrizketa, baldin eta aurrez adierazitako egoera gertatzen bada.

Horri dagokionez, 400.000 euroko ondare garbia (likidazio oinarria) duen zergadun batek 600 (seiehun) euroko kuota izanen du (gaur egun 1.222,44 euroko kuota dauka); 800.000 euroko liki-

dazio oinarria duen zergadun batek, berriz, 1.800 (mila eta zortziehun) euroko kuota osoa izanen du (egungo tarifaren arabera, 3.934,25 eurokoa). Bi adibide horiekin ikus daitekeen bezala, zergak gehikortasunari eusten dio, baina zergadun ertainen ondaretarako kuota jaisten da, zeren eta ez baita hori diru-bilketarako gune garrantzitsuena. Eta Gipuzkoarekin alderatuta (bertan dirutza handien gaineko zerga ezarrita baitago), lehenengo kasuan, Nafarroakoaren berdina den tributazioa gertatuko litzateke. Gainera, ez da ahaztu behar lurralde historiko horren kasuan, ohiko etxebizitzarengatik salbuespena foru lege proposamenean bildutako kopuru berak biltzen dituela. Salbuesitako gutxienekoa, ordea, Nafarroakoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du (Nafarroakoa 550.000 eurokoa izanen da, proposamena aurrera ateratzen bada; Gipuzkoan, berriz, 700.000 eurokoa).

Bestalde, ehuneko 2,10eko marjinalaren arabera tributatzeko zerga oinarria nabarmen igotzen da, zeren eta 9.952.760,45 eurotik 12.800.000 eurora pasatzen baita. Bistan denez, horrek berekin dakar zerga ondare altuenentzat gutxitzea, PFEZaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoen muga aldaketak haiengan eragina ez duen bitartean ("babesgarri fiskala" deitutakoa).

Azkenik, autolikidazioa aurkezteko betebeharrari dagokion araua aldatzen da, zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonala daukaten subjektu pasiboaren kasuan. Esperientziak erakutsi digu ezen, zergadunak Burtsan kotizatzen ez duten enpresen akziodunak direnean, maiz gertatzen dela sozietateak maileguak ematea, eta mailegu horiek, batzuetan, beraiekin ekartzea sozietatearen deskapitalizazio bat, zeren eta itzuliak ez izateko arrisku bat baitago. Bestalde, gogorarazi beharra dago gure zerga-sisteman ez dagoela pertsona juridikoen ondasunen gaineko zergarik; hori dela eta, zail gertatzen da sozietatearen eta bazkidearen artean ondare- eta finantza-datuak trukea egitea. Zergak saihesteko xedez, autolikidazioa aurkezteko betebeharrak haiekin lotutako pertsona fisiko guztiei zabaltzen zaie, igorpen beraiazkoa eginez Sozietateen gaineko Foru Legea. Helburua da, besterik gabe, disfuntzio hori zuzentzea, aukera emanez Foru Ogasunak iker dezan –egiaztatze hutsean geratu beharrean– mailegu horien egiazkotasuna, ondarea hustea dakarten ala ez, edo bazkidearen, administratzailearen edo kudeatzailearen ondarearen gaineko zergan gu-

txiagi ordaintzea bilatzen duten, zeren eta horiek berak zor integragarri gisa kontatuko baitute ondarearen gaineko zergaren oinarria. Aldaketaren xedea hori denez, jo da teknikoki egokiagoa dela autolikidazioa aurkezteko betebeharrak ezartzea bigarren mailako balio-merkatu ofizialetan kotizatzen ez duten entitateen funts berekietako balio adierazgarrienen titularrak diren zergadunei, bai eta haiekin lotutako pertsona fisikoek ere. Hala eta guztiz ere, kontrol-eginkizun horrek ez du beharrik gabe zaildu behar zergaren kudeaketa, eta ez die zeharkako zamarik ekarriko zergadunei. Hori dela eta, komenigarritzat jo da kotizatu gabeko sozietatearen eta bazkideen nahiz lotutako pertsona edo entitateen arteko maileguetarako gutxieneko zenbateko bat ezartzea: 100.000 eurokoa da zenbateko hori.

Bestalde, zerga honetan funtsezkoa den kontrol xedearen arabera, 1.000.000 euroan finkatzen da autolikidazioa aurkezteko betebeharrak, halako moduz non hura aurkezteko betebeharrak izanen baitute ondare gordinetan kopuru horren berdina edo handiagoa duten pertsona fisikoek, nahiz eta zerga horren arauen aplikazioak ez ekarri ingesatu beharreko kuotarik.

Gure ustez, aldaketa horiek ondarearen gaineko zerga Nafarroan modernitatearen eta emaitzen efizientziaren ildoan jartzen dute, halako moduz non diru-bilketarekin bateragarri gertatuko baita zamaren banaketaren ekitatea eta, batez ere, indartuko baita kontrol-zergaren izaera, behar den informazioa emanez datuak gurutzatu ahal izateko pertsona fisikoen errentaren edo ondarearen gaineko beste zerga batzuetan lortutako datuekin.

1. artikulua. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 5.7 artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

“Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere.”

2. artikulua. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 28.1 artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

“Likidazio oinarria kalkulatzeko, salbuesita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 550.000 euro murriztuko da.

3. artikulua. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 30 artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

<i>Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)</i>	<i>Kuota osoa (eurotan)</i>	<i>Likidazio oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)</i>	<i>Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)</i>
0	0	200.000	0,10
200.000	200	200.000	0,20
400.000	600	400.000	0,30
800.000	1.800	800.000	0,50
1.600.000	5.800	1.600.000	0,90
3.200.000	20.200	3.200.000	1,30
6.400.000	61.800	6.400.000	1,70
12.800.000	170.600	Hortik gora	2,10"

4. artikulua. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 31. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzen dira. Honako testua izanen dute:

“1. Zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren ehuneko 50etik goitiko izaten ahal.

Aurrezkiari dagokion zerga-oinarriko zati berezia, ondare gehikuntza eta murrizketen ondoriozkoa, eskualdatze egunaren aurretik gutxienez ere urtebete lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketa edo horietan egindako hobekuntzen saldo positiboari dagokiona ez da kontuan hartuko, ez eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoan aurrezkiaren zerga-oinarriko zati bereziari dagokion zatia ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarriari aurrezkiari dagokion zati bereziari gehituko zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorreko 6. artikuluko a) letrak aipatzen duen mozkinetako partaidetzen eta dibidenduen zenbatekoa.

2. Bi kuoten baturak aurreko idatz-zatian aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da ehuneko 50 baino handiagoa izan.”

5. artikulua. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 36. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

“Haien tributu-kuota (zergaren arauekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean aurkeztu beharko dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboek, edo, kasu hori gertatzen ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa (zergaren arauekin bat kalkulaturik) 1.000.000 eurotik gorakoa denean.

Nolanahi ere, autolikidazioaren emaitza edo ondasun eta eskubideen balioa alde batera utzita, berdin aurkeztu beharko dute autolikidazioa foru lege honen 16. artikuluan aipatzen diren ondare-elementuen titular diren pertsona fisikoek, bai eta entitate horiekin lotuta dauden pertsona fisikoek ere, baldin eta sozietatearen, inbertsio kolektiboko erakundearen edo kooperatibaren eskutik maileguak, kredituak edo kapital berekien beste edozein motatako lagapen jaso baldin badituzte, eta hala-koak 100.000 eurokoak edo gehiagokoak badira.

Eragin horietarako, lotura ezarriko da sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28.3 artikuluan aipatutako pertsonen erreferentziaren arabera.”

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olai-zola eta Patxi Leuza García jaunek Foru Lege pro-posamena aurkeztu dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sozietateen gaineko Zer-gari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan, ezinbestekoa da sozietateen gaine-ko zergaren erreforma egitea, foru lege indarduna onetsi zenetik iragan den denborarengatik ez ezik (nahiz eta urtero aldaketa jakin batzuk egin zaiz-kion), zergaren egiturengatik ere, zeren eta, ba-tzuetan, ikusi baita nabarmen zaharkituta eta enti-tateen etekinen gaineko karga-sistema modernoetatik urrun dagoela.

Horri dagokionez, gure ingurune ekonomikoan, tributu-sistema desberdinek neurri batzuk hartu dituzte zergaren egitura errazagoa egiteko, enpresentzako zeharkako kostua eta Administrazioarentzako kudeaketa-gastuak gu-txituz, zenbait zerga-pizgarri kentzearen bitartez –haien eraginkortasuna oso zalantzazkoa bai-tzen– eta hori konpentsatuz karga-tasa nominalen

murrizketa baten bitartez. Konpentsazioa are han-diagoa da, baldin eta kontuan hartzen badugu kentzea proposatzen ditugun onura fiskaletako ba-tzuk soilik subjektu pasiboen segmentu jakin batek erabiltzen zituela. Egungo eskemari eusteak soilik balio du karga-tasa nominalen gutxitze bat ezku-tatzeko, eta horrek, normalean, onura ekarriko lieke negozio-bolumen handiena, enpresa-egitura hobia eta, horrenbestez, onura fiskalen amalgama anitzari atxikitzeo aukera gehien dituzten subjek-tu pasiboei. Alabaina, esan beharra daukagu tasa normalen eta tasa errealean arteko desbideratzea ez dela geografikoki hurbil ditugun beste tributu-sistema batzuetan dagoena bezain markatua.

Horrenbestez, proposatzen dugun erreformak zergadun guztiei eginen die onura, eta Nafarroako Zerga Ogasunean baliabide materialak eta giza baliabideak libratzea ere ekarriko du, subjektu pasibo jakin batzuk ikertzeko –eta, kasua bada, erregularizatzeko– aukera egon dadin. Horrekin batera, ez dugu ahaztu behar sozietateen gaineko zerga helburu fiskalak ez diren beste batzuetarako erabili izan dela, gehienak helburu legitimoak; piz-garri horiek, ordea, gastu publikoaren bidetik egin beharko liriteke, kasua bada. Zergak helburu fis-kalak ez diren beste batzuetarako erabiltzea onar-tuta dago gure foru legedian, baina horren zabal-penak, amaieran, tributuari bere izaera kentzea dakar.

Geroko garapena zein den ere, aldatzen diren arauen eta aldaketa horiek justifikatzeko arrazoiak iruzkintze aldera, foru lege proposamenaren ildo handien abiapuntua, honakoa bezalako tributu batean, subjektu pasiboen errealtatea eta dauzka-ten arazoak dira, eta foru legegileak jakin behar du jarduten enpresa-erabakien katalizatzaile gisa, eta ez jokabide jakin batzuen sustatzaile gisa, salbu eta guztiz beharrezkotzat jotzen den kasuetan, beste helburu batzuk lortu nahi direlako.

Puntu honetan, modu sinoptikoan, honakoak dira Nafarroako ekonomian aurkitutako arazo nagusiak:

a) Krisi ekonomikoko urte batzuk egon dira, enpresen emaitza-kontuetan ondorio handiak izan dituztenak eta eragin bikoitza sortu dutenak: bate-tik, konpentsatzeko dauden galeren multzo bat dago, halako moduz non Foru Komunitatearen diru-kutxek horren zama eraman beharko duten; bestetik, beste faktore batzuekin bat, enpresek zailtasunak dituzte kreditua lortzeko, aurreko urte-etako galerengatik ez ezik, gure finantza-entitateek

jarraitu duten kreditu-politika bereziarengatik ere. Merkatuetan tentsioak egoteak berarekin dakar finantza-entitate horiek nahiago izatea dirua bankuen arteko merkatuan edo zor publikoan kokatzea, sektore publikoak funtsen eskatzaile gisa sortutako *crowding out* edo egozpen-efektua deitutako printzipioaren indarrez.

b) Halako langabezi maila bat edukitzea, zeina, Estatuko txikiaren artean egonda ere, onartezin gertatzen baita sektore eta kolektibo jakin batzuetan. Horri dagokionez, ez dugu sinesten tributu-sistemak gai honi konponbidea emateko bertute taumaturgikorik duenik, zeren eta arazoak egiturazko arrazoi sakonak baitaizka, baina ez dugu eragozpenik tributu-neurrien bitartez lanaldi osoko kontratu mugagabeak sustatzeko; izan ere, neurri horiek diru-bilketan izanen luketen eragina diluitu egingen litzateke, kontuan hartzen badugu kontratazio horrek, dauzkan ezaugarriekin, PFEZean eta BEZan eragin positiboak izanen dituela.

Arazoak gaineratik bada ere deskribatu ondoren, orain neurri garrantzitsuenak azaltzeari ekinen diogu. Batzuetan, neurri berritzaileak dira, beste sistema batzuetakoen morrontza soilekoak ez direnak, bereziki kontuan hartzen bada, batetik, zerga honetan Nafarroako legegintza eskumen osoak dituela (salbu eta Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako mugengatik) eta, bestetik, harmonizazio fiskalaren arloko aurrerapenek (edo legedien arloko hurbilketa, zeren eta harmonizazioa, strictu sensu, zeharkako zergapetzerako uzten baita), Europar Batasunaren esparrukoek, inongo emaitzarik ez dutela lortu 1975etik.

Azken hori gorabehera, gogoan hartu beharra dago bai Europar Batzordeak, bai Luxenburgoko Justizia Auzitegiak halako *soft law* bat bultzatu dutela, eta horretarako Estatuko laguntzen mekanismora jo dutela. Eta ikuspuntu geografikotik, gure sozietateen gaineko zergaren aplikazioaren lurralde-eremuak beste hiru sistema ditu mugakide: Frantziakoa, Euskadikoa eta lurralde komunekoak. Hori dela eta, arreta bereziz jardun behar dugu, halako moduz non tasa nominalen bat-bateko jaitsiera batek ez duen Europar Batzordea eramanen Estatuko laguntzengatik prozedura bat irekitzera edo gure tributu-ahalmenaren erabilera zalantzan jartzera.

Nolanahi ere, proposatzen ditugun tasek aipatutako mugekiko proportzioa dute, eta, aldi berean, ikus daiteke haietan murrizketa bat gertatzen dela. Aipatutako murrizketa horretaz haratago, bi berritasun garrantzitsu ikus daitezke:

a) Alde batetik, karga bikoitzeko sistema bat ezartzen da, banaketa efektiboaren arabera, eta

ez ekitaldi ekonomikoan lortutako etekinaren arabera. Enpresa txiki eta ertainak, momentuz, alde batera utzita (ez dira baztertzen, halere), etekinak ez banatzea erabakitzen duten subjektu pasiboek (zuzenean, dibidendu bidez edo zeharka, guztiz edo partzialki liberatutako kapital-zabalkuntzen edo bazkideei kapitala itzultzeko kasuetan bezala) ehuneko 19ko tasa bakarra izanen dute, kreditua lortzeko zailtasuna eta berrinbertitzeko beharra direla eta, baina betekizun jakin batzuk izanen dituzte; betekizun horiek, izan ere, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50. artikuluko 6. idatzati berrian garatzen dira. Horrek ekarriko du Nafarroako Foru Ogasunak, epe laburrean, ahalegin bat egin behar izatea, zeina konpentsatuko baita enpresek izanen dituzten kostu finantzario txikiagoekin (gastu kengarriak). Enpresek progresiboki kanpoko finantzaketaren mekanismoak, orain arte itxita egon direnak, gaudituko dituzte, eta, aldi berean, beren balantzarako egitura indartu eta saneatuko dute.

b) Bigarrenik, karga-tasak subjektu pasiboaren fakturazio-bolumenaren arabera bereizteari eusten zaio, halako moduz non tasa orokor bat eta berriazko tasa bat egonen diren enpresa txiki edo mikroenpresa deitu daitezkeenetarako, haiek banaka hartuta. Berriazko tasa horretan, lehenengoei dagokienez, esparru subjektiboari eusten zaio, halako moduz non hamar milioi euroko mugara bitarteko eragiketa-bolumena dutenek kontsiderazio horretaz gozatzen jarraituko duten. Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu eragiketen bolumena, kasu honetan, zedarritze objektiborako parametro huts bat dela, halako moldez non karga-tasa progresiboak ezartzen diren –muntako beste berritasun bat sozietateen gainekoa bezalako zerga batean, non gure tributu-sisteman historikoki tasen proportzionaltasunari eutsi baitzaio– fakturazio bolumenaren gaineko likidazio oinarriaren ehunekoaren arabera, halako moduz non karga-tasa progresiboa izanen den baina sekula iritsi gabe hamar milioi euroko negozio-zifra gauditzen duten enpresen karga-tasara; zehazki, enpresa horiek ehuneko 21 eta ehuneko 24 bitarteko tasa ordainduko dute, ongi baitakigu horrek lagundu egingen dituela berronertze ekonomikoa eta enpleguaren hobekuntza, zeren eta segmentu hori baita krisiak gehien zigortutakoa –gihar finantzariorik ez edukitzeagatik–, baina, horretaz gainera, gure Foru Komunitatean enplegu gehien sortzen duena. Muga bat gehitzen da segmentu honetan errentagarritasunak ondare garbiaren ehuneko 20 gauditzen duen kasuetarako.

c) Hirugarrenik, nahiz eta karga-tasak ez izan zerga baten presio fiskala finkatzeko parametro bakarra, presio hori zerga-oinarri homogeneoekin

ezarri behar delako, eta, horrenbestez, lurralde komunarekiko, Euskadiko lurralde historikoekiko nahiz Frantziarekiko alderaketak ariketa antzua delako, mikroenpresetarako –milioi bat eurotik beherako eragiketa-bolumena dutenak– ehuneko 20ko kaga-tasa bat ezartzen da, betiere haien likidazio oinarriak eragiketen bolumenaren ehuneko 10a gainditzen ez badu.

Agerikoa denez, b) eta c) kasuetarako beste aukera bat izanzen zen kontuan hartzea baliabide berekien eta likidazio oinarriaren arteko proportzioa, baina uste dugu horrek beharrik gabe nahastuko lukeela kudeaketa, bai zergadunarentzat, bai Foru Ogasunarentzat.

Beste berritasun bat da –nahiz eta lege proposamenean ez den ageri, zeren eta ontzeko eta adosteko ahalegin bat eskatzen baitu; halere, Parlamentuko izapidetzean gehi daiteke– arau lotesle batzuk ezartzen direla, optimizazio fiskalaren arlarako enpresek eduki beharreko jarduketa printzipioak determinatuko dituztenak. Horretan, kontua litzateke araudi britainiarra gurera ekartzea, behar diren egokitzapenak eginda; halere, esan beharra dago oso araudi berria dela eta, normalean, enpresa handiei eta, batez ere, multinazionaleri zuzenduta dagoela. Nolanahi ere, aipatuta utzi nahi dugu, zeren eta, momentuz, ez baita foru lege proposamenean sartu. Alabaina, esan dugun bezala, ez diogu uko egiten hura jasotzeari, Parlamentuan egiten den izapidetzearen arabera.

Karga-tasak alde batera utzita –eta optimizazio fiskalari buruzko tartekia eginda–, non berritasuna garrantzitsuak baitira, jokoan diren interesak haztatuz eta ikusita zein diren Nafarroako enpresen bilbea, Europar Batasunaren exijentziak eta egungo egoera ekonomikoa (alde bikoitzetik: barnekoa, enpresarako; eta kanpoko, berriz, enplegu egonkorra sortzeko ahalmenerako), agian inbertsioetarako erreserba berezia kentzearena da garrantzi gehien duen beste berritasuna. Izan ere, erreserba horrek zenbait arazo zeuzkan, alde batetik, 50.000 euroko gutxieneko zuzkidurak subjektu pasibo asko uzten zituen kasuko murrizketa egin gabe; bestetik, haren kontabilizazioa, inbertsioen gauzatzeko aukera zein aldiak eta Foru Parlamentuak ondoz ondoko luzapenak egin behar izatea –aplikatzekoa zen legedia nahastu eta zaildu besterik egiten ez zuten urteroko xedapen iragankorren bitartez–. Horiek dela eta, gomendagarria da erreserba kentzea, logikoa denez aldi iragankor bat ezarriz, aplikatzeko dauden zuzkidurak dauzkaten subjektu pasiboegi begira.

Egungo agertoki ekonomikoan, zeinak enpresen emaitzei begira izaera oso ziklikoa baitu, kon-

trapisuarena eginen duen tributu-tresna bat ezarri beharra dago. Hori dela eta, etekinak nibelatzeko erreserba sortzen da, zeinak muga batzuk izanzen baititu eta aukera emanen baitu kontabilitate-etekinanean ehuneko 10eko murrizketa egiteko (gutxieneko zenbatekorik gabe, egun inbertsioetarako erreserba, zeina kentzen baita, berezian gertatzen den bezala); horretarako, ordea, honako muga egonen da: ezin izanzen da gainditu enpresaren zerga-oinarriaren ehuneko 15a, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 41. artikuluko testuan zehaztuta datozen beste betekizun batzuk bete beharko dira.

Neutraltasun fiskala lortze aldera, oinarritzko bateraezintasun bat ezartzen da. Honakoan datza bateraezintasun hori: etekinak ez-banatzetik heldu den karga-tasa berezia aplikatzea erabakitzen duten subjektu pasiboek ezin izanzen dute beren zerga-oinarria murriztu emaitzen nibelaziorako mekanismo horren bitartez.

Halaber, enplegua sortzeagatiko kenkaria aipatu beharra dago. Eszeptikoak baldin bagara ere zerga-pizgarriak, berez, baliagarriak izateari buruz enplegu egonkorra eta lanaldi osokoa sortzeko, bistakoa da balizko etekinak ezin direla erdeinatu, aintzat hartuta, gainera, Nafarroak ez duela beste zuzeneko tresnarik (esate baterako, laneko legedia edo gizarte segurantzari buruzkoa) helburu hori erdiesteko. Iragarritako eszeptizismoa honako honetatik heldu da: ez da Foru Parlamentua enplegua sortzen duena, baina enplegu hori sortzeko baldintzak sustatzen dituena da, funtsezkoa den eginkizun hori sektore pribatuaren eskuetan utzita –izan ere, hari zuzentzen zaio lege hau–. Ikuspegi horren pean eta kontuan hartuta kenkariaren balizko kostuak foru erkidegoko diru-kutxek berehala xurgatuko dituztela, zeren eta kontratatutako pertsonak lan merkatuan sartuko baitira eta zergak (bai PFEZa, bai BEZa) ordainduko baitituzte, lege proposamen honek nabarmenki handitzen du kenkariaren kopurua, alderdi kuantitatiboan ez ezik, alderdi kualitatiboan ere, kontratazio mugagabea eta lanaldi osokoa sustatzen saiatuz lan merkatuan baztertuta izateko arrisku handiena duten pertsonentzat: gazteak, 45 urtetik gorako pertsonak eta, azkenik, generoko indarkeriak kaltetutako pertsonak, zeinek, normalean mendekotasun ekonomikoa pairatzen baitute.

Azkenik, eskema osoak ardatz du sozietateen gaineko zergaren ordainketarako zoru batzuk egotea, halako moduz non ez den gehiegizko alderik egonen karga-tasa nominalen eta karga-tasa errealean artean. Nafarroako Zerga Ogasunak emandako datu soziometrikoek erakusten dute, ordea, ez dela gertatzen lurralde komunekoa bezain han-

dia den urruntzerik, halako moldez non zerga honek Nafarroan duen presio fiskal efektiboa tributu-sistema modernoan parametroei egokitzen baitzaie. Hala eta guztiz ere, aurreko lerroetan aipatutako berritasun garrantzitsuak direla eta, arau bat ezarri da halako moldez non tributuaren kuota (murrizketak, kenkariak eta abarrekoak aplikatu ondoren) ezin izanen baita ehuneko 13tik beherakoa, salbu eta enplegua sortzen duten enpresen kasuan, non kargaren zorua ehuneko 10era iristen baita.

Ikuspegi orokor horrekin, aurkeztutako aldaketak aztertzen has gaitezke jada, baina lehenengo eta behin ohartarazita komenigarria eta beharrezkoa izanen litzatekeela Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko testu bategin bat egitea, ugari direlako 1996tik egin diren aldaketak eta orain ere aldaketa bat egiten zaiolako, hain zuzen ere proposatu diren guztien artean anbizio handieneko aldaketa.

Lehenengo, foru legeko 24. artikuluari testu berria ematen zaio, modu argiagoan ezartzeko ezin direla kenkari gisa onartu subjektu pasiboak egindako gastuak, diru-sarrerekin zuzeneko erlaziorik ez dutenean. Adierazpen orokor horrekin batera, kasu partikular batzuk ezartzen dira (adibide moduan eta ez modu exhaustiboan), non, segurtasun juridikoa lortzeari begira, ezartzen baita gastu batzuk ez direla kengarriak izanen. Horrekin batera, eta legezkotasun zorrotzeko arrazoiak tarteko, enpresen diru-irteeren kasua zabalitzen da, delitu edo falta bat egotearen ondoriozkoak direnean; halakoak kengarriak ez izateaz gainera, Foru Ogasunari betebeharrak gisa ezartzen zaio egitateak Ministerio Fiskalari jakinaraztea, nahiz eta jakinarazpen horrek ez dakarren berarekin subjektu pasiboa sarturik dagoen ikuskatze-prozedura geraraztea.

Bigarenik, lerrokada bat gehitzen zaio 25. artikuluari, tratamendu fiskal neutrala eman dakien enpresen berregituratzerako eragiketei, subjektu pasiboaren kredituak sozietate zordunaren akzio bihurtzen direnean. Horretarako, eskualdaketa merkataritza-balioa hartuko da kontuan, eta ez kreditu horrek enpresaren balantzean zeukan kontabilitate-balio garbia (orain kapital sozialeko partaidetza bihurtua).

Hirugarrenik, aurreko zergaldietan konpentsatzeko geratu ziren likidazio oinarrien kontua aztertzen da, eta murrizketa aplikatzeko epea gutxitzen da hamabost urtetik hamar urtera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 40.1 artikuluko testu berriari jarraituz. Halaber, xede berarekin, foru lege horren 40.3 artikulua aldatzen da, sortu berriak diren entitateei dagokionez; izan ere,

entitate horiek konpentsazio-epe bera izanen dute, baina berezitasun batekin: epe hori hasiko da kontatzen zerga-oinarri positiboak aitortzen diren lehenengo zergalditik.

Enpresen etekinen atoniak hondoa jo duela dirudien neurrian, ez dugu bidezkoz jotzen galarak konpentsatzeko hain epe luzea ezartzea, zeren eta bai Foru Ogasunerako, bai enpresentzat beraientzat zeharkako kostuak eragiten baititu. Bestalde, hori lagungarri gertatuko da enpresen berregituraketarako eragiketak sustatzeko eta haiei gardentasun handiagoa emateko, zeren eta kreditu fiskalen eskuraketa –adierazpide onartuena erabiltze aldera–, kasua bada, azeleratu eginen baita, xurgatutako enpresaren likidazio oinarrien konpentsazioa egiteko epea dela eta.

Aurrekoaren ondorio logikoa da finkatu beharra dagoela zer gertatuko den aldaketek indarra hartzen dutenean, hau da, 2015ko urtarrilaren 1ean, oraindik ere konpentsatzeko dauden likidazio oinarri negatiboak dauzkaten subjektu pasiboekin. Horri dagokionez, beste xedapen gehigarri bat, berrogeita zortzigarrena, gehitzen dugu, non hamar urteko gehieneko epe bat ezartzen baita zerga-oinarri positiboetan egiteko dauden murrizketak egiteko. Ildo horretan, kontuan hartu dugu, daukan garrantzi berezia dela eta, ezen, Ekonomia, Ogasun, Enplegu eta Industria Departamentuak ofizialki emandako datuen arabera, konpentsatzeko dauden likidazio oinarri negatiboak une hauetan 6.000 milioi euro ingurukoak direla.

Laugarrenik, foru legeko XI. kapituluko bigarren atala kentzen da, hain zuzen ere 42. artikulutik 47.era. Inbertsioetarako erreserba bereziari buruzkoak dira artikuluko horiek. Arrazoiak gorago azaldu ditugu eta haiek zehaztea baizik ez zaigu falta: zergako subjektu pasibo guztiek ezin era dezaketen erreserba bat da; exijitzen du inbertsioen jarraipena egitea, kualitatiboki zein denborari dagokionez, bai eta foru lege ia urtero aldatu behar izatea ere. Azkenik, izaera selektiboa dauka, eta horregatik zalantzazko gerta liteke estatuko laguntzen esparruari buruzko Europako antolamenduarekin bateragarria den.

Argi dago ezen proposatutako kenketak beharrezko egiten duela zehaztea zer gertatzen den lege honek indarra hartzen duenean murrizketak sortzen duen hornikuntza gauzatu gabe edo/eta haren zuzkidura egin gabe dauden subjektu pasiboekin (gogora dezagun, 2014ko zergaldia, zeina orokorra baita subjektu pasibo gehienentzat, 2015eko uztailen autolikidatutako dela). Ildo horretatik, testu berria ematen zaio berrogeita zazpigarren xedapen iragankorreko bigarren idatz-zatiari,

eta 2017ko urtarrilaren 1a jartzen da inbertsioak egiteko muga-egun gisa.

Bosgarrenik, etekinak nibelatzeko erreserba berezia zerga-oinarriko murrizketa gisa ezartzen da. Erreserba hori foru legeko 41. artikuluan jasota dago (hartara, legearen artikuluetan dagoen huts bat betetzen da, eta horrek berarekin dakar indargabetu den inbertsioetarako erreserba berezia erregulatzera bideratutako arauak kentzea); eta artikuluen lerrate bat gertatzen denez, beharrezkoa izanen da legeko artikulua berrantolatzea. Horixe eginen litzateke, baldin eta onartuko balitz Nafarroako Gobernuari testu bategina egiteko egin dugun proposamena, testu bategin horren bidez xedapen indardunak harmonizatze eta antolatze aldera.

Erreserba horrek ez du gutxieneko zenbatekorik izanen, eta entitateak lortutako etekinen ehuneko 10ekoa izanen da, behin kasua bada, legeen eta estatutuen arabera egin beharreko erreserbak zuzkituta. Hala eta guztiz ere, muga bikoitza dago: batetik, erreserbaren urteko zuzkidura ezin da izan zerga-oinarriaren ehuneko 15etik gorakoa; bestetik, aipatu erreserban metatutako saldoa ezin izanen da izan entitatearen ondare garbiaren ehuneko 20tik gorakoa. Hori lortze aldera, aipatu araua bideratu da kontzeptu hori zerga-eraginetarako definitzera. Alabaina, muga kuantitatiboak alde batera utzita, aipatutako erreserba justifikatzen duten eta hari zentzua ematen dioten beste material batzuk badaude. Erreserba ezin izanen da erabili bost urteko aldian –salbu eta epe horretan zerga-oinarri negatiboak aurkezten badira, eta kasu horretan ez dira konpentsatuko, eta eratutako erreserba gutxituko dute–, eta ezin izanen zaie aplikatu karga-tasa orokorrak edo bereziaz –enpresa txiki eta ertainen kasuan– besteko karga-tasak dituzten entitateei (hau da, foru legeko 50.1 artikuluan aipatutakoak, foru lege proposamen honen bidez hari ematen zaion testu berriaren arabera). Azenik, erreserba berri hori zuzkitu ahalko dute dibidenduak ez banatzea eta, horrenbestez, kasu horretarako ezarritako karga-tasa aplikatzea erabakitzen duten subjektu pasiboek, aukerarik izan ez dezaten xede desberdina duten bi onura fiskalaldi berean erabiltzeko.

Seigarrenik, karga-tasen aldaketa jasota dago foru legeko 50. artikulua testu berrian; oro har, tasa orokorra ehuneko 30etik ehuneko 28ra jaisten da, zuhertasunaren printzipio hutsarengatik, halako moduz non murrizketa handiagoa izan ahalko baita datozen ekitaldietan, Nafarroako ekonomia produktiboaren bilakaeraren arabera, betiere ekonomia horrek enplegua sortzen duen bitartean eta konpentsatzeko dauden likidazio oinarri negatibo-

ak xurgatu ondoren. Jada adierazia dugu ezen enpresa-etekinen presio fiskal handiagoa nahiz txikiagoa ez dela soilik neurtzen karga-tasaren arabera; bestalde, aldaketa garrantzitsuak egin dira jada likidazio oinarrian. Enpresa txiki eta ertainentzako berariazko tasei eusten zaie, bi alderdi bereizita: batetik, enpresa txiki eta ertainaren kontzeptuari eragiketen bolumenaren arabera eusten zaio (10 milioi euro); bestetik, jada aurreratu dugun bezala, 50.1 artikulua tasa progresiboak ezartzen ditu subjektu pasibo horientzat, etekinak, edo zehatzago esanda, likidazio oinarriak fakturazio-bolumenean egiten duen ehunekoaren arabera –izan ere, urkila batzuk ezartzen dira, ehuneko 21etik 24ra bitartekoak–. Gogora dezagun egungo tasa ehuneko 27koa dela. Tarte horretan kokatuta dauden entitate guztiak dira murrizketa nominal handienak izaten dituztenak; horren azalpena da, izan ere, haiek direla krisi ekonomikoaren eta haren albo-ondorioen parte okerrena eraman dutenak, eta, aldi berean, enpresa-etekinen oneratzarako eta enplegu-sorreraren motoreak izan behar dutela.

Mikroenpresen kasuan, halakotzat ulertuta milioi bat eurotik beherako eragiketa-bolumena dutenak, karga-tasa ehuneko 20ra gutxitzen da, betiere likidazio oinarriak fakturazio-bolumenaren ehuneko 10a gainditzen ez duen bitartean; bestela, enpresa txiki eta ertainentzat aurreikusitako tasen arabera ordaindu beharko dituzte. Erabateko berritasuna da hori gure tributu-antolamenduan, eta, beren dimentsioak direla eta, tratamendu fiskal hobea merezi duten enpresei egiten die onura.

Karga-tasa orokorraren murrizketarekin bat, era berean, 50.2 artikulua aldatzen da, halako moduz non hartan bildutako subjektu pasiboen karga-tasa ehuneko 25etik 22ra jaitsiko den.

Kapital aldakorra duten kapital-inbertsioko sozietateen zergapetzea tasa orokorrera aldatzen da; horretarako, 50. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Ez dira aurrezki produktiboko tresnak, ez eta enpresa jarduerakoak, enplegu-sorrerakoak edo berrikuntza teknologikoak ere; azken batean ehuneko 1eko tasa justifikatzen duen inongo baldintza ekonomiko edo sozialik ez dute betetzen. Kontuan izanda dakarten diru-bilketak eskasa dela eta foru lurraldean helbideratuta dauden SICAVen (kapital aldakorreko inbertsio-sozietateak) kopuru txikia dela, neurriak ez du garrantzizko eraginik Nafarroako Zerga Ogasunaren diru-kutxetan.

Garrantzi are handiagoa du 50.7 artikulua berriak, zeren eta berrikuntza bat baitakar aurreko sistemaren aldean ez ezik, gure inguruneko tributu-araubideen aldean ere. Erabateko foraltasuna

baliatu beharra dago proposamen zentzudunak, bideragarriak, berritzaileak eta beste sistema batzuetan eginiko erreformak berreste hutsezkoak ez direnak –salbu eta demostratzen denean haiek Nafarroan aplikatzea ona litzatekeela– aurkezteko.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 50.6 artikulua ehuneko 19ko karga-tasa ezartzen du (bateraezina etekinak nibelatzeke erreserba berezia aplikatzearekin) subjektu pasibo guztientzat, edozein dela ere haien eragiketa-bolumena, baldin eta beren akziodun edo bazkideei kontabilitate-emaizatik heldu diren etekinen banaketaren bidetik ez ordaintzea erabakitzen badute. Horrekin, enpresen auto-finantzaketa sustatu nahi da, bai eta haien balantzearen egitura indartzea ere, bereziki finantza-entitateen kredituak eskuratzeko zailtasun handiak dauden une batean. Agerikoa denez, karga-tasa hori dela eta arretaz jokatu beharra dago, aurrez aipatutako helburua lortu nahi badugu.

Horri dagokionez, murriztapenak honela labur litezke: a) banatu gabeko etekinek kontu bereziari zuzkidura eman zaion ekitaldi ekonomikotik edo zergalditik etorritakoak izan behar dute; b) kudeaketa arrazoiak tarteko (bai entitateentzat, bai Foru Ogasunarentzat), etekinak ez banatzeak eragina izan behar du ekitaldiko kontabilitate emaitzaren guztizkoan; c) etekinak banatu gabe izan baina etekin horiek tasa orokorra baino bederatzita puntu portzental gutxiagoko barneko karga-tasa duten kasuetan, entitateek ibilgetu materialeko edo ez-materialeko elementuetan inbertitu beharko dute hurrengo bost urteetan, eta inbertsio horri bost urtez eutsi beharko zaio, urte horiek eskuraketaren egunetik kontatzen hasita; d) horrekin batera, aukera ematen da beste enpresa batzuen kapitalen inbertitzeko, Burtsan kotizatzen ez duten bitartean, bai eta ekintzailtza jardueretan parte hartzeko ere; e) arauaren espirituaren eta haren xedearen aurkakoak diren jokabideak saihesteko, debekatzen da –karga-tasa bereziaz baliatu nahi bada– dibidenduenez bestelako sozietate-eragiketarik egitea, etekinen ezkutuko banaketa bat suposa dezaketenak; horren adibideak dira kapital-gehikuntza guztiz edo partzialki liberatuak, bai eta kapital-murrizketak ere, haien kariatara bazkide, akziodun edo partaideei ekarpenak itzultzen zaizkienean. Puntu honetara iritsita, zehaztu beharra dago sozietate-eragiketa haiek soilik debekatzen direla karga-tasa bereziari atxiki nahi zaioneko zergaldian lortutako etekinetatik heldu diren neurrian, eta ez da urratzen ez merkataritza-legedia, ez eta akziodunen edo enpresaren estatutu-organoen askatasuna ere, zeren eta erabakia organo horiei baitagokie guztiz.

Puntu honi amaiera emateko, aipa daiteke eragozpen bat jar daitekeela, esanez etekinak dibidenduaren bide orokorretik ez banatzeak berarekin ekarriko duela aurrezkiaren zerga-oinarria gutxitzea (baldin eta akziodunak PFEZa ordaindu behar duten pertsona fisikoak badira) edo sozietateen gaineko zergaren oinarriaren gutxitzea (baldin eta tributu hori ordaindu behar dutenak pertsona juridikoak edo entitateak badira). Eragozpen hori, ordea, erraz gera daiteke indarrrik gabe bi ingurubar direla eta: batetik, inbertsioen auto-finantzaketak saihestuko du banku-kreditura jo behar izatea eta, horrenbestez, finantza-gastuak gutxituko dira; horrekin, entitatearen zerga-oinarria handituko da; bestalde, entitatearen ondare-sentotzeak berarekin ekarriko du haren akzio edo partaidetzen balioak gora egitea, halako moldez non handiagoa izanen baita, bazkideen edo partaideen balizko eskualdaketa kasuan, PFEZa edo sozietateen gaineko zerga (zerga horren peko subjektu pasibo kasuan) ordaindu beharreko ondare-gehikuntza.

Zazpigarrenik, Sozietateen gaineko Foru Legeko 70. artikulua aldatzen da. Aldaketaren xedea da pizgarriak ematea euskarri fisikoko liburuak argitaratzeko inbertsioei ez ezik, euskarri informatikoei ere, argialetxeen merkatuaren bilakaera eta garai berrietara egokitu beharra direla eta. Halaber, Foru Komunitateko lurraldean egiten diren ekoizpen zinematografikoengatikoen kenkariak aldatzen dira, inbertsioetan eta errodajeen iraupean gutxieneko baldintzak betetzen direnean. Demostratu den bezala, erakusleho garrantzitsua dira Estatuko gainerako tokietan eta atzerrian Nafarroaren irudia ezagutzera emateko; huts-hutsean, *in totum* gisako berritasun bat baino gehiago, arauaren egungo testuan ageri den errealtate zinematografikoaren gaurkotze bat da. Ildo horretatik, Bizkaian antzeko neurri batzuk hartu dira, eta, halaber, aurreikusita daude sozietateen gaineko zerga aldatzeko Estatuak aurkeztu duen lege proiektuan, zeina onesteko fasean baitago. Agerikoa den bezala, ez dugu eredu frantsesaren aldeko hautua egin –kulturaren eta zinematografiaren esparruetan tributuaren bidea askoz ere gehiago aldeztu duena–, zeren eta eredu horrek orain aztergai dugun zerga ez ezik, BEZa ere hartzen baitu kontuan, eta tributu horretan, dakigun bezala, Nafarroak ez baitu eskumen substantiborik –bai formalak–, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera.

Zortzigarrenik, 71. artikulua aldatzen da, enplegua sortzeagatikoen kenkariari dagokionez. Modu eskematikoan, 4.200 eurotik 7.000 eurora igotzen da lanaldi osoko kontratu mugagabearekin kontratatutako langile finkoarengatikoen kenkaria. Minusbaliotasuna duten pertsonen kasuan, lege indardu-

nari jarraituz, lehen aipatutako baldintza berdinetan egindako kontratazioak 9.000 eurokoak izatera pasatzen dira (gaur egun, 6.000 eurokoak dira); eta, azkenik, aldaketa kuantitatiboak alde batera utzita, langabezi tasa handiagoa duten kolektibo batzuentzako –esate baterako, 25 eta 30 urte bitarteko langileak, 45 urtetik gorako pertsonak eta, azkenik, generoko indarkeriaren biktima diren pertsonak– gehikuntza bat ezartzen da, betiere kasuko inguruabarrak behar bezala frogatuta. Gehikuntza handia dela irudi lezakeen arren, kontuan hartu beharra dago konpentsatu egingen dela, pixkanaka, kontratatutako langileek PFEZa ordaindu beharko dutelako eta –agian, neurri handiagotan– errenta erabilgarri handiagoa lortuko dutelako eta kontsumo pribatua ustez handituko delako, neurri apal honekin tasa gutxitzea lortzen den heinean. Hala eta guztiz ere, ongi dakigu egungo lan merkatuak bi egitate dituela bereizgarri: batetik, lansari nahiko txikiak, kontratu mota guztietan; eta, bestetik, lan-harremana azkentzeko baldintzak gutxitu direla. Bestalde, Foru Ogasunak egiten duen ahaleginarekin bat, aipatutakoez gainera beste bi baldintza eskatzen dira: a) plantillaren gehikuntza kontatzearen eraginetarako, soilik kontuan hartzea soldata gordinean gutxienez ere lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 50 gainditzen duten pertsonak, eta b) aipagai dugun kenkarirako eskubidea ematen duen enpleguari eustea gutxienez ere hogeita lau hilabetez.

Bederatzigarrenik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 72.3 artikulua aldatzen da (eta horren hedapenez eta barneko komuntadura dela-eta 72.6. artikulua), zertarako eta jarduera jakin batzuk egiteko pizgarrietarako kenkariak ez izateko kuota likidoaren ehuneko 30ekoak baino handiagoak (gaur egun, ehuneko 35ekoak dira); bestalde, kuota nahikoa ez izateagatik kenkaria aplikatu gabeko kopuruei kenkaria aplikatzeko hamar urteko epeari eusten zaio.

Azkenik, foru legeko 72.8 artikuluan (artikulu berria, egungo legediaren arabera), zoru bat ezartzen da sozietateen gaineko tributuen ordainketan, halako moldez non, ehuneko 13ko gutxieneko karga bat ezartzen baita, tasa orokorraren, enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen tasa bereziaren eta laneko sozietate anonimoen eta kooperatiboaren tasaren menpean dauden entitateen kasuan; zoru edo gutxieneko hori ehuneko 10era jaisten da beren plantilla zergaldian gutxienez ere ehuneko 5ean handitzen duten entitateentzat, baldin eta gehikuntza hori lan kontratu mugagabeetan eta lanaldi osokoetan gauzatzen bada.

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

Lehena. 24/1996 Foru Legeko 24. artikuluari testu berria ematen zaio; hurrengoa, hain zuzen:

“24. artikulua. Zergetan kendu ezin diren gastuak.

1. Inolaz ere ez dira zergetatik ken daitezkeen gastuak hartuko diru-sarrerekin zuzeneko korrelazioan ez daudenak.

Bereziki, honako hauek ez dira kengarriak zergan:

a) Funts berekien ordainketa zuzena edo zeharkakoa direnak.

b) Sozietateen gaineko zergaren kontabilizazio eratorriak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.

c) Zigor eta administrazio isun eta zehapenak, premiamendu errenergua eta aitorten-likidazioak eta autolikidazioak epez kanpo aurkezteagatik errenergua.

d) Joko-galerak.

e) Dohaintzak eta eskuzabaltasunak, artikulua honen 4. zenbakian eta fundazioen eta babesletza jardueren tributu-araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean xedatutakoa deuse-tan kaltetu gabe.

Honako gastu hauek ez dira letra honen barrukoak izanen: bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoen ondorio direnak, ohitura eta azturen arabera enpresako langileekin egiten direnak, ondasunen salmenta edo zerbitzuen ematea sustatzeko zuzenean edo zeharka egiten direnak, ez eta diru-sarrerekin zuzenean erlazioatuta daudenak ere, artikulua honen 2. idatz-zatian ezarritako salbuespenekin.

f) Arau bidez, beren izaera dela eta, paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin zuzenean edo zeharka egindako eragiketei dagozkien zerbitzu gastuak, edo paradisu fiskal horietan egoitza duten pertsona edo entitateen bitartez ordaintzen direnak, salbu eta subjektu pasiboak frogatzen badu sortutako gastuak benetan egindako eragiketa edo transakzio bati erantzuten diola, arrazoi ekonomiko justifikatuengatik.

g) Zergaldian sortutako finantza gastuak, taldeko entitateekin diren zorren ondoriozkoak, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak formulatu beharra alde batera utzita, horien xede izanik taldeko beste entitate batzuei erostea edozein motatako entitateen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzak, edo taldeko beste entitate batzuen kapitalean edo funts berekietan ekarpenak egitea, ez badu behintzat subjektu pasiboak frogatzen arrazoi ekonomiko baliozkoak daudela eragiketa horiek egiteko.

h) Hartzaile bakoitzeko 1.000.000 eurotik gora-koak diren gastuak, nahiz eta zenbait zergalditan ordaindu, horien jatorria denean lan harremanaren amaiera, arrunta edo berezia, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 14.2.c) artikulua aipatzen duen merkataritza harremanarena, edo biena. Ondorio horietarako, sozietate talde berekoak diren beste entitate batzuek ordaindutako zenbatekoak konputatuko dira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ageri diren inguruabarrak izaten direnean.

i) Eroskeriak, funtzionario-eroskeriak eta entitateko edozein funts-irteera, delitu edo falta izan daitekeena. Horretarako, jarduleak egitateak kasuko fiskaltzari jakinarazi beharko dizkio, baina horrek ez du berarekin ekarriko gainerako ikuskapen-jarduketak geraraztea.

Nazioarteko zerga gardentasunari dagozkion xedapenak ez dira aplikatuko zergaren aldetik kengarriak ez diren gastuen errentei dagokienez.

j) Eskudiruzko ordainketei buruzko mugen araudian xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak (7/2012 Legea, urriaren 29koa, iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzekoa, 7. artikulua).

k) Gisa guztietako entitateen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzaren balio adierazgarrien kontabilitate-balioaren hondatzearen ondoriozko galerak”

24. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak kentzen dira eta testu berria ematen zaio oraingo 4. idatz-zatiari, zeina, koherentziagatik, 2. idatz-zatia izanen baita.

“2. Kengarriak izanen dira dohaintzan ematen diren ondasunen kopuru ordainduak eta kontabilitateko balioa, honako entitate dohaintza-hartzaileek berezkoak dituzten helburuen lorpenari aplikatu ahal bazaizkio:

a) Eskualdeko Industria Garapenerako Sozietateak.

b) Nafarroako federazioak, Espainiakoak, autonomia erkidegoen esparrukoak eta kirol klubak, Kiroleko Sozietate Anonimoek kirol jarduera ez-profesionalak sustatu eta garatzeko ematen dizkieten kopuruei dagokienez, baldin eta aipatu entitateen artean kostu bidezko kontratu-lotura ezarri bada, beharrezkoa dena kirol klub eta federazio horien helburua eta xedea betetzeko. Letra honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, orobat, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan ageri diren klubei.

Zenbaki honetan aipatzen diren eskualdaketez ez dute ekarriko entitate eskualdatzailearentzat errenta positibo edo negatiboaren lorpena, 33.1 artikuluan ezartzen direnena”.

Bigarrena. 25. artikuluari beste lerrokada bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“Kredituen konpentsazio bidez kapitala handitzeko eragiketak zergaren aldetik baloratuko dira handitze horrek merkataritza ikuspegitik duen zenbatekoaren arabera, kontabilitateko balorazioa zein den alde batera utzita”.

Hirugarrena. 26.1 artikuluari b) letra gehitzen zaio. Hona haren testua:

“Entitateei ekarritakoak eta kontraprestazioan hartutako baloreak, aurreko artikuluko azken lerrokan aurreikusitako kasuan izan ezik”.

Laugarrena. 24/1996 Foru Legeko 33.1 artikuluari hurrengo testua ematen zaio:

“33.1. artikulua. Ondare elementu bat edo zerbitzu bat, zergaren ondorioetarako, merkatuko balio normalean baloratu denean, entitate eskualdatzaileak, eskualdaketa zein zergalditan egiten den, haren zerga-oinarrian sartuko du balio horren eta eskualdatutako elementuen kontabilitate balioaren arteko diferentzia.

26.1 artikulua e) eta f) letretan aipatzen diren kasuetan, eskuratutako elementuek merkatuan duten balio normalaren eta entregatutakoek kontabilitatean duten balioaren arteko diferentzia sartuko da zerga-oinarrian, salbu eta eragiketa horrek akzio edo partaidetzen balio nominala aldatu besterik egiten ez badu, akziodunen partaidetzaren portzentajea aldatu gabe eta ekarpenen itzulketak gertatu gabe.

Zenbaki honetan xedatutakoa ezarriko da 26. artikuluan bazkideendako ezarri erregela bereziak aplikatzeko aukera deusetan kaltetu gabe.

Aurrekoa galarazi gabe, kredituen konpentsazio bidez kapitala handitzen den kasuan, entitate eskualdatzaileak bere zerga-oinarrian sartuko du kapital handitzearen zenbatekoaren (dagokion proportzioan) eta kreditu kapitalizatuaren balio fiskalaren arteko diferentzia.”

Bosgarrena. 24/1996 Foru Legeko 35. artikuluari hiru idatz-zati berri –8. 9. eta 10. idatz-zatiak– gehitzen zaizkio.

35 artikulua.

“8. Entitateen kapitalean edo funts berekietan izaten den partaidetzaren balore adierazgarriak eskualdatzean sortutako errenta negatiboak, baldin eta eskuratzailerak sozietate talde bereko entitate bat bada Merkataritza Kodearen 42. artikuluko irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra alde batera utzita, zergaldi honetan egotziko dira: balore horiek sozietateen taldetik kanpoko hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean, edo entitate eskualdatzaileak edo eskuratzailerak taldeko kide izateari uzten dionean.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko entitate eskualdatua iraungitzen denean.

9. Establezimendu iraunkor bat eskualdatzean sortutako errenta negatiboak, baldin eta eskuratzailerak sozietate talde bereko entitate bat bada Merkataritza Kodearen 42. artikuluko irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra alde batera utzita, zergaldi honetan egotziko dira: establezimendu iraunkorra sozietateen taldetik kanpoko hirugarrenei eskualdatzen zaienean, edo entitate eskualdatzaileak edo eskuratzailerak taldeko kide izateari uzten dionean.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko establezimendu iraunkorraren jarduera uzten denean.

10. Kita eta itxaroteen kontabilitate erregistroari dagokion sarrera, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea aplikatzearen ondorio baita, zordunaren zerga-oinarrian egotziko da, ondoren zor berak dakartzan gastu finantzarioak erregistratu behar diren heinean, eta betiere sarrera horren mugara bitarte.

Dena dela, aurreko lerroak aipatzen duen sarreraren zenbatekoa zor beretik datozen eta erregistratu gabe dauden gastu finantzario guztien zenbatekoa baino handiagoa bada, hark zerga-oinarrian izanen duen egozpena egingen da zergaldi bakoitzean erregistratutako gastu finantzarioen proportzioan, zor beretik datozen eta erregistratu gabe dauden gastu finantzario guztiei dagokienez.”

Seigarrena. Abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 40. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiei hurrengo testua ematen zaie:

40.1. artikulua.

“Zerga-oinarri positiboa murriztu ahal da, aurreko hamar urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboekin. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek.”

40.3. artikulua.

“Sortu berri diren entitateen likidazio oinarri negatiboek murriztu ahal dituzte jarraian datozen hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga oinarriak, denbora hori kontatzen hasita zerga oinarria positiboa ateratzen den lehenbiziko zergaldiaren hasieratik.

Ez dira zenbaki honetan sartuko enpresa-ondorengotza edo jarraipen kasuak.”

Zazpigarrena. Abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen XI. kapituluko bigarren atalari beste izen bat ematen zaio, “Etekinak nibelatzeko erreserba,” eta 41. artikulua aldatzen da:

“41. artikulua. Etekinak nibelatzeko erreserba.

1. Zergadunek beren zerga-oinarria gutxitu ahalko dute etekinak nibelatzeko erreserba berezi baten zuzkidurara bideratzen duten kontabilitate positiboaren emaitzari dagokion kopuruan, merkataritza-legediaren eta estatutu-xedapenen arabera libreki erabil dezaketen emaitza horren zatiaren ehuneko 10era bitarte, gehienez ere.

Artikulu honetan ezarritako aplikatzearen ondoriozko zerga-oinarriaren murrizketa ezin izanen da izan zergaldiko zerga-oinarriaren kopuruko ehuneko 15 baino handiagoa.

Halaber, etekinak nibelatzeko erreserba bereziaren saldoak ezin izanen du inoiz ere gainditu ondare garbiaren ehuneko 20, zergadunaren eragin fiskaletarako, halakotzat ulertuta artikulu honetako 6. puntuan finkatutakoa.

2. Artikulu honetan xedatuaren indarrez kendutako kopuruek zerga-oinarria handituko dute, baldin eta, etekinak nibelatzeko erreserba bereziko zuzkidura egin deneko kontabilitate-emaitza positiboaren kargurako zergaldiko azken egunaren ondoz ondoko hurrengo bost urteetan zergadunak zerga-oinarri negatiboa baldin bada, zerga-oinarri negatibo horren kopurura bitarte.

Baldin eta idatz-zati honetan ezarritako epea iragan bada zergadunak zerga-oinarri negatibo bat aurkeztu gabe edo artikulu honetan ezarritakoaren indarrez kendutako kopuruak guztiz aplikatu ahal

izateko kopuru nahikoa izan gabe, gainerako zenbatekoak aipatutako epea betetzen zen zergaldiko zerga-oinarria handituko du, eta aipatutako kopuruaren ehuneko 10eko zuzenketa positibo gehigarria egingen da.

3. Zergadunak ezin izanen du etekinak nibelatzeko erreserba bereziko saldoa erabili aipatutako idatz-zatian aipatzen den aldian, salbu eta zerga-oinarrian sartu diren kopuruei dagokienean.

Idatz-zati honetan ezarritakoa ez betetzeak honakoa ekarriko du berarekin: kopuru batzuek zerga-oinarria murriztu badute, eta kopuru horiek direla-eta ez-betetze batzuk gertatu badira, aipatutako kopuru horiek sartu beharko dira ez-betetzea gertatu den zergaldiko zerga-oinarrian, eta kopuru horiei ehuneko 5 gehituko zaie etekinak nibelatzeko erreserba bereziko zuzkidura egin deneko kontabilitate-emaiza positiboko zergaldiko azken egunetik iragan den urte bakoitzeko.

4. Foru lege honetako 50. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek eta enpresa txikiek ehuneko 5 igo ahalko dituzte artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako ehunekoak, eta artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan ezarritako baldintzak eta betekizunak ere bete beharko dituzte.

5. Foru lege honetako 50. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoez besteko karga-tasen menpeko entitateek ezin izanen dute inolaz ere aplikatu artikuluko honetan xedatutakoa, ez eta sozietateen gaineko zergan ezarritako araubide berezien menpean daudenez ere; horretan, salbuespena izanen da foru lege honetako X. tituluko VIII. kapituluaren araututako bateratze fiskaleko araubidea.

6. Murrizketa hori aplikatzeko, ondare garbitzat ulertuko da, eragin fiskalarako, zergadunaren funts berekiekin bat datorren zergaldiko azken eguneko balantzetik heldu den ondare garbiaren kopurua, Kontabilitate Plan Orokorreko Hirugarren Zatian ezarritako balantze-ereduak determinatzen duen bezala –plan orokor hori azaroaren 15eko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen–, hartatik ekitaldiaren emaitza kenduta.

7. Artikulu honetan aurreikusitako murrizketa bateraezina izanen da foru lege honetako 50. artikuluko 6. idatz-zatiak aipatzen duen karga-tasa aplikatzearekin.

Zortzigarrena. 24/1996 Foru Legeko 50. artikuluko 1., 2. eta 5. idatz-zatiak aldatzen dira; halaber, arau horretan beste idatz-zati bat, 7.a, gehitzen da:

50.1. artikulua:

“a) Karga-tasa, oro har, ehuneko 28koa izanen da.

b) Enpresa txiki eta ertainentzako karga-tasak honakoak izanen dira, haien likidazio oinarriaren arabera:

– 125.000 euro bitarte: ehuneko 21

– 125.001etik 250.000 euro bitarte: ehuneko 22

– 250.001etik 500.000 eurora bitarte: ehuneko 23

– 500.001etik 1.000.000 eurora bitarte: ehuneko 23,5

– 1.000.001 eurotik gora: ehuneko 24.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa gorabehera, ondare garbiaren ehuneko 20a gainditzen duen likidazio oinarriaren zatia dela eta, foru lege honetako 41.6 artikuluan xedatuari jarraituz finkatua, ehuneko 24ko tasaren arabera zerga ordainduko da.

Enpresa txiki eta ertainzat hartuko da ustiapen ekonomiko bat gauzatzen duena eta honako baldintza hauek betetzen dituena:

a) Aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia hamar milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikuluko definitzen duen bezala), negozio zifraren zenbateko garbia talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikuluko aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

Enpresak jarduera-adar nahiz enpresa-ondare osoa eskuratu badu, entitate eskuratzailaren negozio zifraren zenbatekoa zehazteko, entitate eskualdatzailaren zenbateko hori bera gehituko zaio, edo zergaldi horretan jarduera-adarrari zegokiona.

b) Aurreko a) letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren ehuneko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean

ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko funtsak edo sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta entitate horien xede soziala betezearen ondorioa bada partaidetza.

Ez dira inolaz ere enpresa txiki edo ertaintzat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarrean eta aldi baterako enpresa elkarrean araubide berezipeko entitateak.

Hala ere, b) letran xedatutakoa gorabehera, enpresa txikiaren izaera badu, aurre-aurreko ekitaldiko negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean karga-tasa ehuneko 20koa izanen da, sozietateen gaineko zergaren likidazio oinarria negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 10ekoa edo txikiagoa denean. a) azpiletran adierazitako kasuetan, milioi bat euroko zifra hori taldeko entitate guztiek osatzen duten multzoari aplikatuko zaio. Aurreko b) azpi-letran aipatutako kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren ehuneko 25 baino gehiago egotea, zuzenean edo zeharka, aurre-aurreko zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo txikiagoa izan duten entitateen esku."

50.2. artikulua:

"2. Ehuneko 23ko tasa ordainduko dutenak hauek izanen dira:

a) Aseguru orokorretako mutuak, gizarte aurreikuspeneko entitateak eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesionaletako mutuak, berauek araupetzen dituen arautegiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfinkapeneko sozietateak, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak araupetzen dituenak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta dauden horiek.

c) Kredituko Sozietate Kooperatiboak eta Kutxa Ruralak, emaitza kooperatiboez kanpo dagokienez izan ezik, tasa orokorra ordainduko baitute.

d) Lanbide elkargoek, enpresaburuen elkarteek, ganbera ofizialek eta langileen sindikatuek.

e) Irabazi asmorik gabeko entitate eta erakundeek, baldin eta legezko ordezkariak karguetan aritzen direnak doan aritzen badira eta dagokion organoaren aurrean erantzun behar badute, entitate horiek ez badituzte betetzen Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu araubideaz baliatzeko baldintzak.

f) 27/1984 Legearen, uztailaren 26koaren, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzkoaren,

22. artikulua izan den itzalpean sortutako lan sustapenerako fondoak."

50.5. artikulua:

"Ehuneko 1eko tasa ordainduko dutenak hauek izanen dira:

a) Finantza izaerako inbertsio-funtsak, Inbertsio kolektiboko instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak jasotzen baititu, baldin eta eskatutako partaideen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

b) Lege horretan araututako ondasun higiezinak inbertsio-sozietateak eta ondasun higiezinak inbertsio-funtsak, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatietan aurreikusitakoa baldin bada, eta, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, haien helburu eskusiboa edonola hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Zenbaki honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanen da aurreko lerrokadan aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea eskuratzen direnetik gutxienez hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek letra honetan ezarritako gutxienerako epea baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, c) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra duen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, errekarquak eta zehapenak.

Letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuetan dibidenduak ez banatzea ezarrita badago.

c) Ondasun higiezinak inbertsio-sozietateak eta ondasun higiezinak inbertsio-funtsak (azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen direnak), c) letran aipatzen diren betebeharez gain, bakar-bakarrik errentan jartzeko etxebizitzak sustatzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Ondasun higiezinetako inbertsioek, ondasun higiezinak sustatzeko jarduerari lotuak badaude, ezin gaindituko dute ondasun higiezinetako inbertsio sozietate edo funtsaren aktibo osoaren ehuneko 20a.

Bigarrena. Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jartzeko jardueran kontabilitate berezia eginen da eskuratu edo sustaturiko ondasun higiezin bakoitzeko. Beharrezkoa den xehaketa eginen da, hura zatiturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko, b) letran aurreikusiriko portzentajeari dagokionez aktibo osoko inbertsioak kontatu beharra deusetan galarazi gabe.

Hirugarrena. Ondasun higiezinetako inbertsio sozietate edo funtsek sustapenaren ondoriozko ondasun higiezinak errentan emanda edo eskainita eduki beharko dituzte zazpi urtez gutxienez. Epe hori eraikuntza bukatzen den egunetik aurrera kontatuko da. Ondorio horietarako, higiezinaren eraikuntzaren bukaera frogatuko da obrako azken ziurtagiriaren bidez, Eraikuntzaren Antolaketari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 6. artikuluan xedatu bezala.

Ondasun higiezin horiek letra honetan edo b) letran ezarritako gutxienerako epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitate beharturik egonen da, ondasuna eskualdatu zueneko zergaldiko kuotarekin batera, d) letra honetan aipatzen den araubidea aplikatzeko zeneko aurreko zergaldi bakoitzean ondasun higiezinari dagozkion errentei zergaldi bakoitzean indarra zuen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko aldea aplikatuz ateratzen diren zergak pagatzera, berandutze korrituak, errekaruak eta bidezko diren zehapenak deusetan galarazi gabe.

Ondasun higiezinetan inbertitzeko sozietate eta funtsek, etxebizitzak errentan emateko sustatuz gero, halaxe jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, jarduera hori hasten den zergaldian.

d) Hipoteka merkatua arautzeko funtsa, Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan ezarria”

50.7. artikulua:

“1. Sozietateen gaineko zergako subjektu pasiboek, baldin eta ekitaldiko etekinen kargura dibidenduak banatzen ez badituzte, kapital-handitze guztiz edo partzialki doakoak egiten ez badituzte edo kapital-murrizketak –bazkideei ekarpenak itzuliz– egiten ez badituzte, ehuneko 19ko karga-tasa izanen dute.

Karga-tasa horren aplikazioa bateraezina izanen da foru lege honetako 41. artikuluan aurreikusitako etekinak nibelatzeko erreserbarengatik murrizketarekin.

2. Karga-tasa horren menpean egoteko, subjektu pasiboek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) 1. idatz-zatian aipatzen diren dibidenduak zergaldiko emaitza sozialetatik heldu behar dira.

b) Banatu gabeko etekinak, zerga eraginetarako, “Banatu gabeko etekinak. Zergaldia”-izeneko kontu berezi batera eramanen dira, zein ekitaldi soziali dagozkion adierazita.

c) Aipatutako kontu berezia zuzkitu eta hurrengo bost zergaldietan, subjektu pasiboek zuzkitutako kopuruak enpresaren aktibo materialeko nahiz ez-materialeko elementuetan inbertitu beharko dituzte, eta eskuratu eta hurrengo bost urteetan ezin izanen dituzte eskualdatu. Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari erregelamendu bidez finka dezan inbertsioak zein aktibo zehatzetan gauzatu behar diren.

Halaber, subjektu pasiboek inbertsioa gauzatu ahalko dute enpresa-proiektu berri baten garapenerako hasierako etapako kapitalean parte hartuz, edo bestela, garapen fasean, hazkuntzarako ahalmen handia duten mikroenpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan. Inbertsioa eta esperientzia profesionalaz enpresaren kudeaketan parte hartzea batera egin ahalko dira, epe ertainean errentagarritasuna lortzeko, inbertsio-egile ez-formalak edo *business angels* deitutako figuren bitartez.

Halaber, subjektu pasiboek inbertsioa egin ahalko dute beraiek kapital sozialaren ehuneko 5 edo gehiago dauzkaten entitateen partaidetzak lehenengo merkatuan erosten, baldin eta entitate horiek ez badute kotizatzen bigarren merkatu antolatuan; jarduera, produktu nahiz merkatu berrien garapena, lehendik dauden beste batzuen zabalpena edo finkapena edo enplegu egonkorren sorrera dakarten enpresa-proiektu garrantzitsuak inplementatzen badituzte; parte hartutako entitatearen eragin fiskalitarako ondare garbiaren gehikuntza garrantzitsua inplikatzeko badute; eta ekin beharreko inbertsioen handitasunetik, berritasunetik nahiz arriskutik heldutako zailtasunak badituzte, kapital-merkatuetara iristearen ikuspuntutik. Nolanahi ere kasuko entitateak jarduera ekonomiko bat garatu beharko du eta haren plantilla 250 langiletik beherakoa izanen da.

Aurreko idatz-zatian jasotako kasuan, inbertsioa ez da izanen 100.000 eurotik gorakoa enpresa-proiektu bakoitzeko, eta kopuru hori gainditzen

baldin bada, joko da proiektu horretan 100.000 euro baizik ez direla gauzatu.

d) Aurreko idatz-zatietan aipatutako baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboek dagozkien tasen arabera zergak ordainduko dituzte, 50. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, eta autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, non beren tributu-egoera erregularizatuko duten, horrek sortzen dituen berandutza-interesekin”

Bederatzigarrena. 64. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

64. artikulua

“c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruetako bat gainditzea:

– Ibilgetu materialetan eta higiezin inbertsioetan lehendik zeuden kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 7,5, amortizazioak kenduta.

– Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate-balio guztiaren ehuneko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitate-balioa zehazteko, begiratuko zaio inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari, eta egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona ez da zenbatuko.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, baldin badaude, ofizialki onetsitako sektorekako planen kontu berean (hiru digitukoa) sartu dena edo sartuko dena.

Aurreko lerrokadan aurreikusten denaren ondorioetarako, foru lege honetako 17. artikulua hizpide dituen finantza errentamenduko kontratuen arabera erositakoak ere izaera bereko aktibo finkoetan sartuko dira”

Hamargarrena. 24/1996 Legeko 70. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

70. artikulua:

1. Seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik, euskarri fisiko edo informatikoa bideratuko duten liburu edizioetan egindako inbertsioek kuota likidoaren ehuneko 5eko kenkarirako eskubidea emanen dute.

2. Interes kulturalako ondasunetan eginiko inbertsioek eskubidea emanen dute urriaren 3ko 217/1986 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean berariaz eta banan-banan interes kulturalako Ondasun deklaratu diren ondasunetan eginiko inbertsioen kuota likidoaren ehuneko 10eko kenka-

ria egiteko, eta orobat Interes Kulturalako Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen zein Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen duen Inbentario Orokorrean sartutako ondasunen kasuan. Ondorio hauetarako, inbertsioztat joko dira Erregistroan inskribatutako interes kulturalakotzat deklaraturako ondasunak erosi, zaindu, konpondu, zaharberritu, zabaldu eta erakusteko erabiliko den diru-kopuruarri dagozkion gastu aktibagarriak.

3. Espainiako luzemetraien ekoizpenean, ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serietan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa bideratuko dutenek, kuota likidoaren ehuneko 35eko kenkarirako bidea emanen dute. Kenkariaren oinarria produkzioaren guztizko kostuak osatuko du, bai eta kopiak egiteko eta publizitate gastuetarako gastuek eta ekoizlearen kargurako sustapen gastuek ere, bi kasuetan produkzio-kostuaren ehuneko 50eko mugaraino.

Kenkari horretaz baliatzeko baldintza izanen da kenkari-oinarriaren ehuneko 35a Nafarroako lurraldean egindako gastuena izatea.

Baterako ekoizpenaren kasuan, idatz-zati honetan adierazitako zenbatekoak baterako ekoizle bakoitzak finkatuko ditu hartan daukan partaide-tza-ehunekoaren arabera.

Kenkari-oinarria gutxituko da kenkarirako esku-bidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoan.

4. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Enpresa Zinematografikoen Erregistroan izen emanda dauden ekoizleek, film luze zinematografikoen ekoizpenaz edo seriean eginiko ekoizpen industrialaren egin baino lehenagoko euskarri fisikoa egiteko modua ematen duten ikus-entzunezko obren ekoizpenaz arduratzen direnek, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria aplikatzeko.

Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenean, gutxienez ere astebeteko errodajea egin beharko da Nafarroako barnealdeetan edo kanpoaldeetan, 250.000 euroko gutxienezko gastuarekin ekoizpen nazionalen kasuan, eta 500.000 euroko gutxienezko gastuarekin atzerriko ekoizpenen kasuan.

Kenkariaren oinarria Nafarroako lurraldean egin eta ekoizpenarekin zuzeneko lotura duten honako gastuek osatuko dute:

7. Artikulu honetan aurreikusitako kenkariak foru lege honen 72. artikuluan 6. idatz-zatiko

hirugarren lerrokadan aipatzen diren mugen pean egonen dira.

8. Kenkari hauei atxikitako subjektu pasiboak, nolana ere, foru lege honen 72.8 artikuluan xedatuaren pean egonen dira.”

Hamaikagarrena. 24/1996 Legeko 71. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“71. artikulua. Kenkaria, enplegua sortzeagatik.

1. Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 7.000 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan. Horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hamabi hilabeteen kontratu mota hori zuen plantillaren batez bestekoa. Jotzen da sortu berri diren entitateek besteren konturako zero langile izan dituztela eratu aurreko aldian.

Plantillan izan den batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona dauden urtean lan-kontratu mugagabearekin eta lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 50etik gorako soldata gordinarekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen araberako proportzioan kontatuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari legoiokeena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 3.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, aurreko lerroaldean aipatu kenkaria eginen da aipatu den gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez besteko murrizketaren arteko diferentzia positiboaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako kenkariak 8.000 eta 3.500 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, hurrengo baldintzetako bat betetzen duten langileen batez besteko plantillan gehitutako pertsona-urte bakoitzeko:

a) 45 urte baino gehiago dituzten langileak.

b) 25 eta 30 urte bitarte dituzten langileak.

c) Generoko indarkeriaren biktima izan diren langileak, edozein dela ere haien adina, inguruabar hori sinesgarriro frogatzen baldin badute.

4. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 9.000 eta 4.000 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, urtean kontratatzen den langile minusbaliatu bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatu, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

5. Kenkari horretaz baliatzeko, aurreko baldintzez gainera, exijituko da plantillaren gehikuntzari eustea zergaldia amaitu eta hurren hogeita lau hilabeteetan.

Hamabigarrena. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 24/1996 Foru Legearen 72.3. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

72. artikulua

“3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak ezin izanen dute osotara gainditu honako hau: barneko eta nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkarietan eta hobarietan kuota osoa murriztearen ondoriozko kuota likidoaren ehuneko 30a, salbu eta 66. artikuluan araututakoa, zeinak kuota likido osoa xurgatu ahalko baitu.

Kuota aski ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatu ahalko dira, muga bera errespetatuz, hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak egiaztatu beharko du, dagokion moduan, kontabilitatea eta behar diren dokumentuak erakutsiz, kenkariaren jatorria eta zenbatekoa, sortu direneko zergaldia edozein dela ere.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa emaitza positiboak lortzen diren lehenengo zergaldira arte geroratu ahalko da, kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Baliabide berriak modu efektiboan emanez aurreko ekitaldietako galerak saneatzen dituzten entitateetan –halakotzat hartu gabe ez erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa, ez eta foru lege honetako 50. artikuluko 6. idatz-zatian aipatzen diren etekin banatu gabeen aplikazioa–”

Hamahirugarrena. Abenduaren 20ko 24/1996 Foru Legeko 72.6. artikuluko bigarren lerrokada aldatzen da.

72.6 artikuluko bigarren lerrokada.

“Ondotik, aurreko 3. zenbakian ezarritako muga aplikatu dakiekeen zergaldiko kenkariak gauzatzeko dira, baldin eta aurreko lerrokadako kenkariaren eta horien artean, osotara, ehuneko 30eko muga gainditzen ez bada”.

Hamalagarrena. 72. artikuluar 8. idatz-zati berri bat gehitu zaio, testu honekin:

72. artikulua

“8. Baldin eta subjektu pasiboek 50.1. artikuluan eta 50.7 artikuluan ezarritako zerga-tasak aplikatzen badituzte, zerga-oinarrian aplikatu beharreko murrizketek –etekinak nibelatzeko erreserbari eta aurreko zergaldietako likidazio oinarri negatiboak– eta 63, 64, 65, 66, 69, 70, 70 quáter eta 71. artikuluetan ezarritako kuota-kenkariak ezin izanen dute emaitza gisa eman kuota likidoa txikiagoa izatea zerga-oinarria ehuneko 13a aplikatuta ateratzen den kopurua baino, betiere kopuru horri kenduta 58. artikuluan ezarritako hobaria eta titulu honetako III. kapituluko barneko eta nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak.

Aurreko lerrokadan ezarritako portzentajea ehuneko 10a izanen da, baldin eta subjektu pasiboak zergaldian gutxienez ehuneko 5 handitzen badu plantillan lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta. Gehikuntza horri zergaldia amaitu eta hurrengo 24 hilabeteetan eutsi beharko zaio”.

Hamabosgarrena. 167. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, D) letra. Testu hau izanen du:

167.1. artikulua

“D) Bere xede sozialaren garapen gisa sortzen dituzten enpresek zergak soilik Nafarroari ordaintzea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legeko 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera”.

Hamaseigarrena. Abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko berrogeita zazpigarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiari testu berri ematea:

Berrogeita zazpigarren xedapen iragankorra.

“2. 2015eko urtarrilaren 1era arte indarra zuen 24/1996 Legeko 42. artikuluan aipatzen zen inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea 2012an, 2013an edo 2014an bukatu bada, subjektu pasiboek 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatu ahalko dute erreserba hori.

Hamazazpigarrena. Xedapen iragankor berri bat, berrogeita zortzigarrena, gehitu da. Testu hau izanen du:

“Berrogeita zortzigarren xedapen iragankorra.

2015eko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldia-aren aurrekoan aplikatzeko zeuden kenkariak ondoz ondoko hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahalko dira, 72.6 eta 72.8 artikuluetan ezarritakoa aplikatuz.

Halere, ez dira kenkariaren xede izanen aurreko lerrokadan aipatzen den datan ordaindu gabe dauden zenbatekoak, betiere, bertan aipatzen den hamar urteko epea iragan aurretik, sei urte baino gehiago iragan badira sortu ziren egunetik”.

Hemezortzigarrena. Xedapen iragankor bat gehitzen da, berrogeita bederatzigarrena:

“Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Murrizketa egiteke dauden likidazio oinarri negatiboak, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkienak.

2015eko urtarrilaren 1ean hasten den zergaldiaren aurrekoan konpentsatzeko dauden likidazio oinarri negatiboek murriztu ahalko dituzte xedapen iragankor honek indarra hartu eta hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarri positiboak”.

Hemeretzigarrena. Xedapen iragankor bat gehitzen da, berrogeita hamaikagarrena. Hona testua:

“Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Zerga-tasaren aldaketaren ondorioz aplikatzekoa izanen den aldi baterako araubidea.

Subjektu pasiboa zerga-ordainketa aritu bada egiten karga-tasa orokorraren arabera, aukera izanen du 2014ko abenduaren 31n indarrean den zerga-tasa (% 30) aplikatzeko. Aukera hori erabiliko dela Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio, 2014ko zerga-aitorpena egiteko epean. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari aukera horri uko egin zaiola jakinarazi aurretik amaitzen diren zergaldietan, % 30eko zerga-tasa aplikatuko da”.

Lehenengo xedapen indargabetzailea.

2015eko urtarrilaren 1eko eraginekin, indarrrik gabe uzten dira abenduaren 30eko 24/1996ko Foru Legeko 42. artikulutik 47. artikulura, biak barne.

Bigarren xedapen indargabetzailea.

2015eko urtarrilaren 1eko eraginekin, indarrrik gabe uzten dira abenduaren 30eko 24/1996ko

Foru Legeko 66. bis, 68, 68. bis, 70. bis eta 70. ter artikulua.

Azken xedapena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 21.2 artikuluan xedatuari jarraituz, gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina egin dezan, soilik haren artiku-luak berrantolatuz eta, kasua bada, behar diren komuntadurak eginez.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olai-zola eta Patxi Leuza García jaunek Foru Lege pro-posamena aurkeztu dute, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamen zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekre-tuaren bidez onetsia.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Per-sona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekaina-ren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia

ZIOEN AZALPENA

PFEZa edozein zerga-sistema modernoren zerga paradigmatikoa da, eta daukan egitura dela-eta, bertan isla daitezke modu nabarmenenean ahalmen ekonomikoaren printzipioa eta gehikortasunaren printzipioa; zeharkako zergek, ordea, halako erresistentzia bat badute azken printzipio hori jasotzeko. Bestalde, zerga subjektibo prototipi-koa da, zeren eta bertan islatu behar baitira zerga-dunen inguruabar pertsonal eta familiarak, horiek zergapean jartzen den errentan eragina duten

neurrian. Hala eta guztiz ere, subjektibo bihurtze hori zenbait prozeduraren bitartez lor daiteke, guz-tiz antolamendu juridikoaren arabera eta doi-tuak, halako moduz non haien hautapena ez baita kontu aseptiko edo tekniko bat, sinestarazi nahi den bezala, zeren eta borondate politiko jakin bat erakusten baitu. Funtsean, bi modu daude zerga-dunaren inguruabar pertsonal eta familiarak ezagutzeko: batetik, zerga-oinarriaren murrizketen mekanismoaren bidez –horrek, zergaren gehikortasunean daukan eraginarekin, zeren eta murriz-keta horiek zergapetze-tasaren marjinala ukitzen baitute–, eta, bestetik, kuota-kenkariaren teknikaren bitartez (azken horiek zergaren gehikortasuna errespetatzen dute). Gure foru PFEZean bi alderdi horiek ezagutu dira, eta horrek erakusten du siste-ma bat ala bestea hautatzea guztiz balioduna dela gure antolamendu juridikoan. Beti bezala, Foru Parlamentuari dagokio hautatu beharreko eredia erabakitzea.

Gure aldetik, jada aurreratzen dugu erreforma adierazitako bi ildoetatik bigarrenaren arabera eta dela, halako moduz non horrek ekarriko baitu liki-dazio oinarri orokorraren zergapetze-tasa alda-tzea, zerga-kuotaren gainean gerta daitezkeen eraginak zuzentze aldera, betiere zergadunen egiazko zerga zama arintzeari begira.

Agerikoa denez, arintze hori ezin da neurtu tarifaren alderaketa soilaren bitartez, zeren eta zergaren eredia eta egitura muturretik aldatzean, antzua, eta are alferrekoa ere, gertatzen baita gure inguruneke zerga-sistemekiko alderaketa oro.

Bestalde, zerga horretan errota da gehien honako ideia hau: Nafarroako herritarrek 2015ean ordaindu beharko dute gure inguruko zerga-siste-metako herritarrek ordaintzen dutenaren antzeko kopuru bat, zeren eta, bestela, gertatuko bailirate-ke konparaziozko bidegabekeria bat, Hitzarmen Ekonomikoaren azpi-erabilera bat eta kontsumorako nahiz bestelako aldagai ekonomikoeta-rako diru-transferentzien gabezi bat.

Idea horiek bi zehaztaperen eskatzen dituzte: alde batetik, PFEZaren arloan Nafarroak daukan eskumen osoak erabili behar dira zerga zuzen eta gehikor bat diseinatzeke, ahalmen ekonomikoa errespetatu bai baina kontuan hartuko duena –beste zerga-figura batzuekin batera, zeinak, ezin baititugu arautu, nola baita BEZaren kasua– Foru Komunitateko gastu publikoa, halako moduz non

Nafarroak bere Parlamentuaren erabakien bitartez bere buruari eman dion zerbitzu publikoen maila beste lurralde batzuetakoa baino handiagoa bada, aukera beste modu batera planteatu beharko baita, zeren eta zergak ez baitira bere buruan amaitzen den xede bat, baizik eta gastu publikoari estaldura emateko tresna bat. Azken batez, ez da soilik alderatu beharko PFEZaren bidezko zerga-zama erlatiboa, baizik eta, baita ere, horrek Nafarroako diru-bilketan daukan garrantzia eta biztanle bakoitzeko gastu publikoaren maila, beste erkidego batzuekin alderatuta.

Bestalde, berrogeialdian jarri beharra dago termodinamikari buruzko lege bat bailitza baliozkotzat eman nahi den axioma ekonomiko bat: Baldin eta Nafarroak PFEZa dela-eta dagoen presio fiskala jaisten badu, horrek ekarriko du zergadunek errenta erabilgarri handiagoa edukitzea, eta horrek kontsumoaren areagotzea ekarriko du; eta horrekin, PFEZaren bidetik diru-bilketan gertatuko litzatekeen ustezko galera berdindu egingen litzateke BEZaren bidezko diru-bilketari esker. Egungo egoera ekonomikoan, errenta erabilgarri handiagoa edukitzeak, PFEZa gutxitzearen eraginez, hiru xede izan ditzake, eta ez bakarra; horrenbestez, aurreikusten zaila da diru-bilketaren galeratik zenbat konpentsatuko litzatekeen kontsumoaren bitartez. Izan ere, oso modu eskematikoan adierazita, errenta baliagarri handiagoa edukitzeak hiru xede izanen litzuke, zergadun motaren arabera:

a) Norbanakoen eta familien zorpetze handiagoa, nola frogatzen baitute finantza-entitateen eta entitate publikoen datu eta estatistikek.

b) Aurrezkoa, hasi berria den gure berronertzearen inguruan dauden zalantza ekonomikoak kontuan hartuta eta, batez ere, kontuan hartuta laneko errentak lortzen dituzten zergadunetatik (PFEZaren bidezko diru-bilketaren % 87 egiten dute) gehienek kezka dutela daukaten kontratu motarengatik (lanean hasi berritako pertsonen kasuan) edo lan erreformaren ondorioengatik eta ondorio horiek kaleratzeak direla-eta ekarriko duten malgutasun handiagorengatik, baita kontratu mugagabea dutenen kasuan ere.

c) Soilik hirugarren maila batean, eta ezin zehatz ditzakegun proportzioetan, ageri da errenta baliagarria kontsumora bideratuko litzatekeela. Bide batez, esan behar dugu kontsumoak datu kezkarriak ematen dituela oraindik gure erkidegoan.

Nolanahi ere, errenta baliagarriaren balizko banaketaren eskema labur honekin, agerian jarri nahi dugu ezen talde politiko batzuek abiapuntutzat duten premisa ez dela axioma enpiriko bat,

eta zehaztu egin beharra dagoela, zeren eta PFEZaren zerga-zamaren gutxitzeak askatutako errenta guztia ez baita kontsumora bideratuko eta, horrenbestez, ezin baitugu lekualdatze errazegi bat egin: zuzeneko zerga baten bidezko diru-bilketatik txikiagoak BEZaren bidezko diru-bilketako ehu-nekoari buruzko kalkulu handiagoa ekarriko du.

Erreformaren beste alderdi garrantzitsu bat da nolako zerga-eredua nahi den, egin nahi diren ukitu kosmetiko hutsez haratago, azken horiek ez baitute konponbiderik emanen sakoneko arazoei. Azalpenaren lehenengo atalean zergaren subjektibo bihurtzearen aukera zehatzari buruz ari baginen, oraingoan zerga eredu sintetikoaren ala eredu analitikoaren arteko hautaketari buruz arituko gara. Laburki bada ere, aipatuko dugu eredu sintetiko batean, errenta guztiak elkarren artean integratzen eta berdintzen direla, haien jatorria zein den ere, eta gehikortasuna duen tarifa bakarrean biltzen direla; eredu hori izan zen 1978tik 1992ra Nafarroan erabili zena, orain azaltzeko beharrik ez dagoen xehetasun askorekin. Azken urte horretan, izan ere, eredu analitiko batera pasatu zen, non errentak beren jatorriaren arabera deskonposatzen baitira (lana, kapitala –higigarria eta higiezinena– eta ondare-gehikuntzak eta murrizketak) eta arau bereziak ezartzen baitira errenta bakoitzari dagokion zerga-oinarriaren zatia osatzeko; hortik aurrera, berriz, errenta-iturri bakoitzari tratamendu desberdina ematen zaio, halako moduz non zerga-oinarria deskonposatuta ageri baita. Hori areagotu egin zen likidazio oinarri orokorraren eta aurrezkiaren likidazio oinarriaren arteko banaketarekin, honako berezitasunarekin: bietatik soilik lehenengoari aplikatzen zaio tarifa gehikor bat; bigarrenari, ordea, karga-tasa proportzionalak ezartzen zaizkio, zenbatekoaren araberrako gehikortasun arin-arin batekin.

Berez, horrek berarekin dakar lege-gorputz beraren barruan bi zerga egotea: batetik, lan etekin gainerako zerga bat (funtsezkoa, nahiz eta eskusiboki) eta beste zerga bat gainerako errenten gainerako (kapitala eta ondare bidezko irabazkiak). Eredua lehengoratzea ezinezkoa da une hauetan, zeren eta Europar Batasunean sartuta egoteak eta inguratzen gaituzten zerga-sistemaren esperientziak eragozten baitute trabak ezartzea kapital-mugimenduen askatasunari, batetik, eta, bestetik, zergadun jakin batzuen kasuan ohiko egoitza foru lurraldetik migratzeko eragina sorbailteke. Hoberena maiz onaren etsai denez eta pragmatismoz jokatuta, formula tekniko egokiagoak ezarri beharko dira zertarako-eta, gutxienez ere, laneko errentak positiboki diskriminatuzko, zeren eta horiek baitira tratamendu okerrean jasaten dutenak, beste batzuekin alderatuta, zenbatekoa

finkatzerakoan ez ezik, tarifa gehikorra aplikatzeko orduan ere. Are gehiago, kontuan hartu beharra dago Nafarroako Zerga Ogasunarentzat kontrolatzen errazenak diren errentak direla, zeren eta haietan atxikipeak egiten baitira; eta beste errenta batzuetan ere zerga-betebeharrak egoteak ez dio indarra kentzen baieztapen horri.

Adierazi dugun bezala, PFEZaren erreforma integralari ekiteko garaia da, zergadunen arteko birbanaketa hobea, tarifen gutxitzea eta zerga-oinarri zabalagoak izatea lortze aldera. Badakigu hiru printzipio horiek bateragarri egitea ez dela lantegi erraza, baina horretarako daukagu Hitzarmen Ekonomikoa eta Nafarroari buruzko ezagutza, zeinak eginkizun horretan gidatu behar gaituzten parametroak baitira.

Aitzinsolas honen ondoren –luzea da, agian, baina beharrezkoa–, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko Testu Bategin indarduneko artikuluetan proposatzen ditugun aldaketak kasuan kasu justifikatzen dituzten arrazoiak azalduko ditugu, kontuan hartuta testu hori zerga-sistema bereki eta barnetik konektatu baten esparruan dagoela; horrenbestez, proposatutako aldaketek aipatutako sistemako beste zerga batzuetan izan ditzaketen ondorioak ere jaso ditugu. Horri dagokionez, aldaketak justifikatuko ditugu foru lege proposamen honen zati xedatzaileen agertzen diren ordenan.

Hartara, 7.r) artikulua testu berriak bilatzen du minusbaliotasuna duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuen erosketarengatik salbuespenari eustea, baina kopuru-muga bat ezarri; izan ere, muga horren indarrez, salbuespenik ez da aplikatuko subjektu pasiboaren likidazio oinarria 60.000 eurotik gorakoa denean. Beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, bateragarri egin behar dira zenbait kolektiborentzako babes fiskala eta pertsona horien errealitate ekonomikoa, eta zergen arloko zuzentasunaren ikuspuntutik, ez dirudi mugagabeko salbuespenak zentzurik duenik.

Bestalde, PFEZari buruzko Foru Lege indarduneko 15.2e) artikulua ezabatzen da, enplegatuen seme-alaben hezkuntzarako baimendutako ikastetxeek ordaindutako kopuruak gauzazko errenta gisa ez hartzea kentzeko. Zergen arloko zuzentasunaren ikuspuntutik justifikaziorik oinarritzakoa ere falta du, zeren gauzazko errenta bat baita, askotan kontratu jakin batzuetarako hitzartutakoa; gainera, honako paradoxa ere gertatzen da: araua gaur egun erredaktatuta dagoen moduan, enpleguarentzako edo ezkontide nahiz bikote egonkorarentzako –ez ondorengoarentzako– prestazio bat balego, laneko gauzazko errentatzat hartuko litzateke. Bestalde, eta hori gehikortasuna-

ren aurkakoa da, egungo arauak ez du enpleguaren errentaren araberako bereizketarik egiten, halako moduz non errenta handiagoak –esate baterako, 80.000 eurokoak– dituzten gurasoek sasi-salbuespen horren onura hartuko bailukete. Eta argudio gehiegi ez emateko, azkenik nabarmendu nahi dugu ez dela exijitzen ikastetxearen helbidea Nafarroakoa izatea, ez eta ikasketak Foru Komunitatean egitea ere.

17.2.a) artikulua proposatzen den testu berriak beharatu egiten du, alde batetik, % 40tik % 30era laneko etekinengatik murrizketa, haiek sortzeko aldia bi urte baino handiagoa denean edo irregularizat kalifikatzen direnean, baina egungo testuari eusten dio (eta ez Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorritako lege proiektuaren proposamenari) murrizketa kalkulatzeko moduari dago-kionez, etekin horiek denboran zehar modu zatikatuan lortzen direnean. Azkenik, lan- edo merkataritza-harremana azkentzeko kasuan, etekin irregularizat jotzen den zenbatekoa 300.000 eurotik 180.000 eurora aldatzen da; murrizketa hori, aurrez, izaera orokorrez ezartzen da.

Testu Bategineko 18.1 artikulua kasuan, c) eta d) letrei eusten zaie, langileen sindikatu-afiliazioko gastuengatik eta defentsa juridikoko gastuengatik kenkaria bideratzeko. Bigarren kasuan, 300 eurotik 1.000 eurora igotzen da defentsa juridikoaren kontzeptuan ken daitezkeen gastuen gehienekoa.

Zentzurik ez du eta laneko etekinen zehaztapenean are distorsio handiagoa dakar gastu horiek kuotako kenkari bihurtzeak (Nafarroako Gobernuak aurkeztutako foru lege proiektutik eratoritzen denez), etekin osoak lortzeko beharrezkoa den gastutzat hartu beharrean. Distorsioa gertatzen da zeren eta, enpresaburu edo profesionalen kasuan, beren interesak defendatzeko erakunde jakin batzuetan afiliatzea gastu kengarritzat jotzen baita; horrenbestez, arrazoizkoa dirudi zerga-tratamendu bera eman dakiola. Bestalde, gogoan eduki beharra dago ezen, laneko etekinen kasuan, gastu kengarriak tasatuta daudela, halako moduz non, *stricto sensu*, ezin baitira kendu etekin osoak lortzeko beharrezko direnak. Hala eta guztiz ere, kasuistika (joan-etorrietako gastuak, mantenu-gastuak eta abar) hainbestekoa zen eta hainbestekoa da non puntu horretan egungo araudiari eustearen alde egin baita; *de lege ferenda* eta sinpletasunaren mesedetan, planteatu liteke ehuneko finko bat ezartzea justifikatzen zailak diren gastuen kontzeptuan.

32.2 artikulua aldaketak bilatzen du koherentzia bat ezartzea laneko etekin irregularretarako proposatu den erregulazioarekin, kontuan

har dadin kopuru horiek modu zatikatuan jasotzen diren (halako moduz non egungo testuari eutsiko zaion, foru lege proiektuan proposatzen den testuaren kaltetan). Bestalde, 300.000 eurotik 180.000 eurora murrizteak zentzu handiagoa du lan etekinen kasuan baino, zeren eta praktikan zail gertatuko baita kopuru hori gainditzen duten zergadunak aurkitzea; praxia alde batera utzita, etekin irregularren mota desberdinen arteko barnekoherentziari eutsi behar zaio.

Bestalde, 34.6 artikulua testu berriak aurrekoaren funts bera dauka, eta horregatik ez gara geratuko hura justifikatzen, eta aurreko lerrokadan adierazitakora jotzeko eskatzen dugu.

35.8 artikuluko testu berriak eta zuzeneko zenbatespen erraztuaren araupetzeak ez du aldaketa handirik izan, salbu eta bi alderditan, bata formakoa eta bestea kuantitatiboa. Aldaketa formala da muga kuantitatiboa foru legean ezartzen dela, ez erregelamendu mailako arauetan; horrek eragiten du maila horretan gelditzea, eta, bestalde, zalan-tza batzuk argitzen ditu lege erreserbaren printzipioari lotuta egoteari ala ez egoteari dagokionez. Bere aldetik, aldaketa kuantitatiboak 600.000 eurotik (PFEZaren egungo erregelamenduaren arabera) 300.000 eurora jaisten du zuzeneko zenbatespenaren azpi-arabide honi lotuta egotea dakarren negozio-bolumenaren kopurua. Horri dagokionez, iruditzen zaigu enpresa- nahiz lanbide-jarduerak garatu eta 300.000 eurotik gorako fakturazio-bolumena duen pertsona fisiko batek bere zerga-oinarria arabide orokorraren arabera finkatu behar duela. Bestalde, azken lerrokadak ahalmena ematen dio erregelamenduari zenbait gastu kopuru finko baten arabera edo forfait erara kalkula daitezen.

Bestalde, 36. artikulua aldaketarako arrazoi batzuk badaude. Lehenengoa formala da eta foru legera eraman nahi ditu –erregelamendu bidezko garapenerako utzi beharrean– muga kuantitatiboa eta eta beren oinarria zuzeneko zenbatespenaren arabidearen arabera finka dezaketen produkzio-sektoreak. Bestalde, ikusita konstatatzeko modukoa den proportzio gabetasuna dagoela, Nafarroako Gobernuak emandako datu soziometrikoen arabera, zenbatespen objektiboko araubideko zeinu, adierazle eta moduluen aplikazioaren eta zuzeneko zenbatespeneko arabidean aitortutako likidazio oinarriaren artean (2011. eta 2012. urteetan), proposatzen dugu legean murriztea (eta ez erregelamenduan eta are gutxiago foru agindu batean) negozio-bolumenaren zenbatekoa, hura soilik enpresaburu txikientzat edo profesionalentzat utzita, edo bestela, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten nekazari eta abeltzaintzat.

Bestela, nahiz eta zalantzazkoagoa den, zeren eta de facto Nafarroako Gobernuaren eskuetan utziko bailuke zerga-oinarriaren zehaztapena, legezko erreserbaren printzipioa urratuta, aukera legoke zeinu, adierazle edo moduluak igotzeko, etekin ekonomikoaren errealitatea ez dadin hain urrun egon zerga-arabidearen aplikaziotik ondoriozta daitekeenetik.

Gainera, oraindik ere artikulua berean, 6. erregela kentzen da (ebaluazio orokorrak gogorazten ditu, zeinak 1978an kendu baitziren gure zerga sistematik eta errege-zergen eredu batetik hurbilago baitaude), eta, horrenbestez, 7. erregela 6. erregela izatera pasatzen da, testu bategineko artikulua modu arrazionalen ordenatze aldera. Azkenik, 36. artikuluko 2. idatz-zatia kentzen da, zeren eta ez baitu zentzurik lotzea (nahiz eta egungo arauak “ahal dela” gehitzen duen) zeharkako zenbatespenean dagoen subjektu pasiboaren erregularizazioa (hau da, kontabilitatea eraman ez duen enpresaburu edo profesional bat, ikuskatzaileen egitekoa oztopatzen duena eta abar) zuzeneko zenbatespenak berezko dituen zeinu, adierazle eta moduluekin; izan ere, paradoxa bat bada ere, zerga-oinarria kalkulatzeko eragotzen duten betebeharrak formal horien ez beteetzeak onurak ekar ditzake.

39.5 artikulua aldaketak bateragarri egin nahi du mendetasuna duten pertsonen babesa eta muga bat ezartzea ohiko etxebizitzaren eskualdatze batetik heldutako ondare-gehikuntzaren salbuespenerako. Jada aipatu dugu kolektibo batzuk babestea ez dela bateraezina PFEZaren erregulazioaren buru egon behar duen ahalmen ekonomikoarekiko errespetuarekin, eta, horregatik, salbuespenak ez du eraginik gehikuntza 300.000 eurotik gorakoa denean, halako moduz non gaindikina zergapetu eginen balitzateke.

55.1.Zazpigarrena.a) artikulua aldaketa pentsio-plan eta -funtsei buruzkoa da. Funtsean, helburua da gizarte aurreikuspenek sistema modu berritzaile batean piztea, bai Estatuan, bai Nafarroan; horri dagokionez, zerga-oinarriaren murrizketaren ehunekoak behera egiten du laneko etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-etekinen arabera, onura handiagoa emanez errenta txikiena lortzen dutenei eta ahalegin handiena egiten dutenei. Gure proposamenean, 8. idatz-zatiari eusten zaio, halako moduz non ekarpena egiten deneko zergaldian murriztu ez den gaindikina hurrengo bost ekitaldian aplikatu ahalko baita.

Pentsio-plan eta -funtsen esparruan, berriz, 55.1.Hamargarrena artikulua aldatzen da. Funtsean, PFEZari buruzko Legegintzako Foru Dekretuko egungo 13. xedapen gehigarriaren sistematik

ka hobeki antolatu nahi da, baina, aurrez sartutako mugapenekin koherentzia izateko, zenbatekoak bat etor daitezela bilatu da. Hartara, bada, lehenengo, hobekuntza tekniko bat da, zeinak saihestu nahi baitu pentsio-planei egindako ekarpenak foru araudiaren artikuluetan barreiatuta egon daitezela. Bigarrenik, zenbait muga ezartzen dira minusbalio-tasuna duen pertsona batek kopuru batetik gorako errentak dituen kasuetan, zeren eta arauaren espirituak eta ahalmen ekonomikoarekiko errespetuak ezin baitute beraiekin ekarri ekarpenak eman dakizkiola daukaten minusbalio-tasunarekin ere zerga-oinarri jakin bat duten pertsonen. Aldaketaren ondorioz, indarrak gabe geratuko litzateke aipatutako hamahirugarren xedapen gehigarria.

55. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatiak (gutxieneko pertsonala eta familiarra eta subjektu pasiboarekin familia-loturak dituzten pertsonak zaintzeagatiko murriztapena) kentzen dira, zerga subjektibo bihurtzeari begira proposatutako eredu berria dela eta; izan ere, haren indarrez, inguruabar pertsonal eta familiarrek ez dute jada eraginik zerga-oinarriaren murriztapen gisa, eta kuotako kenkari izatera pasatzen dira, logikoa den bezala kopuru-mugak aldatuta, ikusiko dugun bezala. Helburua ez da soilik gutxitzea onura fiskal horrek Nafarroako 2014rako gastu fiskalen aurrekontuan daukan garrantzia, baizik eta, baita ere, zergaren egitura berrantolatzea, suposatuta, aipatu dugun bezala, aukera legitimo bat dela, Nafarroako Parlamentuari eztabaidatzea eta, kasua bada, onestea dagokiona. Jokoan daude foru legegileak babestu ahal litzuzkeen bi printzipio: alde batetik, ahalmen ekonomikoa eta subjektu pasiboaren inguruabar pertsonal eta familiarren arreta; bestetik, gehikortasuna. Egungo formulak (zerga-oinarriaren murrizketa) lehenengo printzipioa betetzen du, baina zama handia dakarkio bigarrenari, tasa marginalarekin jokatzeko baitu, halako moduz non onura handiagoa baitakarkie zerga-oinarri handiagoa duten zergadunei. Nolanahi ere, kontua ez da eztabaidatzea nor ateratzen den kaltetuta edo nork lortzen duen onura egiturazko erreforma honekin –haren gainean pibotatzen du PFEZaren eredu berriak, eta foru lege proposamenaren ezin ukituzko gunea da–, baizik eta zehaztea bi sistematik (oraingoa eta proposatutakoa) zein egokitzen zaien hobekien ahalmen ekonomikoari eta gehikortasunari. Bada, zalantzarik gabe, orain proposatzen duguna da bi printzipio horiek hobekien betetzen dituen.

Aldaketa honen ondorioz, eta 55. artikuluko idatz-zatien berrantolaketa alde batera utzita, eragin zuzena dauka 7. idatz-zatian; izan ere, azken horrek testu berria izanen du. Eta eragina du, era berean, 57. artikuluan, zeinari testu berria ematen

baitzaio, proposatutako murrizketak kentzen direla jaso dezan.

Berrantolaketa ondoan, 55.6 artikulua 55.3 artikulua berria izatera pasatzen da, halako moduz non alderdi politikoentzako ekarpenak murrizketa gisa mantentzen baitira (ez kenkari gisa, Nafarroako Gobernuak igorritako foru lege proiektuak proposatzen duen bezala), are gehiago kontuan hartuta berriki arau hori aldatu dela, maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen bitartez. Kontuan hartu beharra dago diru-bilketaren eragina txiki-txikia dela, eta gainera, hartara lortzen dela afiliazio politikoari eta alderdien auto-finantzaketari eustea, bai eta gardentasun handiagoa ere, zeren eta alderdiek kuotei buruzko informazioa bidali beharko baitute.

Aldezten da 55. bis artikulua berri bat sar dadila, PFEZaren barne berrantolaketa filosofian berari jarraituz, halako moduz non haren bitartez hamalagarren xedapen gehigarrian jasotako edukia sartuko baita; xedapen hori, izan ere, aurrekoekin bat, kendu egin beharko litzateke.

55. artikulua barruan berriazko idatz-zati bat egotearen aukera bazter utzi da, zeren eta arauak zerga-oinarriaren murrizketa hutsaz hara-tagoko gaiak arautzen baititu. Ikuspegi substantibotik eta barne-koherentziagatik, saiatu gara ezgaituak minusbalio-tasuna duten pertsonekin parekatzen, ondare babesturako ekarpenen zenbatekoari dagokionez.

Likidazio oinarri orokorraren tarifei dagokienez, foru lege proiektuak proposatzen du bi urtetan tarifa gutxitzea (2015ean eta 2016an). Gobernuak azkenean aurkeztu duen oroitidazki ekonomikoak ez du argitasunez azaltzen ez hark, ez bestelako erabaki batzuek zer eragin izanen duten. Argi dago, nolana ere, Gobernuak idatz-zati horretan kontzentratzen duela bere zerga-jaitzieraren multzo handiena. Zergaren egitura modu garrantzitsuan aldatzearen aldeko hautua egin dugun neurrian, 2015eko urtarrilaren 1ean indarra hartuko lukeen tarifa bat eskaintzeko moduan gaude, ezertan kendu gabe Nafarroako Zerga Ogasunean izanen duen eraginari buruz, logikoa denez, erakunde autonomo horrek *ex ante* egin beharreko kalkulak. Gure tarifa, Gobernuak proposatzen duenaren aldean, ez litzateke jaitziko 2016an.

Eragin didaktikoetarako, oinarri gisa hartzen badugu foru lege proiektua (zeren eta ezin baitugu gure erreforma aplikatu, PFEZaren egituraren aldaketa dela eta), 2015ean likidazio oinarri gisa 30.805 euro daukan zergadun batek 7.500,40 euroko kuota osoa izanen luke (batez besteko karga-tasa efektiboa: % 24,34799), eta 61.610

euroko likidazio oinarria duen zergadun batek, berriz, 19.317,38 euroko kuota osoa (batez besteko karga-tasa: % 31,3542).

2014an (40. xedapen gehigarrian aurreikusitako karga osagarriarekin), lehenengo zergadunak 7.768,09 euroko kuota izanen luke (batez besteko karga-tasa efektiboa: % 25,216); 61.610 euroko likidazio oinarria duen zergadun batek, berriz, 20.322,84 euroko kuota osoa (batez besteko karga-tasa efektiboa: % 32,986).

Bestela esanda, tasa berriek onura ekarriko liekete errenta altuenei (eta eragina handiagoa izanen da 2016an). Edo, beste modu batera ikusi nahi bada, subjektu pasibo guztiei kuota osoa jaitziko zaie, baina neurri handiagoan likidazio oinarri handiagoak dituztenei.

Aipatutako adibide erraz horretan, 30.805 euroko zergadunari % 3,44 gutxituko zaio kuota osoa; 61.610 euroko likidazio oinarria (bikoitza, gauzak errazte aldera) duen zergadunari, berriz, kuota osoa % 4,95 jaitziko zaio (2015/2014).

Zerga-oinarriaren zati orokorraren tarifak egun dauden tarte berei eusten die, eta 2015erako bat dator tasetan Gobernuarenarekin; hurrengo urteetan, berriz, handixeagoa da. Proposamen honetan birbanaketaren alde eta diru-bilketa txikitzeko bidea saihesteko egiten den apustua honakoan datza, bereziki, aipatu den bezala: gutxieneko pertsonalak eta familiarrak kenkari bihurtzean, eta neurri txikiagoan bada ere, laneko etekinengatik kenkaria berraztertzean.

Aurrezkiaren zerga-oinarriaren tarifari dagokionez, 60. artikuluari testu berria emanez, eta funtsean proportzionala bada ere, egun dagoena baino gehikortasun handiagoa ematen zaio, eta, gainera, puntu batean igotzen da tarte altuenaren karga-tasa, Gobernuak egindako proposamenarekin alderatuta.

62.1.h) artikuluko erreforma guztiz tekniko da, eta aurrez proposatutako murrizketak berrantolatzera eta aurreko legeetako artikuluen zenbakiak berriz ordenatzera dator.

62.5 artikulua (lanarengatik kenkaria) aldatzeko berarekin dakar inplizituki aitortzea ezen etekinak okerrago tratatuta daudela, zerga-oinarria osatzeko orduan, gainerako etekinak baino, funtsean baina ez soilik gastu kengarriak erabat mugatu direlako, baina, baita ere haien kontrolarengatik eta zerga-oinarri orokorrean sartzeagatik, aipatu dugun bezala.

Hala eta guztiz ere, beharrezko egiten da, gure iritziz, laneko etekinengatik kenkaria aldatzea, etekin txikiagoak dituztenen mesedetan, halako

moduz non kenkaria jaisten joanen baita, zoru batekin, etekin mota horien zenbatekoak gora egiten duen neurrian.

Bestalde, foru lege proiektuko 62. artikuluko 6. eta 8. idatz-zatiak alferrekoak dira, baldin eta kontuan hartzen badugu eutsi egiten diegula egungo araudiaren gogoetei –izan ere, jaso egin ditugu–; hona: sindikatu etako kuotak laneko kastu kengarria dira eta alderdi politikoentzako ekarpenek zerga-oinarria jaisten dute, bere garaian adierazitako mugekin.

Garrantzi handikoa da gutxieneko pertsonala aldatzea haren egungo kontzeptutik, oinarriaren gaineko murrizketa izatetik, kuota-kenkari bat izatera. Horretara jotzen du, izan ere, 62. bis artikulua, nahiz eta antolaketa sistematiko zuzen batean 62.1 artikulua izan beharko litzatekeen, artikulua horrek jasotzen dituen gainerako ordinalak toki bat aldatuta.

Halaber, garrantzitsua da inguruabar familiarrengatik kenkaria, zeinera bideratuta baitago 62. ter artikulua (alabaina, antolamendu sistematiko argiago baten arabera, 62.2 artikulua izan beharko litzateke, gutxieneko pertsonalarengatik kenkariaren ondotik eta arauaren gainerakoa berrantolatu, aurrez aipatu dugun bezala). Izan ere artikulua hori arau berri baten gisara gehitu da.

Kenkari berri horrek gutxieneko familiarraren murrizketa ordeztu du, zeren eta horrek distorsio bat eragiten baitu zergaren gehikortasunean, zuzenean marjinalera jotzen baitu, halako moduz non zerga-oinarri handiagoa duten subjektu pasiboen ondorengoek bilatu behar baitute horiek zerga-etekin handiagoa izan dezatela; bada, inguruabar hori erreformarekin zuzentzen da, eta, aldi berean, aukera ematen da zerga-oinarriko zati orokorrari dagokion tarifa birformulatzeko.

Bi kasuetan, legegintza-politikaren arloko aukera bat da, zeina ez baita guztiz berritzailea (gutxienez ere, ondorengoan, aurrekoen eta abarrekoen kenkariaren kasuan) gure zerga-sisteman. Horrekin, PFEZaren neutraltasuna eta gehikortasuna areagotzen dira, eta, aldi beran, kontuan hartzen dira subjektu pasiboaren inguruabar familiarak, halako moduz non zergak subjektibo izaten jarraitzen baitu; besterik gabe, PFEZak ezinbestez eduki behar duen izaera subjektiboa artikulatzeko bidea indardunaz bestekoa da.

Kenkariaren zenbatekoa zein den ere –berraztertutako egin baitaiteke, zeren eta garrantzitsuena baita zerga subjektibo bihurtzeko metodoa–, garrantzitsua da nabarmentzea erreformak erregela bat hausten duela; izan ere, erregela hori zuzenketarik gabe aplikatuta, gutxieneko pertsonalarengatik

kenkarian justifikatu gabeko gehikuntzak ekar ditzake. Tradizionalki, gehikuntza bat aplikatzen zitzairen 65 edo 75 urtetik gorako pertsoneri, bai eta minusbaliotasun gradu batzuk frogatzen dituzten pertsoneri ere. Bigarren talde hori lehenengoa baino justifikatuago egon badaiteke ere, egia da adina nahiz minusbaliotasuna –zerga-oinarria zein den ere– ez direla ahalmen ekonomikoaren parametro bat, zeinaren indarrez kenkaria areago daitekeen. Izan ere, zentzurik ez du 40.000 euroko zerga-oinarria duen 67 urteko zergadun batek gutxieneko pertsonala dela eta kenkari handiago izateak 24.000 euroko zerga-oinarria duen 57 urteko zergadun batek baino. Hori dela eta, gehikuntzari eusten zaio, baina muga bat ezarrita. Izan ere, muga horren indarrez, igoera hori ezin da aplikatu baldin eta zergadunak, adina edo minusbaliotasun gradua gorabehera, 50.000 eurotik gorako zerga-oinarria badu.

Bestalde, 64. artikulua aldaketak arrazoi bikoitza dauka: alde batetik, aurrez egindako kenkarien berrantolaketa (halako moduz non berrantolaketa tekniko hutsa den); bestetik, % 30etik % 25era jaisten du dohaintzengatik kenkarien eta biomasako instalazio termikoetan egindako inbertsioarengatik kenkarien baterako oinarrien batura.

70. artikulua aldaketa soilik tekniko da, eta hobekuntza juridikoa dakarren ordezpene gramatikal batean datza; izan ere, baterako tributaziora jo dezaketenak ez dira pertsona fisikoak, zergadunak baizik –hau da, familia unitate bat osatu eta zerga-gaia gauzatu eta errentak lortzen dituztenak–. Zehaztapen horretatik kanpo, arauak egungo testuari eusten dio.

74. Seigarrena artikulua aldaketak honako arrazoiak ditu: kenkari pertsonal eta familiarren berrantolaketa eta kasuko murrizketak kentzea. Izan ere, arauaren espirituari eutsita ere, aurrekusten da ezen, kuota nahikoa izan ez eta ezkontideetako batek edo bikote egonkorreko kide batek ezin izan dituenen kenkari horiek osorik aplikatu, gerakina beste ezkontideak edo bikote egonkorreko beste kideak aplikatu ahalko duela.

Bestalde, 74. Zazpigarrena artikulua aldaketak honako funtsa dauka: murrizketa berrantolatzeko beharra kuota osoaren gaineko kenkarietako murrizketa batzuen eraldaketaren arabera. Arau horrek kenkari gehigarri bat ezartzen du baterako tributazioaren alde egiten duten guraso bakarreko familia unitateentzat. Kenkari gehigarria gutxieneko pertsonal eta familiarren kontzeptuan eginiko murrizketak kentzeari eta tarifa-murrizketari doitzeko, beste zenbateko bat proposatzen da, kenkari berriekin bat datorrena. Bestalde, muga batzuk ezartzen dira kenkari hori aplikatzeko.

Muga horiek, aurreko kasuetan bezala, guraso bakarreko familia unitateko kideen zerga-oinarrien arabera zehaztuko dira, zeren eta horiek 50.000 eurotik gorakoak badira, kenkaria % 50 gutxituko baita, eta 70.000 eurotik gorako zerga-oinarriak dituzten guraso bakarreko familia unitateentzat, berriz, desagertu ere egingen baita.

Koherentzia-arrazoiak tarteko, kendu egiten da berrogeigarren xedapen gehigarria, zeren eta aldi baterako karga-tasa osagarria desagertzen baita 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, halako moduz non erreforma ez den bi urtetan banatuko. Aldi berean, tarifaren aldaketa eta murrizketen eta kenkarien arloan zergak duen egitura kontuan hartuta, hurrengo xedapen gehigarria kendu beharra dago, zeren eta laneko atxikipenen taula erregelamendu bidez finkatu baitaiteke.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ondotik ematen den testua izanen dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manuek:

Bat. Testu berria ematen zaio 7. artikuluko r) letrari. Honako testua izanen du:

7. artikulua

“r) Foru Komunitateko Administrazioak erabilera partikularreko motordun ibilgailuak erosi edo egokitzeko minusbalietuei ematen dizkien prestazio ekonomikoak, likidazio oinarria 60.000 eurotik gorakoa ez baldin bada.”

Bi. Kendu egin da 15.2.e) artikulua.

Hiru. Testu berria ematen zaio 17. artikuluko 2.a) idatz-zatiari. Honako testua izanen du:

17.2. artikulua

“a) ehuneko 30, bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten etekinatarako (aldian-aldian edo behin eta berriz jasotzen direnak ez badira), eta erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.”

Lau. Testu berria ematen zaio 17. artikuluko 3. idatz-zatiari. Honako testua izanen du:

17. artikulua

“3. 2. idatz-zatiko murrizketak ez zaizkie 14.2.a) artikuluko prestazioei aplikatuko errenta gisa jasozten badira, ezta zerga-oinarria gutxitzen duten enpresa kontribuzio egotziei ere, 55.1 artikuluarekin bat.

2. idatz-zatiko a) eta b) letretan ezarritako murrizketak aplikatzeko, etekin osoak ezin dira 180.000 eurotik gorakoak izan. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko.

Dena dela, 2.a) letran ezarritako murrizketa ez zaie aplikatuko lan-harremana (arrunta nahiz berezia) edo 14.2 c) artikuluko merkataritza-harremana, edo biak azkentzearen ondoriozko lan etekinei, baldin eta etekin horien zenbatekoa 180.000 eurokoa edo handiagoa bada.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, zenbatu beharreko lan etekinaren zenbateko osoa honako hauen batuketara aritmetikoaren bidez zehaztuko da: alde batetik, enpresatik bertatik edo sozietateen taldeko beste enpresa batzuetatik (horietan Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak izan behar dituzte) ateratzen diren lan etekinak, zenbat zergaldiri egotzen zaizkion kontuan hartu gabe, eta, bestetik, salbuetsia egon daitezkeen diru kopuruak”.

Bost. Testu berria ematen zaio 18. artikuluko 1.d) idatz-zatiari. Honako testua izanen du:

18.1. artikulua

“d) Zergadunak etekinak hartzen dituen pertsonarekiko edo entitatearekiko dituen harremanetan sorturiko auzietatik zuzenean eratorritako defentsa juridikoko gastuak, urte bakoitzeko 1.000 euroko mugarekin”.

Sei. Testu berria ematen zaio 32. artikuluko 2. idatz-zatiari. Honako testua izanen du:

32. artikulua

“2. 30.3 artikuluko a), b), c), d) eta f) letretan aurreikusitako etekin garbiak, bi urtetik gorako sortze aldia dutenak edo denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortutakoak, ehuneko 30 murriztuko dira. Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

Aurreko lerroaldeko murrizketa aplikatu ahal izateko, etekin osoak 180.000 eurokoak izanen dira gehienez. Mugaz gaindikoari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko”.

Zazpi. 34.6. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“Bi urtetik gorako sortze aldia duten jardueratekin garbiak eta denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortutakotzat erregelamendu bidez jotzen direnak ehuneko 30 murriztuko dira.

Aurreko lerroaldeko murrizketa aplikatu ahal izateko, etekin osoak 180.000 eurokoak izanen dira gehienez. Mugaz gaindikoari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko”.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

Nolanahi ere, murrizketa hori ez da aplikatuko baldin eta etekinak, haien zenbatekoa gorabehera, modu erregularrean edo ohikoan era horretako etekinak ateratzen dituzten enpresa- edo lanbide-jardueretatik heldu badira, nahiz eta indibidualki aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituen epearen barnean garatutako jardueren ondoriozkoak izan”.

Zortzi. 35. artikuluko 8. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

35. artikulua

“8. Zuzeneko zenbatespen erraztua. Modalitate hau subjektu pasiboaren zenbait jarduerari aplikatuko zaie, baldin eta haien negozio kopuruaren zenbatekoa garbia, berak betetako jarduera guztietarako, 300.000 eurotik gorakoa ez bada aurreaurreko urtean, non ez duen subjektu pasiboak berak aplikatzeari uko egin. Erregelamendu bidez, zenbait gastu kengarri zenbatzeko arau bereziak ezarri ahal izanen dira”.

Bederatzi. Testu berria proposatzen da 36 artikulurako. Hona testua:

“36. artikulua.

1. Etekin garbiaren kalkulua, zenbatespen objektiboaren bidezkoa, artikuluko honetan eta hau garatuko duten xedapenetan ezarritakoak arautuko dute.

2. Inolaz ere ezin dira estimazio objektiboko araubidean egon kasuko zergaldian beren diru-sarrerekin honako kopuruak gainditzen dituzten subjektu pasiboak:

a) 150.000 euro, hurrengo jardueretan:

– Abeltzaintza independentea.

– Ganadua hazteko, zaintzeko eta gizentzeko zerbitzuak.

– Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezitik salbuetsita dauden nekazari eta abel-

tzainek eginiko bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk.

– Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezitik salbuetsita dauden oihan-jardueren titularrak eginiko bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk.

– Apartzeria-araubidean gauzatzen diren nekazaritza-jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

– Apartzeria-araubidean gauzatzen diren oihan-jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

– Produktu natural, begetal edo animalia-produktuen transformazio-, elaborazio- edo manufaktura-prozesuak, baldin eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifetan jarduera industrialei dagokien epigrafeetako batean alta emanda egozter behartuta badaude eta prozesuok egiten dituztenak badira produktu natural horiek zuzenean lortzen diren ustiatgeetako titularrak.

– Nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduerak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian egon daitezkeenak.

– Oihan-jarduerak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian egon daitezkeenak.

b) 100.000 euro, gainerako jardueretan.

Erregelamenduzko xedapenak honako erregela hauei lotuko zaizkie:

Lehena. Araubide hau erregulatzen duten arauetan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek horri jarraituz zehaztutako dituzten haien etekinak, aplikatzeari uko egin ezean, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Bigarrena. Zenbatespen objektiboaren araubidea Balio Erantsiaren gaineko Zergan ezarritako araubide berezietan batera aplikatuko da, erregelamendu bidez horrela ezartzen denean.

Hirugarrena. Zenbatespen objektiboko araubidearen aplikazio eremua, besteak beste, jardueren eta laboreen izaeraren arabera finkatuko da edo modulu objektiboak kontuan hartuta, hala nola eragiketen bolumena, langileen kopurua, erosketen zenbatekoa, ustiatgeen azalera edo erabilitako aktibo finkoak, zergadunak egindako jarduera guztientzat erregelamendu bidez ezarritako mugekin.

Diru-sarreraren bolumenaren tamaina konputatzeko, kontuan hartuko dira subjektu pasiboak eginiko enpresa jarduerari dagozkien eragiketarik ez ezik baita ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei, eta orobat, aurreko horietako edozein partaide den errenta-egozpenaren araubideko entitateek egindakoei dagozkienak ere, inguruabar hauek batera gertatzen badira:

– Egindako enpresa jarduerak berdinak edo antzekoak izatea. Ondorio horietarako, berdinak edo antzekoak direla ulertuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan talde berean sailkatutakoak.

– Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, giza edo gauza baliabideak partekatuz.

Laugarrena. Zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatu ahal izanzen zaie errentak egozteko araubidean dauden entitateei.

Zenbatespen objektiboaren araubidea ezin izanzen zaie aplikatu enpresa jarduerari edo profesionalen jarduerari, hein batean edo bere osotasunean, Espainiatik kanpo egiten badira.

Bosgarrena. Enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez kalkulatzeko Ekonomi eta Ogasun Departamentuak orokorrean edo jarduera sektore zehatzetarako ezarriko dituen zeinu, indize edo moduluak erabiliko dira.

Seigarrena. Zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatu arren, jardueraren benetako etekinen eta araubide hauek modu egokian aplikatuzetik heldu direnen arteko aldeak direla-eta ondarean gerta daitezkeen gehikuntzak edo murrizketak ez dira inolaz ere zergapetuko.

Hamar. Testu berria ematen zaio PFEZaren Testu Bategineko 39.5.b) artikuluari. Honako testua izanen du:

“39. artikulua. Kontzeptua

5. Zergatik salbuetsita daude ondare gehikuntza batzuk, hala nola:

b) Mendekotasun larriko egoeran nahiz mendekotasun handikoan dauden pertsonen kasuak, ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen badute, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera, bai eta lege horren arabera mendekotasun moderatuko egoeran dauden eta hirurogeita bost urtetik gorakoak diren pertsonen kasuak ere. Salbuespen hori ez da inolaz ere aplikatuko ondare-gehikuntza 300.000 eurotik gorakoa denean.

Kopuru horren gainera dagoen zenbatekoa zergapean geratuko da”

Hamaika. Testu berria ematen zaio PFEZaren Testu Bategineko 55.1.Zazpigarrena.a) artikuluari. Honako testua izanen du:

“55.1. artikulua. 7.a)

Aurreko puntuetan jasotzen diren murriztapenen baterako muga gehieneko gisa ondoren finkatzen diren ehunekoak aplikatuko dira:

a) Zergaldi bakoitzean norbanakoak jasotako lan etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-jardueren etekin garbien baturaren ehuneko 10, 12.500 euroko mugarekin, batura hori urtean 90.000 eurokoa edo goragokoa bada.

b) 9.000 euro, zergaldi bakoitzean norbanakoak jasotako lan etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-jardueren etekin garbien batura 60.000 eurokoa edo goragokoa eta 90.000 eurotik beherakoa denean.

c) Zergaldi bakoitzean norbanakoak jasotako lan etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-jardueren etekin garbien baturaren ehuneko 15, batura hori 50.000 eurokoa edo goragokoa eta 60.000 eurotik beherakoa denean.

d) 7.500 euro, zergaldi bakoitzean norbanakoak jasotako lan etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-jardueren etekin garbien batura 30.000 eurokoa edo goragokoa eta 50.000 eurotik beherakoa denean.

e) Zergaldi bakoitzean norbanakoak jasotako lan etekinen eta enpresa- nahiz lanbide-jardueren etekin garbien baturaren ehuneko 25, batura hori 30.000 eurotik beherakoa denean.

Hamabi. Idatz-zati berri bat, hamargarrena, gehitzen zaio PFEZaren Testu Bategineko 55.1 artikuluari. Honako testua izanen du:

“55.1.Hamargarrena. artikulua. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde egindako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen eta prestazioen zerga-araubidea.

1. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde egindako pentsio planetarako ekarpenei, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko estatuko araudian ezarritako betebeharrak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte, eta haietatik heldu diren prestazioei ondoko zerga-araubidea aplikatuko zaie:

a) Zilegi izanen da pentsio plan horietara sartzen diren dirutzei murrizketa egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren parte orokorrean, gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a) Partaide bakoitzak bere ahaide minusbaliatuen baten alde urtean egindako ekarpenen kasuan: 6.000 euro urteko. Inoiz ere ez da murrizketa hori aplikatuko ahaideetasun- edo tutoretza-harremana dagoen minusbaliatuaren zerga-oinarria 50.000 eurotik gorakoa denean.

Horrek ez die galarazten beren pentsio planetan ere dirua sartzea, foru lege honen 55.1.Zazpigarrena artikulua ezartzen dituen mugen barrenean.

b) Partaide minusbaliatuek berek urtean sartzen duten dirurako, urtean, 15.000 euroko gehieneko mugarekin.

Minusbaliatu beraren alde ekarpenak egindako pertsona guztiek egindako murriztapenak guztira, minusbaliatuak berak egindakoak barne, gehienez ere 22.000 eurokoak izanen dira urtean. Hartarako, minusbaliatu baten alde ekarpen bat baino gehiago egiten badira, aurrena minusbaliatuak berak egindako ekarpenei egin beharko zaie murrizketa, eta horiek 22.000 euroko muga horretara iristen ez direnean soilik egin ahal izanen zaie murrizketa haren alde beste pertsona batzuek egindako ekarpenei, euren zerga-oinarrian eta proportzionaliki. Edozein kasutan ere, minusbaliatu beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztien murrizketak ez dira inoiz izanen guztira 22.000 euro baino gehiagokoak.

b) Minusbaliatuek errenta gisa jasotako prestazioetatik heldu diren lan etekinek, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei dagozkienek, murrizketa izanen dute zerga honetan, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako hiruraino.

Minusbaliatuek kapital gisa jasotako prestazioen kasuan, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei buruzkoak badira, foru lege honetako 17.2 artikuluko b) eta c) letretan jasotako murrizketa ehuneko 60koa izanen da.

2. Arau honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara, aseguratutako aurreikuspen planetara, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planetara eta menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik ezalduz ez duten aseguruetara (Autonomia sustatzeko eta Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko estatuko araudian ezarritako baldintzak eta erregelamendu bidez finkatzen direnak betetzen dituzten minusbaliatuen alde egindako ekarpenei eta prestazioei, baita haietatik guztietatik jasotakoei ere. Kasu horretan, ezarritako mugak arau honetan jasotako

gizarte aurreikuspeneko sistema guztietarako izanen dira.

Pentsio plan eta funtsen araudian aurreikusita-koak ez bezalako kasuetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak erabiltzearen ondorioak foru lege honetako 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. puntuko b) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak izanen dira.

3. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde gizarte aurreikuspeneko sistemetan egiten diren ekarpenei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Estatuko araudian ageri diren pertsonen eginei, ez zaie Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aplikatuko.”

Hamahiru. PFEZaren Testu Bategineko 55. artikuluko 4. idatz-zatia kentzen da.

Hamalau. PFEZaren Testu Bategineko 55. artikuluko 7. idatz-zatia kentzen da.

Hamabost. 55. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da.

55. artikulua

3. Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako afiliazio-kuotak eta ekarpenak, urteko 600 euro bitarte, betiere kuota eta ekarpen horiek Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera frogatuta egonez gero.

Kenkaria egiteko baldintza izanen da subjektu pasiboek ordaindutako kuotak eta ekarpenak agertzea alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteek Tributu Administrazioari tributu-araubidean ezarritako eredu eta epeetan aurkeztutako deklarazioetan.

Hamasei. Testu berria ematen zaio 55. artikuluko 6. idatz-zatiari. Honako testua izanen du:

55. artikulua.

6. Artikulu honetan aipatutako murrizketak ondoko arau hauei jarraiek egiten dira:

Lehen. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan, 55. bis artikuluan eta hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoak.

Bigarrena. Emaidza positiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaidza negatiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritako murrizketa aplikatuko litzaioke zerga-oinarriko

aurrezkiaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.”

Hamazazpi. 55. bis artikulua berria gehitzen da, honako edukia duena:

“55. bis artikulua. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenen araubide fiskala.

Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Prozedura zibileko Legea eta tributu arloko araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legean arautzen diren ekarpenek, hau da, ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindakoek, ondoko araubide fiskal hau izanen dute:

1. Ezgaitasunen bat duen subjektu pasiboari.

a) Ekarleak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean ekarle bakoitzeko 8.000 euro bitarteko kopurua eta, osotara, 22.000 bitarteko kopurua lan etekin-tzat hartuko da.

Horrez gainera, aurreko lerrokadan ezarritako mugak gorabehera, ekarleak sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean 8.000 euro arteko kopurua lan etekintzat hartuko da, betiere sozietateen gaineko zergan gastu hori kenkari gisa agertu bada.

Etekin horiek ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartuko dira, ondare babestuaren titularrarenean, hain zuzen. Etekinetako zenbatekoa eta, honelakorik badago, foru lege honen 55.1.Hamargarrena artikuluko 1.b) idatz-zatian aipatzen diren errenta gisako prestazioak batu ondoren, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako hiru gainditzen duen zenbatekoa hartuko da aintzat.

Ekarpenak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek egiten dituztenean, eta beren menpe dauden langileen ahaide edo ezkontideen edo langileek tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean dituzten pertsonen ondare babestua- ren alde badira, ondare babestuaren titularraren-tzat soilik hartuko dira lan etekintzat.

Letra honetan azaldu diren etekinak direla-eta atxikipenak edo konturako diru-sarrerarik egin beharko dira.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, ondare babestuaren titularra den subjektu pasibo ezgaitua ekarlearen tokian subrogatuko da kasuko ondasun eta eskubideen erosketaren balioa eta eguna finkatzeari dagokienez.

Diruzkoa ez den ekarpenetik oinordetza eta dohaintzei buruzko zergaren menpe dagoen zatiari foru lege honen 42. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

c) Eskuratzailarentzat lan etekinen izaera duen ekarpenen zatia ez da oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zergaren menpe egonen.

2. Ekarleari.

a) Gradu guztietako zuzeneko ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek familiarako subjektu pasibo ezgaitu baten ondare babestuari egindako ekarpenek eskubidea emanen dute ekarleak zerga-oinarrian kenkaria egiteko, urtean 8.000 euro gehienez. Berdin jokatuko da ekarpena ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren ezkontideak egiten badu edo hura beren kargura daukaten beste pertsona batzuek, tutoretza araubidean, harrera araubidean (Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan arautua), umeordetza araubidean (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren 73. eta 74. Legeetan arautua) edo beste autonomia erkidego bateko antolamendu juridiko zibilean izaera bera duten beste instituzio batzuen araubidean. Ondare babestu bakoitzari diru-ekarle guztien artean egindako ekarpenei dagozkien kenkariak, urtean, ezin dira 22.000 eurotik gorakoak izan. Kopuru hori gaindituz gero, ekarpen bakoitzari dagokion kenkaria gutxitu beharko da, modu proportzionalan.

Foru lege honen 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 1. erregelaren eraginetarako, murrizketa horiek 55. artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen direnekin batera eginen dira.

b) Aurreko letran aurreikusitako mugatik goitiko ekarpenek kenkaria izateko eskubidea emanen dute hurrengo lau zergaldietan, harik eta, haietako bakoitzean, kenkariaren gehieneko mugara ailegatu arte.

Zergaldi berean baldin badaude ekitaldi horretan egindako ekarpenengatiko kuota-kenkariak eta aurreko ekitaldietatik egiteko dauden beste kenkari batzuk, lehenbizi aurreko ekitaldietako ekarpenen ondoriozko kenkariak eginen dira, kenkariaren gehieneko muga iritsi arte.

c) Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 34. eta 38. artikuluetan ezarritakoaren ondoriozko emaitza hartuko da ekarpenaren zenbatekotzat.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboek egiten dituzten ekarpenak beren enpresa edo lanbide jardueri atxikita dau-

den elementuak direnean, ez dute kenkaria egiteko eskubiderik sortuko.

Ondare babestuaren titularra den subjektu pasibo ezgaituak berak egindako ekarpenek ez dute kenkaria egiteko eskubidea emanen, inolaz ere.

3. Ondasun edo eskubideen erabilera.

Ezgaitasunen bat duen pertsonaren ondare babestuari egindako ekarpeneko ondasun edo eskubideak ekarpena egin den zergaldi berean edo hurrengo lau zergaldietan erabiliz gero, behar-kizun fiskal hauek sortuko dira:

a) Ekarlea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa baldin bada, zerga-oinarrian egindako murrizketei dagozkien kopuruak sartu beharko ditu ondasun-eskubideak erabiltzen hasten den zergaldiko zerga-oinarrian, hots, egindako erabiltzei eta bidezko berandutza-korrituei dagozkienak.

b) Ekarlearen izaera edozein delarik ere, ekarpena jaso duen ondare babestuaren titularrak ekarpena jaso zuen zergaldian xedapen gehigarri honen 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera sartu gabe utzi zuen kopurua sartu beharko du ondasun-eskubideak erabiltzen diren zergaldiko zerga-oinarrian, gehi bidezko diren berandutza korrituak.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo batek egindako ekarpena bere kargura dauden langileen ahaideen, ezkontideen edo -55. bis artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran aipatzen den tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean-ardurapean duen beste pertsona baten ondare babestuan sartzeko izan baldin bada, aurreko lerrokadan azaldutako beharkizuna langileak izanen du.

Letra honetan eta a) letran zerga-oinarrian sartzeko ezarri den beharkizunaren ondorioetarako, foru lege honen 55. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren puntuko b) letraren bigarren lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 68. bis artikuluko 3. zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, ondare babestuaren titularra den langileak zergaldian egin dituen erabileren berri eman beharko dio ekarpena egin duen enplegu-emaleari.

Ondasunen erabilera langileen ahaideen, ezkontideen edo aurreko lerrokadan aipatutako tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean haien kargura dauden pertsonen ondare babestutik egiten den kasuetan ere, aurreko lerrokadan aipatutako jakinarazpena langileak egin beharko du.

Jakinarazpenik ez egitea edo jakinarazpen faltsua, osagabea edo zehaztasunik gabekoa egitea tributu arloko arau-hauste arina izanen da. Arau-hauste horri 600 eurotik 3.000 euro bitarteko zehapena dagokio.

3. idatz-zati honetan ezarritako ondorioetarako, ondasun edo eskubideetan homogeneousuna gertatzen bada, lehenbizi eman zirenak erabili direla ulertuko da.

Ondare babestuaren titularra, ondasun-ekarlea edo Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 68. bis artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren langileak hilez gero, idatz-zati honetan ezarritakoa ez da aplikatuko”.

Hemezortzi. Testu berria ematen zaio 57. artikuluari. Honako testua izanen du:

“57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia.

Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikuluan 4. idatz-zatiko 2. arauan aipatutako murriztapena aplikatuko zaio, hala egokitzen bada.”

Hemeretzi. Testu berria ematen zaio PFEZaren Testu Bategineko 59.1 artikuluari. Honako testua izanen du:

1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Likidazio oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	3.825,00	% 13,00
3.825,01	497,25	4.674,00	% 22,00
8.499,01	1.525,53	9.027,00	% 25,00
17.526,01	3.782,28	13.279,00	% 28,00
30.805, 01	7.500,40	14.675,00	% 36,00
45.480,01	12. 783,40	7.927,00	% 41,00
53.407,01	16.033,47	34.593,00	% 44,00
88.000,01	31.254,39	37.000,00	% 45,50
125.000,01	48.089,39	175.000,00	% 47,50
300.000,01	131.214,39	Hortik gora	% 49,00”

Hogeji. Testu berria ematen zaio 60. artikuluari. Honako testua izanen du:

“Aurrezkiaren likidazio oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio, tarteen arabera:

Likidazio oinarria	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
6.000 euro bitarte	19
10.000 euro bitarte	21
15.000 euro bitarte	23
15.000 eurotik aurrera	25”

Hogeita bat. Testu berria ematen zaio 62.1.h) artikuluari. Honako testua izanen du:

62.1. artikulua

“h) Ondorio horietarako, zergaldiko oinarriari 55. eta 57. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen ondoriozko murrizketak gehituta, baita alderdi politikoei egindako ekarpenen

eta haien kuoten ondoriozkoak ere, aipatu 55. artikuluan 1. idatz-zatitik 3.era bitartekoetan xedatutakoari jarraituz, 55.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, honako hauei egindako ekarpenengatik murrizketak ere gehituko dira: desgaitasuna duten pertsonen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistemak, desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuaren aldeko ekarpenak eta kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari egindakoak, 55. artikuluko 2. idatz-zatian, 55. bis artikuluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian hurrenez hurren xedatutakoarekin bat”.

Hogeita bi. Testu berria ematen zaio 62.5 artikuluari. Honako testua izanen du:

“62.5. artikulua. Lanarengatik kenkaria.

Lehena. lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400 euro.

b) 9.100 eta 12.600 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.400 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,2.

c) 12.600,01 eta 35.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 35.000,01 eta 50.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin horiek ken 35.000 euro, eta horren emaitza bider 0,02.

e) 50.000,01 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 400 euro.

Bigarrena. Minusbaliotasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta laneko errendimenduak lortzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den kenkariari % 50 gehituko zaio. Kenkariari % 100 gehituko zaio minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutenen kasuan.

Hogeita hiru. Testu berria ematen zaio 75.6 artikuluari. Honako testua izanen da:

75.6 artikulua.

“71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikuluko 4. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan dituen osoki aplikatu 62. bis eta 62. ter artikuluetan aipatzen diren kenkariak, gerakina beste ezkontidearen edo bikote iraunkorreko kidearen gutxienerako pertsonalari erantsiko zaio”

Hogeita lau. 62. bis artikulua berria gehitu da. Testu hau izanen da:

“62. bis artikulua. Gutxienerako pertsonalarengatik kenkaria.

Oro har, gutxienerako pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko urteko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko hori handituko da honako kopuruetaraino:

a) 1.150 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 1.425 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 1.550 euro, 65 urte baino gutxiago dituzten eta % 33 edo handiagoko eta % 65 baino txikiagoko minusbaliotasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori

1.775 eta 2.050 eurokoa izanen da, hurrenez hurren, subjektu pasiboak, aipatutako minusbaliotasuna frogatuta, 65 eta 74 urte bitarte edo 75 urte edo gehiago dituen.

c) 3.175 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela. Zenbateko hori 3.400 eta 3.675 eurokoa izanen da, hurrenez hurren, subjektu pasiboak, aipatutako minusbaliotasuna frogatuta, 65 eta 74 urte bitarte edo 75 urte edo gehiago dituen.

Aurreko a), b) eta c) letretan aurreikusitako gehikuntzak ez dira aplikatzekoak izanen subjektu pasiboaren zerga-oinarria 60.000 eurokoa edo gehiagokoa denean”

Hogeita bost. 62. ter artikulua gehituko da. Honako testua izanen da:

“62. ter artikulua. Familia-inguruabarrengatik kenkaria.

Honakoa izanen da ondorengoak, aurreko ahaideak, bestelako ahaideak eta ezgaitasuna dutenak zaintzegatik kenkaria:

1. Aurreko eta ondorengo ahaideengatik kenkaria.

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino errenta altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, errenta salbuetiak kenduta, zenbateko hauetako bat:

– 225 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letretan aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 500 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetiak bazter utzirik:

– 412 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 437 euro urtean, bigarrenagatik.

– 625 euro urtean, hirugarrenagatik.

- 837 euro urtean, laugarrenagatik.
- 950 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.100 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 550 euro urtean. Zenbateko hori 1.000 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 550 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoen gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urteko errentak, salbuetiak izan ezik, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, desgaitasunen bat izatea eta duten minusbaliotasun maila ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 1.925 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila ehuneko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerroaldean aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

2) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta ezgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik kenkaria.

Familiaren etxean honako pertsona hauek zaintzen lan egiten dutenekin formalizatutako kontratuen ondorioz Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioengatik subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruen % 100:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako 1 idatz-zatiko a) eta c) letretan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko, edo hama-hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako terminoen arabera pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen 1. idatz-zatiko a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hau aplikatu ahalko da, orobat, subjektu pasibo bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen badu bere minusbaliotasun maila ehuneko 65ekoa edo handiagoa dela.

3. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute artikuluko honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Ondorengo ahaideen zaintza partekatutaren kasuetan, berdin jokatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduekin, kenkaria gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoak aplikatuko baitzaie.

Hogeita sei. Testu berria ematen zaio 64. artikuluari. Honako testua izanen du:

64. artikulua

1. Lehenbizi, foru lege honen 62. bis eta 62. ter artikuluetan ezarritako kenkariak aplikatuko dira.

2. 62. artikuluko 4. eta 12. idatz-zatietan aipatzen diren kenkarien oinarrien baturak ez du gaindituko subjektu pasiboaren likidazio oinarriaren ehuneko 25a.

2. 62. artikuluko 3. eta 7. idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkarien mugak batera aplikatuko zaizkio 61. artikuluko ezarritakoaren arabera finkatutako kuota likidoari”.

Hogeita zazpi. Testu berria ematen zaio PFE-Zaren Testu Bategineko 70 artikuluari. Honako testua izanen du:

“70. artikulua. Familia unitate bat osatzen duten pertsona zergadunek, edozein zergalditan, zerga batera ordaintzeko aukera dute, zergari buruzko arau orokorreari eta titulu honen xedapenei jarraituz”.

Hogeita zortzi. Testu berria ematen zaio PFEZaren Testu Bategineko 75.Zazpigarrena artikuluari. Honako testua izanen du:

“75.Zazpigarrena artikulua.

71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonalarengatik kenkariari, 62. bis artikuluan ezarritakoari, 600 euro gehituko zaizkio.

Gehikuntza hori ez da aplikatuko aita eta ama elkarrekin bizi badira eta zaintza partekatuko kasuetan.”

Hogeita bederatzia. Hamahirugarren xedapen gehigarria kentzen da.

Hogeita hamar. Berrogeigarren xedapen gehigarria kentzen da.

Hogeita hamaika. PFEZari buruzko Foru Legea onesten duen Testu Bategineko berrogeigarren xedapen gehigarriak honako testua izanen du:

“Honakoen gainean egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren portzentajeak Nafarroako Gobernuak finkatuko ditu, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak proposatuta, 2015eko urtarrilaren 10a baino lehen: laneko etekinak, lanbide-jardueren etekinak, ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo errenboltsoen ondoriozko ondar-gehikuntzak, sariak, ondasun higiezinen errentamendu eta azpierreantamenduak, irudi eskubidearen lagapena, eta ondasun higigarrien kapitalaren bestelako etekin batzuk.

Hogeita hamabi. PFEZari buruzko Foru Legea onesten duen Testu Bategineko berrogeigarren xedapen gehigarria kentzen da.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Aberastasuna gaitasun ekonomikoaren adierazle bat da, ondasunen eta eduki ekonomikoko edukien titulartasunetik heldu dena. Horrenbestez, zerga honen bidez karga bat ezarri nahi zaio aberastasunak bere titular diren pertsonari dakarkien gaitasun gehigarriari.

Hartara, aldaketa honen bitartez, sustatu nahi da aberastasunaren erabilera produktiboa, eta bilatzen da ondasunen eta eduki ekonomikoko eskubideen erabileran efizientzia handiagoa lortzea, saihestuz halakoak alferrikakoak izan daitezela eta erabilera espekulatiboa izan dezatela, eta, aldi berean, tributu-sistema osoari gehikortasun handiagoa emanez.

Hartara, jardueraren zuzendaritza-eginkizunari eta sozialki deseatzekoak diren jardueren zaintzari erreparatuta eta gure errealtatearekin bat eginda, salbuespen batzuk planteatzen dira energia berriztagarrien arloan eta familien nekazaritza-ondare tradizionalen arloan, eta zergako kuota osoaren ehuneko 75eko hobaria ematen da jarduera ekonomikoei atxikitako elementuetan eta entitate batzuetako partaidetzetan.

Azkenik, adierazi beharra dago planteatutako aldaketek diru-bilketaren handitze garrantzitsu bat dakartela, zergaren intzidentzia ondare eta dirutza handietan jarriz eta familia-ondare ertainen prezioa arinduz.

Artikulu bakarra. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege hau NAOn argitaratzen denetik aitzinako ondorioekin, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeak honako testu hau izanen du:

Bat. 5. artikulua. 7.

“Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere.”

Bi. 5. artikulua. Idatz-zati berria, 8.a.

“Energia berriztagarrien instalazioak, 20 kW-tik beherako produkzioa dutenak.”

Hiru. 5. artikulua. Idatz-zati berria, 9.a.

“Xede nagusi gisa nekazaritza eta abeltzaintzako, erlezaintzako edo basozaintzako jarduerak duten ondasun eta eskubideak, jarduera horiek pertsonalki eta zuzenean pertsona fisikoek egiten dituztenean eta zergadunaren errenta-iturri nagusia direnean, 200.000 eurora bitarte.”

Lau. 28.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 500.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik.”

Bost. 31.1. artikulua.

“Zerga honen kuota osoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera, ezin da izan azken horren zerga-oinarriko baturaren ehuneko 80tik gorakoa, eta, ondorio

hauetarako, ez da kontuan hartuko izaeragatik eta xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuotaren zatia.”

Sei. 33. artikulua.

“33. artikulua. Kuotako kenkariak

1. Zergaren kuotatik ondasun eta eskubideei dagokien zati proportzionalaren ehuneko 75 kendo da:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta senar-emazteenak direnak, enpresa-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz eta zuzenean burutzen bada eta aipatu jarduera burutzen duenaren errenta-iturri nagusia bada.

Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainketak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainketa ere.

b) Entitateen partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufruktu eskubidea, merkatu antolatuetan kotizatu nahiz ez, baldintza hauek gertatzen badira:

1. Entitateak, sozietatea izan nahiz ez izan, enpresa-jardueraren bat benetan burutzea eta ez dezala izan jarduera nagusizat ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako bat gertatzen denean:

a') Bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreak osatua izatea, edo bestela

b') Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikia.

b) letran adierazitako ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga xedatutakoari segituko zaio.

Bai aktiboaren balioa, bai lanbide- edo enpresa-jarduerari loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoak izanen dira, baldin eta horrek entitatearen ondare egoera zintzoki jasotzen bada.

Aurreko jarduerari loturik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktiboaren parte zehazteko:

Lehena. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

– Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

– Enpresa- edo lanbide-jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

– Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

– Gutxienez ere bozkatzeko eskubideen ehuneko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko asmoz edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra honetan agertzen ez bada.

Bigarrena. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa- edo lanbide-jarduerari loturik ez dauden ondare-elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekoak izanen dira, baldin eta partaidetzako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jardueretatik heldu badira.

2.a. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza ehuneko 5ekoa izatea gutxienez, banaka zenbatua, edo ehuneko 20koa, ezkontideak edo bigarren graduako aurrekoek, ondorengoek edo albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontzatik edo adopzioetik datorrela.

3.a. Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza-eginkizunak betetzea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria lanbide edo enpresa-jardueretatik eta lan pertsonaletik guztira bereganatzen duenaren ehuneko 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, 1. zenbaki honetako a) letrak aipatzen duen enpresa-jardueraren etekinak ez dira enpresa edo lanbide-jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa zenbatuko.

Entitatean duen partaidetza aurreko baldintzan aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, zuzendaritza-eginkizunak eta haien ondoriozko ordainsariak ahaideen taldeko pertsona batek bederen izan beharko ditu, deusetan galarazi gabe kenkarirako eskubidea denek izatea.

Kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori foru lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–, hain zuzen, enpresa- edo lanbide-jarduera burutzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek aplikatuko dira entitate partaidetuaren partaidetzen balorazioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

2. Zerga-oinarria zehazteko, izaera ekonomiko-ko ondasun eta eskubideen artean, Ceuta, Melilla edo haien dependenzietan egoitza izanik beraien sozietate-xedea hantxe bertan bakarrik garatzen duten entitate juridikoen kapital sozialaren balore adierazleak daudenean, aipatu tituluei proportzioz dagokien kuotaren zatiaren ehuneko 50aren hoberia eginen zaie.

3. Erregelamenduz ezarri ahalko dira:

a) Enpresa-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagokien kenkaria aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetek bete behar dituzten baldintzak”.

Zazpi. 36. artikulua.

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharrak duten pertsonak:

Haien tributu-kuota (zergari buruzko arauekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean aurkeztu beharko dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboek, edo, kasu hori gertatzen ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa (zergaren arauekin bat kalkulaturik) 700.000 eurotik gorakoa denean”.

Zortzi. Legearen izenburua

“Ondarearen eta dirutza handien gaineko zergari buruzko Foru Legea”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aipatu Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia

ZIOEN AZALPENA

Zerga bidezko diru-bilketa neurrigabe bermatzen da lan-errenten gainean, kapital-errenten edo enpresa-etekinen bidez lortutako diru-bilketaren aldean.

Hortaz, desoreka hori zuzentzeko erreformak egin behar dira.

Lan-errentek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez lortutako diru-bilketaren ehuneko oso handia egiten dute.

Foru lege honen helburua da PFEZean likidazio oinarri ertain eta txikien gainean dagoen presio fiskala hein batean murriztea.

Aldaketa hori bereziki onuragarria izanen da lan-errenta ertain eta txikientzat, zeinek zerga horren bidezko diru-bilketaren % 80 baino gehiago egiten baitute.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 59.1 artikulua ondotik ematen den testua izanen du. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	.
53.407	16.152,37	34.593	45
88.000	31.719,22	37.000	47
125.000	49.109,22	175.000	49
300.000	134.859,22	Gainerakoa	52

Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Foru Lege proposamen hau aurkeztu du: "Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru

Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zerga-araudia aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizte aldera neurriak hartzekoa, zeinak hein batean aldatzen baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaz onetsia, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Tributuen arloko politika da administrazio publikoek daukaten tresnetako bat, gastu publikoa finantzatzeko baliabideak biltzekoa ez ezik, zenbait jokabide ekonomikotarako pizgarriak ematekoa, eta, gainera, aberastasun-birbanaketako eraginak lortzekoa ere. Nafarroaren kasuan, tributu arloko bere foru araubidea dela eta, politika hori funtsezko elementuetako bat gertatzen da politika ekonomiko orokorra taxutzeko. Hori dela-eta, garrantzi handiko tresna bat da, eta halakotzat erabili beharra dago.

Egungoa bezalako krisi-testuinguru batean, politika horrek bilatu behar du, lehenbizi, bermatzea zerbitzu publikoei eutsiko zaiela eta haiek finantzatuko direla. Baina, horretaz gain, jokabide batzuen pizgarri gisa lagundu behar du. Inbertsiorako, enplegua sortzeko eta berrikuntzarako laguntzek, eta azken batean jarduera ekonomikoa sortzekoek, lehentasunezko gai bat izan behar dute. Halaber, eskariaren ikuspuntutik, etxeetako ekonomiak arintzeko eta kontsumoa pizteko, zergadunek aurreko urteetan egin duten ahalegin fiskalaren zati bat itzultzea lagungarri gertatuko da jarduera ekonomikoa garatzeko.

Horrenbestez, ezinbestekoa da neurri horiek –normalean, zergak beheratzea dakartenak– bat etortzea kontu publikoek behar duten orekarekin, eta, bereziki, zerbitzu publikoen prestazio egokia eta iraugarria bermatuta eta segurtatuta egotearekin. Osasuna, hezkuntza eta gizarte ongizatea ezin dira gutxitu, edo haien prestazio mailak ezin dira arriskuan jarri, gehiegizko beherapen fiskal batek baliabide ekonomikoak gehiegi gutxitzegatik. Xede horretara bideratzen da lege proposamen hau.

Lege proposamen honek, lehenbizi, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen du. Aldaketa gutxi dira, baina garrantzi izugarria dute-

nak. Horiekin nafar guztientzat zerga-zamaren beherapen orokor baina orekatu bat ezarri nahi da, baina hartan gehikortasun handiagoa ezarri eta azken urteetan inflazioak sortutako eraginak zuzenduz (tarte baxuak eta ertainak % 3 deflaktatzen dira), halako moduz non tributu-kargaren gutxitze bat gertatzen baita, batez ere errenta baxu eta ertainetan sentituko dena, eta neurri askoz txikiagoan errenta altuetan. Haietarako, gehieneko tasa marjinala % 48koa izanen da. Helburu horrekin, zergaren tarifa aldatzen da: tarifa orokorra zein aurrezkiarena. Azken horretan, pizgarria ematen zaio aurrezle txikiari, % 18ko gutxieneko tasa ezarrita.

Bestalde, inguruabar pertsonal eta familiarren-gatik murriztekoak diren zenbatekoak gaurkotze aldera, gutxieneko pertsonala eta seme-alabengatikoa % 5 handitzen dira, eta desgaituenak, berriz, % 10.

Azkenik, zenbait neurri ezartzen dira, familia-enpresetan ondorengotza eta jarraitutasuna errazten dutenak.

Bigarrenik, ondarearen gaineko zerga aldatzen da. Zerga horrek joan-etorri ugari izan ditu azken urteetan, eta, gaur egun, Nafarroaren kasuan, tributu hori dela-eta zergadunak desabantaila egotzen zeuden gainerako autonomia-erkidegoetako zergadunen aldean. Hartara, bada, tributu horren existentziari uko egin gabe –egokitzat jotzen baita gaitasun ekonomiko handienak zergapetzeko–, xede horri egokitzen zaio, ondare txikiagoen zergapetzea kenduta, eta haren tratamendua gainerako lurraldeetakoarekin orekatzen da. Zehazki, gutxieneko salbuetsia 800.000 euroraino igotzen da; tarifa % 20 beheratzen da; eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten entitateetako ondasun atxikiak eta partaidetzen kenketarako metodoa aldatu eta haren ordezkari salbuespen-metodoa ezartzen da, zeina baita Espainiako gainerakoan aplikatzen dena.

Azkenik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzen da. Tributu honetan, helburua da zergaren tasa nominalak jaitea, gure inguruko herrialde eta lurraldeetan bezala, baina beherapen gradual bat eginez, diru-bilketa arriskuan jartzen ez duena. Hartara, gutxieneko tasa efektibo bat ere zehazten da, izaera orokorrekoa, baina gutxieneko hori txikiagoa izan daiteke baldin eta enpresak I+G jarduerak egiten baditu, enpresa berriak sortzeko inbertsioak egiten baditu edo enplegua sortzen badu. Gainera, neurri-sorta bat ezartzen da, I+G+B jarduerak eta patenteak sortu eta erabiltzekoak sendo indartzeari begira. Gainera, kenkari ugari kentzen dira, denborak erakutsi baitu eraginkortasunik gabeak direla. Azken bate-

an, tasen beherapen gradual eta haztatua, eta inbertsiorako, enplegurako eta I+G+B delakorako pizgarriak, horren bidez sortze aldera jarduera ekonomiko eta aberastasun handiagoa, enplegu gehiago eta, horrenbestez, diru-bilketa handiagoa.

Zehazki, enpresa handien tasa nominala % 30etik % 27ra jaisten da 2015ean, eta % 24ra 2016an. Enpresa ertainena (milioi bat eta hamar milioi euro bitarteko fakturazioa) % 26ra pasatuko da 2015ean, eta % 24ra 2016an. Enpresa txikien zerga-tasa (milioi bat eurotik beherako fakturazioa dutenena) % 20tik % 19ra jaisten da. Alabaina, % 10eko gutxieneko tasa efektibo bat ezartzen da, zeina % 7raino jaits baitaiteke enplegua sortzeko baldintzak daudenean.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen den testua izanen dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manuek:

Bat. 39.4. artikulua.

“Hurrengo kasuotan, ondare gehikuntzarik nahiz murrizketarik ez dela joko da:

c) Enpresa baten “inter vivos” irabazizko eskualdaketa egiten bada, edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.9 artikuluan araututako salbuespena aplikatzen zaien entitateetako partaidetza guztiena edo haien zati batena. Baldintza hauek bete beharko dira:

a’) Eskualdaketa lerro zuzeneko ondorengo ahaide baten edo gehiagoren alde egitea, edo hirugarren maila bitarteko odol bidezko alboko ahaide baten edo gehiagoren alde, maila horretakoak barne.

b’) Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan gutxienez ere edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean edo partaidetza horiek mantentzea gutxienez bost urtez, epe horretan hiltzen badira izan ezik. Halaber, eskuratzailerak edo eskuratzailerak ez dute zilegi xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

nean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

c’) Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiagoko adina izatea edo baliaezintasun oso edo baliaezintasun larriko egoeran egotea.

d’) Eskualdaketa egin zen ekitaldiari dagokion zergaren aitortenean eskualdatzaileak Administrazioari gorabehera hori azaltzea”

Bi. 55.3. eta 4. artikulua.

“3. Gutxieneko pertsonal pasiboarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonala subjektu bakoitzeko 3.885 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 945 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 2.100 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b) 2.750 euro subjektu pasibo desgaituentzat, frogatzen badute ehuneko 33 eta 65 arteko desgaitasun maila dutela. Zenbateko hori 9.900 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu ehuneko 65eko edo goragoko desgaitasuna duela.

4. Gutxieneko familiarrengatik:

Lehena. Gutxiengo familiarra honako hau izanen da:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino errenta altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, errenta salbuesiak kenduta, zenbateko hauetako bat:

– 945 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.100 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik (IPREM) goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, errenta salbuesiak bazter utzirik:

– 1.732 euro urtean, lehenbizikoagatik.

- 1.837 euro urtean, bigarrenagatik.
- 2.625 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 3.517 euro urtean, laugarrenagatik.
- 3.990 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 4.620 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, bere adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.310 euro urtean. Zenbateko hori 4.200 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, bere adina zein ere den, 2.420 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urtealdi-errentak, salbuetsiak kanpo, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, eta desgaitasunen bat izatea, eta duten desgaitasun maila ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 8.470 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila ehuneko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerroaldean aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bigarrena. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan, berdinean jokatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduarekin, gutxieneko familiarra gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko pertsonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batura izanen da”

Hiru. 59.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.940	13,00
3.940	512,2	4.815	22,00
8.755	1571,5	9.295	25,00
18.050	3.895,25	13.680	28,00
31.730	7.725,65	15.120	36,00
46.850	13.168,85	8.160	40,00
55.010	16.432,85	35.630	42,00
90.640	31.397,45	34.360	45,00
125.000	46.859,45	50.000	46,00
175.000	69.859,45	125.000	47,00
300.000	128.609,45	Gainerakoa	48,00”

Lau. 60. artikulua.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		6.000	18
6.000	1.080	12.000	22
18.000	3.720	Gainerakoa	24"

2. artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikulua hauek ondoko idazketa izanen dute:

Bat. 5. artikuluar 8., 9. eta 10. idatz-zatiak gehitzea. Hona testua:

"8. Pertsona fisikoaren ondasun eta eskubideak, bere enpresa- edo lanbide-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jardura hori subjektu pasiboak berak azturaz, pertsonalki eta zuzenean burutzen badu eta bere errenta-iturri nagusia bada. Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko artikulua honetako 9. idatz-zatiak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainsariak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainsari ere.

Salbuespena aplikatuko da enpresa-jarraitutasunik badagoenean baina, arrazoi ekonomikoak tarteko, galerak daudenean edo jardueraren etekin positiboek modurik ematen ez dutenean errenta-iturri nagusia izatearen baldintza betetzeko.

Salbuespena egonena dira, halaber, bi ezkontideen ondasun eta eskubide komunak, bi ezkontideetako edozeinen enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko erabiltzen direnean, betiere aurreko letrakadako baldintzak betetzen badituzte.

9. b) Entitateen partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufuktu eskubidea, entitate horiek merkatu antolatuetan kotizatu ala ez, baldintza hauek guztiak gertatzen badira:

a) Entitateak, sozietate bat izan nahiz ez izan, enpresa- edo lanbide-jardueraren bat benetan burutzea eta jardura nagusizat ez izatea ondare

higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean:

a) Bere aktiboaren erdia baino gehiago balorek osatua izatea, edo bestela

b) Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikia.

Idatz-zati honetan adierazitako ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jardura bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari segituko zaio. Nolanahi ere, ulertuko da entitate batek enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten duela, baldin eta aurreko a) eta b) azpiletrak aplikatuz ezartzen bada ez duela ondare higigarri nahiz higiezin kudeatzen.

Bai aktiboaren balioa, bai jardura ekonomiko- ei loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitateak adierazten duena izanen da, baldin eta horrek sozietatearen egiazko ondare-egoera zintzoki adierazten badu.

Aurreko jarduerari loturik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-partea zehazteko:

Lehen. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

Enpresa- edo lanbide-jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

Gutxienez ere bozketa-eskubideen ehuneko bost ematen dutenak eta partaidetzaren zuzendaritzarako eta kudeaketarako edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra honetan agertzen ez bada.

Bigarrena. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa- nahiz lanbide-jardueri atxikita ez dauden elementu gisa ere, erosketa prezioa entitateek lorturiko etekin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera ekonomikoen ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Ondorio horietarako, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako etekintzat hartuko dira, baldin eta parte hartutako entitateak lortutako diru-sarrearen ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira.

b) Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza ehuneko 5 izatea, gutxienez, banaka zenbatua, edo ehuneko 20, batera zenbaturik ezkontideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek dutenarekin, berdin delarik ahaidetasuna odolkitasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik edo seme-alabaordetzatik etortzea.

c) Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza eginkizuna betetzea egiazki, eta horretatik jasozten duen ordainsaria enpresa- zein lanbide-etekin eta lan pertsonaleko etekin guztien ehuneko 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, artikuluko honetako 8. idatz-zatiak aipatzen duen enpresa-jardueraren

etekinak ez dira zenbatuko enpresa- edo lanbide-jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa.

Entitatean duen partaidetza aurreko letran aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, gutxienez ahaidetasun-taldeko pertsona batek bete beharko ditu zuzendaritza-zereginiei eta haren ondoriozko ordainsariei buruzkoak, pertsona horiek guztiek salbueste-eskubidea izatearen kalterik gabe.

Salbuesteak partaidetzen balioari aplikatuko zaio –balio hori foru lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da– parte honetan soilik: lanbide- edo enpresa-jarduera burutzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen den kopuruaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokiona. Arau horiexek aplikatuko dira entitate partaidetuetako partaidetzak baloratzean, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazte aldera.

10. Erregelamendu bidez zehaztuko dira honakoak:

a) Enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagoen salbuespena aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak”

Bi. 28.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 800.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik”

Hiru. 30. artikulua. Kuota osoa.

“Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalako karga-tasak ezarriko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45.	136.726,02	Hortik gora	2,00”

Lau. 33. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz-zatiak kentzea.

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 37. artikulua. Jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketa-erregatiko murrizketa.

“Ez da zerga-oinarrian sartuko entitatearen jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagatzearen bitartezko ustiakuntzari dagozkion diru-sarreraren ehuneko 30, baldin eta lagapen hori aldi baterako egiten bada eta ez badu berarekin ekartzen kasuko ondare-elementuen besterentzea. Zerga-oinarrian ez sartzearen portzentajea ehuneko 60koa izanen da, jabetza intelektual edo industrial entitateak berak garatu duenean. Ez dute inolaz ere murrizketarako eskubiderik sortuko ondokoak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzen heldu diren diru-sarrek: literatura lanak, lan artistiko edo zientifikoak, filmak barne, lagatzen ahal diren eskubide pertsonalak, hala nola irudi eskubideak edo soilik merkataritza-aplikazioa duten programa informatikoenak.

Alde horretatik, ulertzen da programa informatiko bat ez dela sartzen aurreko lerrokan deskribatutako kasuan egiazki estandarra ez den programa bat denean, zergadunak berariaz garatua eta hobetua eta lagapen-hartzailearen ekoizpen-prozesuari begira berarentzat pertsonalizatutako funtzionaltasun berariazkoak dituen, ekoizpen-prozesu horretako elementu garrantzitsua izaki.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Lagapen-hartzaileak jarduera ekonomiko batean baliatzea erabilera edo ustiapeneko eskubideak, eta baliatze horren emaitzak ez daitezela gauzatu lagapen-hartzaileak egiten duen ondasun-ematean edo zerbitzu prestazioan, baldin eta zergen arloan kengarriak diren gastuak sortzen badituzte entitate lagatzailean, eta, betiere azken kasu horretan, entitate hori lagapen-hartzailearekin lotuta badago.

b) Lagapen-hartzaileak egoitza ez izatea tributazio gabeko edo paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean, salbu eta Europar Batasuneko kidea den estatu batean egoitza duenean eta zergadunak frogatzen duenean haren eraketak eta

operatibak arrazoi ekonomiko baliadunei erantzuten dietela eta enpresa-jarduerak egiten dituela.

3. Murrizketa hori kontuan hartu beharko da 60.1.b) artikulua aipatzen duen kuota osoaren zenbatekoa zehaztearen ondorioetarako.

4. Halaber, zergadunak bere zerga-oinarria murriztuko du bere jabetza intelektual edo industrial eskuratzeko prezioaren edo ekoizteko kostuaren ehuneko 5eko zenbatekoan, hura jarduera ekonomiko baten garapenean aplikatzen den bitartean, betiere haren jabetza osoa duenean eta aurreko idatz-zatian ezarritako salbuespenekin. Murrizketa horrek ezin izanen du gaudituen kenkari horri aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren diru-sarreraren kopuruaren ehuneko 0,5.

Baldin eta murrizketa ez bada muga horretara iritsi, zergadunak aldea murriztu ahalko du entitateak erregistratutako markak erabiltze-erregatiko konpentsazioaren kontzeptuan, marka horiek entitateak berak sortu baditu eta haren jarduera ekonomikoaren garapenean aplikatzen badira. Idatz-zati honetan ezarritako murrizketa bateragarria izanen da murrizketa bera kalkulatzeko zaien aktibo ukiezinei dagokien amortizazio-erregatiko edo balio-andeatzearen ondoriozko galererregatiko kenkariarekin.

Bi. 50. artikulua.

“50. artikulua. Karga-tasak.

1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 27.

b) ehuneko 26, enpresa txikientzat.

Enpresa txikitzat hartuko da ustiapen ekonomiko bat gauzatzen duena eta honako baldintza hauek betetzen dituen:

a) Aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia hamar milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), negozio zifraren zenbateko garbia talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatu da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko

batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

Enpresak jarduera-adar nahiz enpresa-ondare osoa eskuratu badu, entitate eskuratzaileren negozio zifraren zenbatekoa zehazteko, entitate eskualdatzaileren zenbateko hori bera gehituko zaio, edo zergaldi horretan jarduera-adarrari zegokiona.

b') Aurreko a') letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren ehuneko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko Funtsak edo Sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada.

Ez dira inolaz ere enpresa txikitzat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarteen eta aldi baterako enpresa elkarteen araubide berezipeko entitateak.

Hala ere, b) letra h onetan xedatutakoa gorabehera, karga-tasa ehuneko 19koa izanen da enpresa txikiaren izaera badu, aurre-aurreko ekitaldiko negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean. a') azpiletran adierazitako kasuetan, milioi bat euroko zifra hori taldeko entitate guztiek osatzen duten multzoari aplikatuko zaio. b') azpiletraren kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren ehuneko 25 baino gehiago aurre-aurreko ekitaldian milioi bateko edo hortik beherako negozio-zifra garbia izan duten entitateek izatea, dela zuzenean dela zeharka.

2. Honakoek ehuneko 23ko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Aseguru orokorretako mutuak, gizarte aurreikuspeneko entitateak eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesionaletako mutuak, berauek araupetzen dituen arautegiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfinkapeneko sozietateak, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak araupetzen dituenak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta dauden horiek.

c) Kredituko sozietate kooperatiboak eta kutxa ruralak, emaitza kooperatiboez kanpo dagokienez izan ezik, tasa orokorra ordainduko baitute.

d) Lanbide elkargoak, enpresaburuen elkarteak, ganbera ofizialak eta langileen sindikatuak.

e) Irabazi asmorik gabeko entitate eta erakundeak, baldin eta legezko ordezkaritza karguetan aritzen direnek kobratzen ez badute eta dagokion organoaren aurrean erantzun behar badute, entitate horiek ez badituzte betetzen Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu araubideaz baliatzeko baldintzak.

f) Enplegua sustatzeko funtsek, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen 22. artikulua babesean sortutakoak.

Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioek.

3. Honakoek ehuneko 17ko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboek, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan-sozietateek, baldin eta lortzen dituzten mozkinen ehuneko 25 sartzen badute gutxienez ere Erreserbako Funts Berezira, salbu sozietatearen jarduera berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienez, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitateko emaitza negatiboa denean eta likidazio-oinarria positiboa, ehuneko 17ko zerga-tasa aplikatuko da.

4. Ehuneko 10eko tasa ordainduko dute, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen dituzten entitateek.

5. Honakoek ehuneko 1eko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, Inbertsio Kolektiboko Instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen baititu, baldin eta eskatutako akziodunen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 9. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

b) Aipatutako legean ezarritako finantza izaera inbertsio-funtsek, baldin eta eskatutako partaiden kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen

5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

c) Lege horretan araututako ondasun higiezinetakoinbertsio-sozietatek eta ondasun higiezinetakoinbertsio-funtsek, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatietan aurreikusitakoa baldin bada, eta, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, beren helburu eksklusiboa edonolako hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Zenbaki honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea eskuratzen direnetik gutxienez hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Bartzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek c) letran ezarritako gutxienerako epea baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, c) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra zuen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, ginkarguak eta zehapenak.

c) letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuetan dibidenduak ez banatzea ezarrita badago.

d) Ondasun higiezinetakoinbertsio-sozietateek eta ondasun higiezinetakoinbertsio-funtsek (azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen direnak), c) letran aipatzen diren betebeharez gain, bakar-bakarrik errentan jartzeko etxebizitzak sustatzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Ondasun higiezinetakoinbertsioek, ondasun higiezinak sustatzeko jarduerari lotuak badaude, ezin gaituzte ondasun higiezinetakoinbertsio-sozietate edo -funtzaren aktibo osoaren ehuneko 20.

Bigarrena. Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jartzeko jardueran kontabilitate bereizia egiten da eskuratu edo sustaturiko ondasun higiezin bakoitzeko. Beharrezkoa den xehaketa egiten

da, hura zatiturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko, b) letran aurreikusitako portzentajeari dagokionez aktibo osoko inbertsioak kontatu beharra deusetan galarazi gabe.

Hirugarrena. Ondasun higiezinetakoinbertsio sozietate edo funtsek sustapenaren ondoriozko ondasun higiezinak errentan emanda edo eskainita eduki beharko dituzte zazpi urtez gutxienez. Epe hori eraikuntza bukatzen den egunetik aurrera kontatuko da. Ondorio horietarako, higiezinaren eraikuntzaren bukaera frogatuko da obrako azken ziurtagiriaren bidez, Eraikuntzaren Antolaketa buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 6. artikuluan xedatu bezala.

Ondasun higiezin horiek d) edo c) letran ezarritako gutxienerako epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du; hots, d) letra honetan aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen lehengoko zergaldi bakoitzean higiezinari zegozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra zuen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko izan litezkeen berandutza interesak, ginkargak eta zehapenak.

Ondasun higiezinetan inbertitzeko sozietate eta funtsek, etxebizitzak errentan emateko sustatuz gero, halaxe jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, jarduera hori hasten den zergaldian.

e) Hipoteka merkatua arautzeko funtsa, Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan ezarria.

6. Ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arautzen dituen pentsio-funtsek ehuneko 0ko zerga-tasa ordainduko dute.”

Hiru. 51. artikulua.

“51. artikulua. Kuota osoa, kuota efektiboa eta gutxienerako zerga-ordainketa.

1. Kuota osoa izanen da likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

2. Benetako kuota izanen da titulu honen II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako hobari eta kenkarien zenbatekoan kuota osoa murriztetik ateratzen den zenbatekoa.

3. 50. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako karga-tasen arabera zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, kuotaren gaineko

kenkariaren aplikazioak –salbu eta 66. artikuluan araututako ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko kenkariaren kasuan eta 63. artikuluan araututako inbertsioengatiko kenkariaren kasuan– ez du berarekin ekarriko kuota efektiboa txikiagoa izatea zera baino, likidazio-oinarriaren gainean ehuneko 10eko portzentajea aplikatuz ateratzen den zenbatekoa baino, zenbateko horri honakoa murriztuta: 58. artikuluko hobariaren eta titulu honetako III. kapituluko barneko nahiz nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariaren batura bider 50. artikulua arabera aplikatzeko den karga-tasa egitearen emaitza.

Aurreko lerrokadan ezarritako portzentajea ehuneko 7a izanen da, baldin eta subjektu pasiboa zergaldian zehar gutxienez ehuneko 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta.”

Lau. Indarrik gabe uzten da 57. artikulua.

Bost. 69. artikulua. Kenkaria, biomasako instalazio termikoetan inbertsioak egiteagatik.

“Kuota likidoaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortuko dute entitatearen ustiatze ekonomikoaren garapenari atxikita dauden eta erregai bezala biomasa erabiltzen duten instalazio termikoetan eginiko inbertsioek.

Eragin horietarako, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak egiaztapen-txosten bat eman dezala eginiko inbertsioen kopuruari buruz, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla kasuko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera.”

Sei. Indarrik gabe uzten dira artikuluko hauek: 66 bis, 68 bis, 70 bis, 70 ter eta 70 quater.

Zazpi. 70. artikulua. Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatiko kenkariak.

“1. Espainiako film luze zinematografikoaren eta ikus-entzunezko serieen (fikzioak, animazioak edo dokumentalak) ekoizpenetan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, ehuneko 35eko kenkarirako eskubidea emanen diote ekoizleari. Kenkariaren oinarria produkzioaren guztizko kostuak osatuko du, bai eta kopiak egiteko eta publizitate gastuetarako gastuek eta ekoizlearen kargurako sustapen gastuek ere, bi kasuetan produkzio-kostuaren ehuneko 50eko mugaraino.

Kenkari-oinarriaren ehuneko 25, gutxienez, Nafarroako lurraldean egindako gastuena izanen da.

Baterako ekoizpenaren kasuan, idatz-zati honetan adierazitako zenbatekoak baterako ekoizle bakoitzak finkatuko ditu hartan daukan partaide-tza-ehunekoaren arabera.

Artikulu honetan aipatzen den kenkaria obraren ekoizpena bukatzen den zergalditik aurrera egingen da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiagoko epea duenean eta entitatearen zergaldi batean baino gehiagotan eragiten duenean, entitateak zilegi izanen du kenkaria aplikatzea ordainketak egiten diren neurrian eta ordainketa horien zenbatekoan, kenkaria hasteko datan kenkarietarako indarrean dagoen araudia aplikatuta.

Kenkari-oinarria gutxituko da kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoan.

Idatz-zati honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72. artikuluko 6. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan aipatzen den mugatetik. Muga hori kalkulatzeko erabiltzeko, kenkari hori ez da zenbatetsiko. Kenkari honen aplikazioan ez du eraginik izanen, ezta ere, foru lege honetako 51.3 artikuluan araututako tasak.

2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Enpresa Zinematografikoaren Erregistroan izen emanda dauden ekoizleek, film luze zinematografikoaren ekoizpenaz edo seriean eginiko ekoizpen industrialaren epea baino lehenagoko euskarri fisikoa egiteko modua ematen duten ikus-entzunezko obraren ekoizpenaz arduratzen direnek, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria aplikatzeko. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenaren gutxienez ere astebeteko filmatzea egin beharko da Nafarroako barnealde edo kanpoaldeetan, salbu eta behar bezala justifikatutako inguruabarrengatik epea laburragoa denean, Foru Komunitateko esparruan ezin egiteagatik.

Kenkariaren oinarria Nafarroako lurraldean egin eta ekoizpenarekin zuzeneko lotura duten honako gastuek osatuko dute:

Lehena. Sormenaren arloko langileen gastuak, baldin eta egoitza fisikoa Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko kidea den estaturen batean badute, 50.000 euroko mugarekin pertsona bakoitzeko.

Bigarrena. Industria teknikoak eta bestelako hornitzaile, garraio, ostatu eta mantenuak erabil-

tzetik heldutako gastuak, ekoizpenerako beharrezkoak direnak.

Idatz-zati honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72. artikuluko 6. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan aipatzen den mugatetik. Muga hori kalkulatzearen ikuspegitik, kenkari hori ez da zenbatetsiko. Kenkari honen aplikazioan ez du eraginik izanen, ezta ere, foru lege honetako 51.3 artikuluan araututako tasak.

Zenbaki honetan ezarritako kenkaria ez da aplikatuko zerbitzuak hartzen dituen ekoizleak artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzen duenean.

Zortzi. 71.1, 2 eta 3 artikulua.

“1. Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 5.000 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan. Horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hamabi hilabeteen kontratu mota hori zuen plantillaren batez bestekoa. Ondorio horietarako, sortu berri diren entitateen kasuan, eratu aurreko aldian zero langile izan dituztela zenbatuko da.

Plantillan izan den batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona dauden urtean lan-kontratu mugagabearekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen arabera portzioan kontatuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari legoiokeena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 2.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, aurreko lerrokadan aipatu kenkaria eginen da aipatu den gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez besteko murrizketaren arteko diferentzia positiboaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.800 eta 3.200 eurokoak izanen dira,

hurrenez hurren, urtean kontratatzen den langile minusbaliatu bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, berezirik kalkulatu, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

Bederatzi. 72. artikulua.

“72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariari buruzko arau komunak.

1. 63, 64, 65, 69 eta 70. artikuluek aipatzen duten kenkaria aplikatzeko eskubidea noiz sortzen den zehazteko, 42.2 artikulua bigarren lerroaldean xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala badagokio.

2. Kapitulu honek aipatzen dituen kenkariaren oinarria kalkulatzeko, 42.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala badagokio.

Inbertsioari edo jarduerari lotutako diru-laguntza bat ematen bada kenkaria aplikatzeko zergaldiaren ondoko zergaldi batean, subjektu pasiboak zergaldi horri dagokionez egin behar duen aitorpean sartuko du kenkariaren oinarria murriztearen ondorioz soberan kendutako kuotaren zenbatekoa.

3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak ezin izanen dute osotara gainditu honako hau: barneko eta nazioarteko ezarpen bikoitza saiheste aldera kenkarietan eta hobarietan kuota osoa murriztearen ondoriozko kuota likidoaren ehuneko 25a salbuespena da 66. eta 70. artikuluetan araututakoa eta 63. artikuluan araututakoa, jarduera hasi arte, kasu horietan kuota likido osoa xurgatu ahalko baita.

Kuota aski ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatu ahalko dira, muga bera errespetatuz, hurrengo hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak egiaztatu beharko du, dagokion moduan, kontabilitatea eta behar diren dokumentuak erakutsiz, kenkariaren jatorria eta zenbatekoa, sortu direneko zergaldia edozein dela ere.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa emaitza positiboak lortzen diren lehenengo zergaldira arte geroratu ahalko da, kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko zergaldietako galerak baliabide berriak benetan jarriz onbideratzen dituzten entitateetan, halakotzat hartzen ez delarik erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa.

4. Inbertsio edo gastu batek ezin izanen du kenkaria entitate batean baino gehiagotan aplikatzeko biderik eman.

5. Kenkarietz baliatzeko, ibilgetuaren barnean kontabilizatu beharko dira egiten diren inbertsioak, gainera ondare elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanen duen epigrafe baten pean. Halaber, subjektu pasiboaren ondarean bost urtez gutxienez egon beharko dute, edo haren balio-bizitzan, laburragoa balitz, gastu arrunt gisa hartzen diren kontzeptuen kasuan izan ezik.

6. Kenkariaren aplikazioa ordena honen arabera egin beharko da:

Barneko eta nazioarteko ezarpen bikoi-tzagatiko hobariak eta kenkariak gauzatu ondotik, lehenbizi aurreko zergaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, foru lege honetan ezarritako mugak errespetatuz.

Ondotik, aurreko 3. zenbakian ezarritako muga aplika dakiekeen kenkariak, ekitaldikoak, aplikatuko dira; betiere, aurreko lerroaldeko kenkariaren eta lerroalde honetakoen artean osotara ehuneko 25eko muga gainditzen ez den bitartean.

Horren ondoren, kuota likidoaren gainean mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak, foru lege honetan aurreikusitako, gauzatuko dira.

7. Kenkariok subjektu pasiboak bere borondatez eginiko aitorpenetik ateratako kuotari aplikatuko zaizkio, bai eta Administrazioak gauzatutako tributu erregularizaziotik ateratzen den kuotari ere."

Hamar. 87. artikulua.

"1. 50.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa txikitat hartzen diren subjektu pasiboek 66. artikuluan ezarritako kenkariaren itzulketa eskatzen ahalko dute, hain zuzen, 2011. urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sorrarazi eta kuota likido aski ez izateagatik aplikatu ezin izan zena.

2. Itzulketa egiteko, arau hauei jarraikiko zaie:

Lehen. 72. artikuluan adierazitako arauak aplikatu ondoren, kasuan kasuko zergaldian kentzeke dagoen kopurua itzuliko da. Diru-muga 100.000 eurokoa izanen da.

Bigarrena. Zergaren aitortzearen eskatuko da eta 86. artikuluan xedatua aplikatuko zaio, epeei, berandutza-interesei eta, kasua bada, behin-behinekoko likidazioari dagokienez, ofiziozko itzulketak egiteko.

Hirugarrena. Itzulketa eskatuz gero, itzulketaren kopuruak ezin izanen dira gero kenkarietan sartu, salbu eta itzulketa ukatu baldin bada.

3. Ahalmena ematen zaio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari artikulua honetan ezarritako itzulketaren berariazko ezaugarriak zehazteko."

Lehen xedapen gehigarria.

50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan araututako bi zerga-tasak % 24koak izanen dira, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

Bigarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikuluan ezarritako gutxienezko zerga-tasa ez aplikatzea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikulua ez zaie aplikatuko foru lege honen arabera babes berezia duten kooperatibei, ez eta babes berezia duten nekazaritzako kooperatibak diren lehentasunezko elkarte-ustategiei ere. Ez zaie aplikatuko, ezta ere, laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kooperatibei."

Lehen xedapen iragankorra. Araubide iragankorra ezartzea aplikatzeke dauden kenkarietat, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldiei dagokienez.

Foru lege honetako VI. tituluko IV. kapituluaren ezarritako kenkariak, 2014ko abenduaren 31n indarra zuen testuaren arabera 2015eko urtarrilaren 1ean hasten den lehen zergaldiaren hasieran aplikatzeke daudenak, 72. artikuluan ezarritako baldintza eta mugekin aplikatu ahalko dira, azken data horretatik aurrera indarra duen testuaren arabera.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea foru lege proposamen bat, zeinaren bidez arautzen baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna. Proposamen hori Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu eta 2014ko abuztuaren 19ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen

baita ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Politiketako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik hamabost egun baliouduneko **epe bat hasiko da, 2014ko azaroaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

